




ABALTZISKETAko UDALA

# HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA

## ABALTZISKETA



### TESTU BATEGINA BEHIN BETIKO ONARPENA

---

“1.2. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA” dokumentua

---

2013ko URTARRILA

ARKITEKTOA

ARQUITECTO

PILAR AMENABAR ZABALA





## **HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ABALTZISKETA**

### **"1. MEMORIA" DOKUMENTUA**

#### **"1.2. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA"**

**TESTU BATEGINA  
BEHIN BETIKO ONARPENA**

**2013ko urtarrila**



TALDE IDAZLEA:

IDAZLEA:

Pilar Amenabar Zabala, arkitektoa.

LAGUNTZAILEAK:

Endara Ingenieros Asociados SL  
Ekolur Asesoría Ambiental SLL

LANAREN ZUZENDARITZA:

Abaltzisketako Udaleko Udalbatza.



AURKIBIDE OROKORRA:

DOKUMENTUA: "1. MEMORIA".

"1.1. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUA ETA HURA GAUZATZEA  
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA".

**"1.2. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA".**

DOKUMENTUA: "2. HIRIGINTZA ARAUAK".

"2.1. HIRIGINTZA ARAU OROKORRAK".

"2.2. HIRIGINTZA ESPARRUETAKO (HE) HIRIGINTZA ARAU  
PARTIKULARRAK".

DOKUMENTUA: "3. KATALOGOA".

DOKUMENTUA: "4. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN  
AZTERKETA. JARDUN PROGRAMA".

DOKUMENTUA: "5. PLANOAK".

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA. ABALTZISKETA  
Testu bategina. Behin betiko onarpena. 2013ko urtarrila.

"1. MEMORIA" DOK.  
"1.2. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA"





## AURKIBIDEA:

<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>I.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA</b> .....	<b>2</b>
I.1.- PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA IRISPIDEA .....	2
I.2.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	2
I.3.- AINTZAT HARTUTAKO AUKERAK .....	4
I.4.- PROPOSATUTAKO JARDUN NAGUSIEN LABURPENA .....	5
I.5.- LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANAK ETA ARLOKO PLANAK AINTZAT HARTZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENAK .....	9
I.6.- INPAKTUAK SOR DITZAKETEN JARDUNAK IDENTIFIKATZEA .....	10
I.7.- PLAN OROKORRA GAUZATZEKO FASEAK.....	11
I.8.- HAUTEMANDAKO INFORMAZIO HUTSUNEAK.....	11
I.9.- PARTE HARTZE PUBLIKOA .....	11
<b>II.- PLANAREN ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEN ARTEKO ELKARREKINTZAREN ANALISIA</b> .....	<b>14</b>
II.1.- LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK .....	14
II.2.- TOLOSERRIKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA.....	14
II.3.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK .....	15
II.4.- PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.....	19
II.5.- GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020) .....	19
II.6.- INGURUMEN LEGERIA.....	20
II.7.- AZTERTUTAKO ESPARRUAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN BESTE PLAN BATZUK .....	21
<b>III.- PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA</b> .....	<b>22</b>
III.1.- JARDUN ESPARRUA .....	22
III.2.- KOKALEKUA .....	22
III.3.- OROGRAFIA ETA MALDAK .....	22
III.4.- EZAUGARRI GEOLOGIKOAK.....	23
III.5.- HIDROLOGIA.....	24
III.6.- LURZORUAK ETA KLASE AGROLOGIKOAK.....	27
III.7.- LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK.....	29
III.8.- FAUNA .....	31
III.9.- INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK .....	32
III.10.- PAISAIA .....	34
III.11.- KULTURA ONDAREA.....	35
III.12.- INGURUMEN ARRISKU NATURALAK.....	36
III.13.- INGURUMEN ARRISKU ANTROPIKOAK .....	37
III.14.- ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK.....	37
III.15.- MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.....	38
III.16.- BALIABIDE HIDRAULIKOAK ETA URAREN ZIKLOA .....	39
III.17.- HONDAKINAK .....	40
<b>IV.- AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA</b> .....	<b>42</b>
IV.1.- AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN LABURPENA .....	44
IV.2.- AUKEREN INPAKTURIK ADIERAZGARRIENEN DESKRIBAPEN ETA BALORAZIO GLOBALA .....	45
IV.3.- HAUTATUTAKO SOLUZIOAREN JUSTIFIKAZIOA.....	47
<b>V.- INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA</b> .....	<b>50</b>
V.1.- PLANAREN HELBURUEK INGURUMENAREN GAINEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA .....	50
V.2.- PLANAREN JARDUNEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINAK IDENTIFIKATZEA ETA BALORATZEA.....	50
V.3.- INGURUMEN INPAKTUA ZEHAZTEKO ZAILTASUNEN ETA ZIURGABETASUNEN DESKRIBAPENA .....	63



V.4.-	SORTUKO ZUTEN INPAKTU LARRIAGATIK ALDATU EDO EZABATU DIREN PLANAREN JARDUNAK.....	63
V.5.-	ESPARRUAREN HARRERA AHALMENA.....	63
<b>VI.- NEURRI BABESLEEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA .....</b>		<b>65</b>
VI.1.-	IDENTIFIKATUTAKO INPAKTUEN ERAGINAK ARINTZEKO PROPOSATUTAKO NEURRI PREBENTIBOAK ETA ZUZENTZAILEAK.....	65
VI.2.-	PROPOSATUTAKO NEURRIEN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA.....	69
<b>VII.- PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA.....</b>		<b>71</b>
VII.1.-	KONTROL ETA JARRAIPEN HELBURUAK.....	71
VII.2.-	IKUSKATZEKO PROGRAMAREN FASEAK.....	71
<b>VIII.- LABURPEN DOKUMENTUA.....</b>		<b>76</b>
VIII.1.-	PLAN OROKORRAREN HELBURUEN ETA AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA.....	76
VIII.2.-	PLAN OROKORRAREN ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEN ARTEKO INTEGRAZIOA.....	76
VIII.3.-	PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA.....	77
VIII.4.-	AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN INGURUMEN ANALISIA.....	78
VIII.5.-	INGURUMEN INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA.....	78
VIII.6.-	NEURRI PREBENTIBOEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA.....	78
VIII.7.-	PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA.....	79

**I. ERANSKINA: FAUNA KATALOGATUA (30T WN36 LAUKIA).**

**PLANOAK**

Plano zk.	Izenburua	Eskala
VII.1	Ingurumen-arloan homogeenak diren unitateak	E 1: 10.000
VII.2	Arrisku naturalak dituzten eremuak	E 1: 10.000
VII.3	Hiri-garapenerako proposamenetako ingurumen-baldintzatzaileak	E 1: 2.500

**IRUDIAK**

Irudi zk.	Izenburua
1	EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LAP. Ingurumen-osagaia.
2	Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAP. Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak.
3	Gauzatzeko
4	Formazio litologikoak eta interes geologikoko eremuak
5	Ibai-sarea eta lur gaineko harguneak
6	Lurpeko ur-masak
7	Klase agrologikoak
8	Abaltzisketako korridore ekologikoen sareko egitura-elementuak
9	Ikus-arroak
10	Lurzorua polui dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuak
11	1. aukera. Aurrerapen-fasea.
12	2. aukera. Aurrerapen-fasea.
13	3. aukera. Aurrerapen-fasea.
14	Hautatutako aukera. Hasierako onarpeneko fasea.
15	Paisaia-ibilbide bereziak





## SARRERA

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa (IIBE) uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak arautzen du. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra garatzen du. Izan ere, xedapen horretan sortu da Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa, eta plangintza-prozesuaren lehenengo faseetan planek eta programek ingurumenaren gainean izan ditzaketan eraginei buruzko azterketa sartzea ezarri da bertan.

Gero, indarrean jarri dira 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa, estatu-mailako oinarriko lege gisa, eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, [EAEn] planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. Legeria berria bat dator aurreko legeriaren helburuekin, nahiz eta prozedura alderdi jakin batzuetan aldatzen duen.

211/2012 Dekretuak indargabetu egin du arestian aipatutako 183/2003 Dekretua. Nolanahi ere, indarreko dekretuaren [211/2012] xedapen iragankorrak honako hau ezartzen du: "*Dekretu hau indarrean sartzen denerako hasierako onarpena izan duten edo lehenbiziko onarpen administratiboa izan duten planak eta programak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritako prozeduraren pean egongo dira*". Horixe da espediente honen kasua, eta, horrenbestez, ingurumen-ebaluazioari dagokionez, 183/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera amaituko dira izapideak.

Bestalde, 183/2003 Dekretuaren 3. artikuluan ezartzen da Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren aplikazio-esparrua. Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozeduraren mende dauden planen artean daude Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2003ko maiatzaren 27ko bilkuran onartu zuen gaur egun indarren dauden Abaltzisketako Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina. 2003ko abuztuaren 13ko 152 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara Testu Bategin hori. Testu Bategin hori eta ondoren bideratu den eta behin betiko onartu den garapen-plangintza dira udalerrian indarrean dagoen hirigintza-esparru orokorra.

Abaltzisketako Udalak 2008ko maiatzean hasi zuen udalerriko hiri-plangintza berraztertze prozesua. Horretarako, 'Arau Subsidiarioak indarreko araudira egokitzeko, hiri-eremua handitzeko eta, azken finean, Abaltzisketako udalerriko Plan Orokorra egiteko' lanak esleitu zituen.

Proposatutako helburua da "*Abaltzisketako udalerria, Toloserriko eremu funtzionalaren barruan, udal-plangintza orokorreko beste tresna batez hornitzea, gaur egungo inguruabar sozialetara, ekonomikoetara, kulturaletara eta indarrean dagoen hirigintza-legeriara egokituko dena eta udalerriko hirigintza-problematikari erantzun egokia emango diona*".

Dokumentu hau da, hain zuzen ere, Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 'Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena'.

Hirigintza-dokumentua Pilar Amenabar Zabala arkitektoak idatzi du. Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena, berriz, Ekolur Asesoría Ambiental, SLL enpresako teknikari hauek idatzi dute: Tomás Aranburu nekazaritza-ingeniari teknikoak eta Eduardo Etxenike delineaatzaileak.



## I.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA

### I.1.- PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA IRISPIDEA

Abaltzisketako udalerrri osoa da Plan Orokorra eraginpean hartzen duen esparrua.

Esparruak 11,4 km<sup>2</sup> inguruko azalera hartzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako kartografian, NQ1 eta NQ3 orrietan (1:5.000 eskala) barne hartzen da (<http://b5m.gipuzkoa.net>).

Honako hauek dira hirigunearen eremu zentralaren UTM koordenatuak:

X	Y
572968	4766705

Dokumentu honetako *III. Ingurumen-arloko diagnostikoa, analisia eta balorazioa* kapituluaren bestalde, udalerriko ingurune fisikoaren, kulturalaren eta sozioekonomikoaren elementurik adierazgarrienak laburbiltzen dira. Izan ere, behar bezain zabal jaso ziren hirigintza-espeditenteko "*Analisia eta diagnostikoa*" dokumentuan.

Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 8-10 urteko horizonterako landu da.

### I.2.- PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Helburu nagusia da Abaltzisketako udalerrria, Toloserriko eremu funtzionalaren barruan, udal-plangintza orokorreko beste tresna batez hornitzea, gaur egungo inguruabar sozialetara, ekonomikoetara, kulturaletara eta indarrean dagoen hirigintza-legeriara egokituko dena eta udalerriko hirigintza-problematikari erantzun egokia emango diona.

Planak honako printzipio orokor hauei jarraituko die:

- Hiritarrak edo biztanleak aintzat hartzen dituen udalerrria lortzea –horien askotariko konplexutasunekin eta osagaiekin–, ikuspegi integratzailean oinarrituta eta bizi-kalitatea, oro har, bermatuta.
- Udalerriko bizi-kalitatea hobetzea, ondare urbanizatua eta eraikia birgaituz eta birkualifikatuz, udal-ekipamenduen sistema hobetuz, eta ingurune naturala balioz hornituz.
- Bertako biztanleriari eustea eta, hala badagokio, eskualdeko hiritarrak erakartzea. Horretarako, aurretik dagoen hirigunean integratutako bizitegi-lurzoruaren zuzkidura egokia eskainiko da.
- Udalerriko ekonomia-jarduerarekin lotzen diren aukerak optimizatzea eta hobetzea, landa-ingurunearekin lotzen diren jarduerak sustatuz, nagusi den bizitegi-erabilerekin bateragarriak diren hiri-jarduerak garatzeko aukera xedatuz, eta sektore turistikoa eta esparru naturalarekin eta kulturalarekin lotzen diren olgeta-jarduerak sustatuz.
- Udal-plangintza berria udalerrriaren eskala bikoitzean eta kokatzen deneko udalaz gaindiko testuinguruan integratzea.
- Udalaz gaindiko lurralde-ekintzetan koordinatzea eta elkarlanean jardutea, eskualdearen ingurunean sinbiosi eta sinergiarako aukerak bilatuz.



- Iraunkortasuna aintzat hartzea plana eta haren proposamenak formulatzeko oinarrizko printzipio gisa.

Printzipio global horiek Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "1.1. *Hirigintza-antolamendua eta hori gauzatzea justifikatzeko memoria*" dokumentuaren XI. Plan Orokorraren irizpide, helburu eta proposamen orokorrak kapituluan zehazten diren esku hartzeko irizpide, helburu, aukera eta proposamen orokorretan zehazten dira. Hortaz, irakurleak hartara jo dezake kontsultatu nahi izanez gero.

Irizpideak, helburuak eta proposamenak aurreko paragrafoan aipatutako dokumentuan zehaztutako alderdi hauen inguruan egituratzen dira:

- Etxebizitza (XII. kapitulua)
- Ekonomia-jarduerak (XIII. kapitulua)
- Espazio libreak (XIV. kapitulua)
- Ekipamendu komunitarioa (XV. kapitulua)
- Hiri-zerbitzuen azpiegiturak (XVII. kapitulua)
- Ingurune naturala (XVIII. kapitulua)
- Hirigintza-antolamenduarekin erlazionatutako beste alderdi material eta formal orokor batzuk (XIX. kapitulua)
- Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak (XX. kapitulua)
- Hirigintza-ondarea (XXI. kapitulua)
- Ingurumena (XXII. kapitulua)
- Hiri-ingurunea (XXIII. kapitulua)
- Hirigintza-sailkapena (XXIV. kapitulua)
- Hirigintza-antolamendua gauzatzea (XXV. kapitulua)

Helburu orokor horiek 11,4 km<sup>2</sup>-ko azalera eta 316 biztanleko populazioa<sup>1</sup> duen lurralde baterako proposatzen dira. Tolosaldea bezalako eskualde industrial baten barruan, udalerrria udalaz gaindiko ingurunean integratzearen aldeko hauta egin du planak. Horretarako, eskualde-mailan sortzen diren sinergietan hartuko du parte, baina landa-garapenaren ikuspegitik. Nolanahi ere, guztia biltzen duen lurraldearen eta paisaiaren olgeta eta atsedeneko izaera sustatzearekin lotzen diren hirugarren sektoreko jarduerak ere nabarmenduko dira. Era berean, paisaia-balio handiko ingurune horretan, bizitegi-eskaintza egokia garatzea proposatzen da.

Baldintza orografikoak direla kausa, Abaltzisketak hiri-garapenerako oso lurzoru gutxi du erabilgarri. Testuinguru horretan, aurretik dagoen hiri-kokalekuari jarraipen argia emango dion hiri-garapeneko eredia proposatzen da. Oraindik garatu ez diren bizitegi-kokaleku txikiak berriro definituko dira, eta udalerrian bizitegi-kokalekuaren alorrean gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren beharrei erantzungo dien bizitegi-kalifikazioko beste esparru bat proposatuko da.

### 1.2.1.- Ingurumen-helburuak

Planak ingurumen-izaerako hainbat irizpide eta helburu garatzen ditu, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "1.1. *Hirigintza-antolamendua eta hori gauzatzea justifikatzeko memoria*" dokumentuaren XI. Plan Orokorraren irizpide, helburu eta proposamen orokorrak kapituluan zehazten direnak. Horien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta bertan biltzen diren proposamenak garapen iraunkorraren printzipioen barruan formulatzea.
- Ingurune naturala eta hiritarra lurralde-unitate harmoniatsu eta orekatuan integratzea eta bateragarri egitea.

<sup>1</sup> Udal-eroldaren 2009ko urtarrilaren 1eko berrikuspena. Estatistikako Institutu Nazionala.



- Lurzorua, ura eta airea bezalako oinarrizko baliabideen kalitatea babestea, bitarteko urriak eta oso urrakorrek diren aldetik.
- Intereseko ondare historikoa, arkitektonikoa, arkeologikoa eta naturala babestea eta balioz hornitzea, eta arlo horretan beharrezkoak diren irizpideak eta jarraibideak arautzea.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako antolamendu-kategoriak aintzat hartuz, eta, horrela, landa-ingurunea zainduko dela bermatzea, ingurumenaren eta paisaiaren alorreko kalitate-baldintza egokietan eta ekosisteman duen zereginaren eta landa-ingurunearen garapen ekonomikoaren arteko oreka bilatuz.
- Gaur egungo hiri-bilbean oinarritzen diren eta dentsitate egokia eta askotariko erabilera dituen hiri-zona trinkoei eta aniztunei lehentasuna ematea, hiri-eremu barreiatu eta lausoko hiri-eredua –lurzoru, energia eta material ugari kontsumitzen duena– sustatzen duen etxebizitza isolatuko tipologiak saihestuz.
- Hutsik dauden etxebizitzak erabilera sustatzea. Gaur egungo hiri-ehunen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa sustatzea, hiri-ehuna birgaituz, berregituratuz edo berrituz, eta espazio marjinalak lehengoratzea.
- Gaur egungo hiri-bilbearen inguruan beste hiri-zona batzuk ezartzea, motorrik gabeko barne-mugikortasuna ahalbidetzeko eta bide-azpiegitura eta zerbitzu-azpiegitura berrien beharra murrizteko.
- Garapen berrien ingurumen-eragina murriztea, arrisku naturalen eta/edo teknologikoen mende dauden kokalekuak, intereseko habitat naturalak, paisaia-kalitate handiko zonak eta abar ahal den neurrian saihestuko dituzten kokalekuak eta antolamenduak aintzat hartuz.

### **I.3.- AINTZAT HARTUTAKO AUKERAK**

Udalerraren osotasunerako askotariko antolamendu-aukerak –hainbat esparrutakoak eta arlotakoak– aztertze, alderatzeko eta baloratzeko prozesuaren mende izan dira Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean bildutako proposamenak.

Hurrenez hurrengo izapidetze-faseetan hainbat aukera kontuan hartu dira honako gai hauen inguruan:

- Ingurune fisikoa, naturala eta landatarra.
- Hiri-ingurunea. Bizitegi-garapena.
- Mugikortasuna. Aparkaleku-zuzkidura.
- Espazio libreak eta ekipamenduak.

Aukera horiek udalbatzak eta interesdunek baloratu dituzte ireki diren jendaurreko hainbat prozesutan. Prozesu horietan iradokizunak eta alegazioak jaso dira, txosten honen 1.9. *Parte-hartze publikoa* atalean azaldu den moduan.

Gai horietan kontuan hartu diren aukerak, azkenean hautatu direnak barne, 'Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten' honetan dagokien kapituluaren (4. *Aukeren ingurumen-azterketa*) aztertu dira, eta bertan proposamenetako bakoitza iraunkortasunaren ikuspuntutik aztertu da.



#### I.4.- PROPOSATUTAKO JARDUN NAGUSIEN LABURPENA

Honakoak dira Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako onarpeneko dokumentuan egindako proposamenaren ondoriozko jardun nagusiak:

##### - Lurzoru urbanizaezinen zonifikazioa.

Udalerrian 1.133,71 ha-ko azalera mantentzen da lurzoru urbanizaezin gisa, hots, udalerraren azalaren % 99,59.

Landa-lurraldeari eta haren ahalmenei eta gaitasunei dagokienez egindako diagnostikoan oinarritutako lurzoru urbanizaezinen zonifikazio-proposamena hartzen du aintzat dokumentuak.

Lurzoru urbanizaezinean erabilera globaleko bost zona ezarri dira ('landa-zonak'), eta horietako bakoitzerako deskribapena, helburu orokorrak eta erabilera eta jardueren arautze espezifikoak finkatu dira, kategoria bakoitzaren ezaugarrien eta harrera-ahalmenaren arabera.

Landa-zonak	Azalera (ha)
D.1.1. Babes bereziko landa-zona - Aralar ingurunea	565,99
D.1.2. Babes bereziko landa-zona - Paisaiaren babesa	26,60
D.1.3. Babes bereziko landa-zona - Larraitzen babesa	40,62
D.2. Lur gaineko urak babesteko landa-zona	26,26
D.3. Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko landa-zona	468,88

Lurzoru urbanizaezinen zonifikazio horri Komunikazioen Sistema Orokorra (E.1. Bide-sistema orokorra) dagozkion 5,21 ha gehitu behar zaizkio, baita beste azalera txiki batzuk ere (G.1. Ekipamendu komunitarioko sistema orokorra eta H.1. Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorra).

Lurzoru urbanizaezineko esku-hartzeak arautzearekin zerikusia duten alderdien artean, proposamen hauek nabarmentzen dira:

- Oro har, Plan Orokorrean erabaki diren antolamendua eta erregimena, indarrean dagoen babes araudiaren ondorio izan da, hori baita gaur egun 'Aralar' parke naturalean aplikatu beharreko araudia. Era berean, aintzat hartu dira Natura 2000 Sare ekologikoan integratutako elementuak (GKL).
- Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren arabera udalaren hiri-plangintzaren erregimen arauemailea ('Landezabaleko zona') bete behar duten esparruak edo lur-eremuak, erabilera-erregimen orokorrari dagokionez, 'D.3. Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko landa-zona' globalarekin parekatuko dira.
- Erregimen espezifikoak ezarri da udalerrira iparraldetik hegoaldera egituratzen duen muinoan dauden hainbat esparru garairerentzat. Esparru horiek paisaia-urakortasun handikoak dira eta bertan murriztu egin dira paisaia-kalitatearen gaineko eragina ekar dezaketen erabilerak.
- EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin bat etorritik, lur gaineko urak babesteko kategoria bat sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak horri buruz ezartzen dituen zehaztapenak jasotzen dituena.



- Plan Orokorrak plan berezi bat formulatzera igortzen du 'D.1.3. Babes bereziko landa-zona - Larraitzen babesa' zonako eraikuntza- eta erabilera-erregimena. Plan berezi horrek Aralarko Parke Naturaleko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana bete beharko du parkeari dagokion esparruan. Plan berezi horrek dagokion Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura bete beharko du. Plan Orokorrak helburu hauek zehazten ditu zona horretarako: "*Ingurunean garatzen diren askotariko erabileren testuinguruan –landa-inguruneari lotutako nekazaritza-jarduerarekin erlazionatutakoa zein espazio libreak, ekipamendua eta ingurune naturalari lotutako hirugarren sektorekoa eta aisialdikoak, Txindokirako sarbidea eta jai- eta erlijio-erabilera– antolatu nahi da ingurunea; ingurune naturala eta landatarra babesteko beharrezko neurriak ezarri nahi dira; eta, era berean, eskaintzen dituen aukera paisajistikoak, aisialdikoak eta olgetakoak sustatu nahi dira. Zona global horren helburuak dira hirugarren sektoreko eta aisialdiko erabilerak espazio libreen edota ekipamenduen zuzkidura-erabilerekin uztartzea, eta landa inguruneari lotutako nekazaritza-jarduera ere garatzea. Eta ildo horretan, parke naturalerako sarbide izatearekin, hala nola bere landa izaerarekin, balio naturalak eta paisaia-kalitatea zaintzearekin bat datorren kalitateko eskaintza egingo da*".
- EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin bat etorritik, ez da baimentzen lurzoru urbanizaezinean bizitegi-erabilera autonomoetarako eraikuntza berriak ezartzea (Hirigintza-arau orokorren 66. artikulua).
- Lehentasuna emango zaio lehendik dauden eraikuntzak bizitegi-erabilerarako birgaitzeari, nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko zonako erabilera bereizgarrien edo onargarrien erabilera osagarri gisa.
- Ekonomia-jarduerari dagokienez, plangintza orokorrak landa-inguruneari lotutako ekonomia-jarduerak finkatzea, balioz hornitzea eta sustatzea hartzen du aintzat. Landa-jarduera tradizionalaz gain, landa-ingurunean zentzuz integratzen diren beste jarduera batzuk ere sustatzea proposatu da, hala nola aisialdiari, kultura-ondareari, edo ingurune naturaleko zein landa-ingurune turismolari lotutakoak. Dena den, Plan Orokorrean ez dira proposamenak edo jardunak zehazten; aitzitik, haien ezarpena arautzen da hirigintza-arau orokorren bidez.
- Hirigintza-arau orokorrek (67. artikulua) lurzoru urbanizaezinean baimentzeko modukotzat jo dituzte ekipamendu-erabilerak, hirugarren sektorekoak eta azpiegiturak, eta, hala badagokio, haiei lotutako eraikuntzak, aldezturik landa-ingurunean ezartzea beharrezkoa dela edo komeni dela justifikatzearen eta onura publikokotzat jotzearen baldintzapean. Nolanahi ere, arauak lehentasunez jotzen dute adierazitako erabilerak lehendik dauden eraikuntzetan ezartzea. Baimen hori aldezturik plan berezi bat lantzearen eta onartzearen baldintzapean eman ahal izango da. Plan berezi hori nahitaezkoa izango da bai eraikuntza eta instalazio berriak egitea eta bai komunikazio-azpiegitura eta hiri-zerbitzu berriak gauzatzeko eskatzen duten ezarpenen kasuetan.
- Plan Orokorra garatzeko lanetan, dagozkion Urbanizatzeko eta eraikitzeko udal-ordenantzak landu eta onartu beharko dira. Besteak beste, honako alderdi hauek arautuko dituzte (5. artikulua):
  - o Ingurumen-kalitatearen berme-bereizgarria duten urbanizazio-materialak erabiltzeko neurriak.
  - o Hiri-instalazio kolektiboak edo zentralak antolatzeko eta ezartzeko neurriak.
  - o Ingurumen-zarata kontrolatzeko neurriak.
  - o Energia-eraginkortasun handiko herriko argiak instalatzeko neurriak.
  - o Ur-kontsumoan aurrezteko neurriak.
  - o Urbanizazio-obra ingurumenaren ikuspegitik gauzatzeko modua arautzeko neurriak.
  - o Hiri-zerbitzuei lotutako azpiegiturak eta instalazioak gauzatzeko eta ezartzeko baldintzak.



- Zuhaitzak ezartzeko baldintzak.
  - Publizitate-elementuak ezartzeko baldintzak.
  - Eraikuntzaren (eko)eraginkortasuna arautzeko eta sustatzeko baldintzak.
  - Eraikingintzaren Kode Teknikoan energia-arloan aurreikusitako instalazioak ezartzeko hirigintza- eta estetika-baldintzak.
  - Hiri-zerbitzuen azpiegiturei lotutako instalazioak ezartzeko hirigintza- eta estetika-baldintzak.
- Ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal-ordenantzek (103.-105. artikulua) honako gai hauetan, besteak beste, esku hartzeko irizpideak zehaztuko dituzte:
- Obrek eraginpean hartutako lur-eremuen tratamendua.
  - Zabor eta hondakinen isurketa.
  - Hondakin-uren isurketa.
  - Hondakin-uren arazketa, lehendik dauden eta aurreikusten diren eraikuntzetan, lurzoru urbanizaezinean.
  - Abeltzaintzako instalazioak ezartzeko baldintzak.
  - Ibai-ibilguen eta haien ertzen tratamendua.
  - Proiektatutako jardunen paisaia-integrazioa.
  - Floraren, faunaren eta habitat-konektibitatearen babesa.
  - Poluituta egon daitezkeen lurzoruen tratamendua.

#### **- Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak.**

Plan Orokorra osatu egiten du lurzoru urbanizaezinaren hirigintza-antolamendua. Horretarako, hainbat elementu antolatzen dituzten zehaztapen batzuk ezartzen ditu, adierazitako antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak, alegia, haien babesteko, kontserbatzeko, lehengoratzeko, hobetzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, edo kasuan-kasuan aintzat hartzen den beste edozein helburutarako.

Baldintzatzaileak lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriei gainjartzen zaizkie, eta oso baliagarriak dira haien gainean jarduera jakin batzuk nola gara daitezkeen kotatzeko edo mugatzeko.

Hiri-plangintza berriak baldintzatzaile hauek ezartzen ditu:

- C.1. Interes naturalistikoko eremuak.
  - C.1.1. 'Aralar' Parke Naturala, 'Aralar' Garrantzi Komunitarioko Lekua (ES2120011), EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Gunea.
  - C.1.2. Desman piriniotarraren interes bereziko zona.
  - C.1.3. Korridore ekologikoen sarea: lotura-korridoreak, indargetze-eremuak, lotura-interes berezia duten ibai-tarteak.
  - C.1.4. Interes bereziko landaredia.
- C.2. Ahalmen agrologiko handiko lurzoruak.
  - C.2.1. Balio estrategiko handiko lurzoruak.
- C.3. Uraren 2000/60/EE Zuzentarauak babestutako zonak.
  - C.3.1. Lur gaineko ur-harguneak.
- C.4. Balizko arriskuak.



- C.4.1. Akuiferoen poluzioarekiko urrakortasun handia.
- C.4.2. Lurzorua polui dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten lurzorua.
- C.5. Onura publikoko mendia.
  - C.5.1. Egido onura publikoko mendia.
- C.6. Zonifikazio akustikoa. Eremu akustikoak.
  - C.6.1. Bizitoki-erabilerako lurraldeko sektoreak.
    - a. Eremu urbanizatuak.
    - b. Hiri-garapen berriak.
  - C.6.2. Garraio-azpiegituren sistema orokorren eraginpeko lurraldeko sektoreak.

Plan Orokorraren '5. Planoak' dokumentuko 'III.1. Baldintzatzaile gainjarriak' planoan grafikoki islatu da baldintzatzaile horien mugaketa.

### Hiri-ingurunea

3,40 ha-ko azalera sailkatu da hiri-lurzoru gisa (udalerrriaren azalaren % 0,30) eta 1,27 ha-koa lurzoru urbanizagarri gisa (% 0,11).

Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako 46.769 m<sup>2</sup>-etatik, % 77,53 bizitegi-erabilerara zuzendu da, % 10,01 bide-sistemara, % 7,20 hiri-espazio libreetara eta % 5,26 ekipamendu komunitariora.

Hirigintza-esparru bat mugatu da hiri-lurzoruan ('1. Herrigunea') eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuko esparru bat ('2. Etxesoro').

Bi lurralde-esparrutan bereizitako bizitegi-garapen globala proposatu da.

Batetik, '1. Herrigunea' esparruaren hirigune finkatua osatzea proiektatzen da. Horretarako, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan jasotzen diren eta gauzatu ez diren edo gaur egun gauzatzen ari diren aurreikuspenak baliozkotuko dira, eta, hortaz, sei etxebizitza berri eraikiko dira.

Bestalde, '2. Etxesoro' hirigintza-esparru berria mugatzen da, eta hirigune finkatuari jarraipen fisikoa emango dio. Hirigintza-esparru horretan gehienez 28 etxebizitza gauzatzea antolatuko da. Garapen txikiko eraikuntza-tipologiakoak izango dira (tamaina txikiko multzoak edo etxebizitza bakartuak), eta hirigunearen osotasunaren eraikuntza-eskalan eta hiri-eskalan integratuko dira. Aurreikusitako etxebizitza guztiak sustapen libreko erregimenari atxikiko zaizkio.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren indarraldiko horizontean (2020. urtean), udalerrian guztira 186 etxebizitza izango dira, gaur egun landa-ingurunean dauden etxebizitzak barne. Etxebizitza horietako 84 hirigunean kontzentratuko lirakeke.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ez du bidezkoztat jo hirigunean ekonomia-jardueretara zehazki zuzenduko den eremu bat kalifikatzea. Dena dela, bizitegiko hirigunearen barnean hartuko diren izaera horretako erabilerak ezartzearen komenigarritasuna hartu du aintzat, baldin eta ezarritako bizitegi-erabilerekin bateragarriak badira.

### Mugikortasuna

Mugikortasunari eta irisgarritasunari dagokionez, Plan Orokorraren dokumentuan jasotako proposamenen artean honako hauek nabarmen daitezke:





- Hirigunerako sarbideak hobetzea eta berrantolatzea, eta, horretarako, mendebaldeko bizitegi-multzoaren tokiko hiri-bideen eta GI-2133 eta GI-3670 foru-errepideen arteko gaur egungo elkargunea puntualki hegoalderantz eramatea.
- Errepideen foru-sarea erabiltzeko baldintzak optimizatzea hirigunea zeharkatzen duten tarteetan. Horretarako, behar bezala egingo dira bateragarri motor bidezko eta motorrik gabeko joan-etorriak, biak batera edo bereiz garatzeko baldintzetan.
- Lurralde naturaleko eta landatarreko eta lurralde horren eta hirigunearen arteko komunikazioko eta artikulazioko paisaia-ibilbide berezien sarea antolatzeko eta gauzatzeko jardunak. Komunikazio eta artikulazio hori batez ere oinezkoa eta motorrik gabekoa izango da. Jardun horiek proiektu hauetan hezurramitzen dira: Larraitz eta hirigunearen arteko oinezkoentzako bidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak sustatu eta gauzatu; Ibiurko urtegia eta Larraitz lotzen dituen bidezidorra; eta, gaur egun Ibiurko urtegitik hirigunera doan bidea hobetzea eta egokitzea. Azken bi proposamen horiek 'Ibiurko urtegitik ibilbideak egiteko eta paisaia lehengoratzeko proiektuaren' esparruan kokatzen dira. Urtegia gauzatzeko zuzenean eraginpean hartzen dituen udalek (Abaltzisketak, Baliarrainek, Gaintzak eta Orendainek) sustatu dute proiektua.
- Hiri-hutsuneetan eta bizitegi-garapen berrian espaloiak handitzea eta aurrekoei jarraipena ematea.
- 'Etxesoro' bizitegi-esparru berrian lur gaineko 29 aparkaleku-plaza publiko berri egokitzea eta egungo hirigunean dagoen aparkalekua berrantolatzea.

### **Espazio libreak eta ekipamenduak**

Dokumentuan hiri-espazio libreen zuzkidura gehitzea proposatzen da. Horretarako, hirigunearen ipar-mendebaldeko mazelan dagoen eta hirigunearekin muga egiten duen titulartasun publikoko 1.951 m<sup>2</sup>(l)-ko esparrua espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatzea proposatzen da. Horren ondorioz, espazio libreen sistemaren guztizko zuzkidura 3.370 m<sup>2</sup>(l)-koa izango litzateke eta, hortaz, emaitzako estandar globala biztanleko 7,01 m<sup>2</sup>-koa, indarreko plangintzan kontabilizatutako 2.070 m<sup>2</sup>(l) eta biztanleko 6,55 m<sup>2</sup> balioen aldean.

Ekipamendu komunitarioei dagokienez, dokumentuak gaur egun dagoen ekipamendu komunitarioko zuzkidura finkatzea proposatzen du, baita definitu gabeko erabilerako beste zuzkidura batekin gehitzea ere (731 m<sup>2</sup>(s); horietatik 451 m<sup>2</sup>(s) gauzatu daude jada), betiere aurretik dauden zuzkiduren inguruan (eliza, udaletxea, pilotalekua eta plaza). Hortaz, ekipamendu komunitarioko sistema orokorrera zuzendutako lurzoru-azalera 3.975 m<sup>2</sup>(l) izango litzateke. Azalera horretatik 2.460 m<sup>2</sup>(l) hiri-ingurunean daude.

### **I.5.- LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANAK ETA ARLOKO PLANAK AINTZAT HARTZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENAK**

Askotariko legezko xedapenetan biltzen diren gidalerro eta aurreikuspenen eta askotariko lerrun, izaera eta jatorriko dokumentu eta proiektuen testuinguru konplexuan landuko da Hiri Antolamenduko Plan Orokor hau.

Lurralde-antolamenduko planak eta arloko planak eta ingurumen-legeria aintzat hartzen dituzten Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztapenen artean honakoak eman daitezke aditzera:



- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako antolamendu-kategoriak aintzat hartuta.
- Hainbat babes-figuraren arabera ezarritako balio ekologiko bereziko eremuak barnean hartzea (parke naturala, Natura 2000 sarea, arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planak, korridore ekologikoen sarea, sare hidrografikoa, giza kontsumorako ur-harguneak).
- Hainbat ingurumen-arrisku dituzten eremuak aintzat hartzea (akuiferoen urrakortasuna, lurzoruak polui dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuak).
- Hirigintza Ondarearen Katalogoan katalogatutako hainbat ondasun higiezin eta elementu arkeologiko sartzeara.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako hazkundearen printzipioekin eta helburu demografiko eta sozioekonomikoekin bat datorren udal-garapenerako eredu definitzea, eta lehendik dauden garapenak kualitatiboki betetzeko eta berriz osatzeko prozesua bateragarri egitea etorkizuneko hedapenarekin, betiere gaur egun hiri-bilbean erabilgarri dauden lurzoruak okupatuz eta hiri-bilbearen ingurune mugakideetara hedatuz.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan biltzen diren irizpideen araberrako gehieneko bizitegi-dimentsionamenduaren kuantifikazioa kalkulatzeara.
- Landa-ingurunean askotariko ekipamenduak txertatzeko proposamena egitea, hala nola lurralderako sarrerako puntu berezietan azpiegitura bigunak finkatzea, Toloserriko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planaren Aurrerapenean egiten diren proposamenekin bat eginik.
- Garapen-ereduaren definizioan iraunkortasun-irizpideak txertatzea, 2011-2014ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan ezarritako helburu estrategikoekin eta konpromisoekin bat eginik honako arlo hauetan: uraren kalitatea; lurzoruaren poluzioaren prebentzioa eta zuzenketa; baliabide naturalen kontsumo arduratsua; dibertsitate ekologikoa mantentzea; eta mugikortasuna.

## **I.6.- INPAKTUAK SOR DITZAKETEN JARDUNAK IDENTIFIKATZEA**

Esparru jakin batzuetan lurzoruaren erabileraren sailkapena eta kalifikazioa aldatzearen ondoriozkoak dira Plan Orokorra berraztertzean proposatutako jardunen eraginez sortutako ingurumen-inpaktuak, edo indarrean dagoen arautzeari dagokionez hirigintza-araudian sor daitezkeen aldaketaren ondoriozkoak.

Espedientea izapidetzeko prozesuan kontuan izan diren aukeren artean hautatu direnak zehaztu dira dokumentuan. Bizitegi-garapenerako jardunak eta paisaia-ibilbideak antolatzeak definizio-maila handiarekin zehaztu dira. Dokumentu honen V. kapituluaren baloratuko da jardun horien ingurumen-inpaktua.

Proposamen bakoitzaren definizio-maila kontuan izanik, Planaren jardun hauek nabarmen daitezke balizko ingurumen-inpaktu adierazgarrienen jatorri gisa –inpaktu negatiboen zein positiboen jatorri gisa–:

- 1.- '2. Etxesoro' esparruko bizitegi-arloko hirigintza-garapenerako landa-lurzoruaren okupazioa.
- 2.- Lurzoru urbanizaezina:
  - Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa.
  - Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak arautzea.
  - Baldintzatzaile gainjarrien eraginpean dauden esparruen babes-erregimena.
- 3.- Paisaia-ibilbide berezien sarea gauzatzeara.

Jardun horiek hainbat ingurumen-elementuren gainean izan dezakete eragina, maila handiagoan edo txikiagoan, betiere proiektuen azken ezaugarrien arabera.



Dokumentu honetan, V. *Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa* kapituluan, lehentxeago aditzera emandako jardunek sor ditzaketen inpaktuen analisi zehatza egingo da.

### **I.7.- PLAN OROKORRA GAUZATZEKO FASEAK**

Plan Orokorrak 'AAI.1' jardun integratuko esparrua ezartzen du, '2. Etxesoro' esparruan eta '1.4. Bidegurutzea' azpiesparruan aurreikusitako jardunak biltzen dituena. Bertan, jardun-fase bakarra aurreikusi da, "*Urbanizatzeko Jardun Programatik ondorioztatzen denaren kalterik gabe (...)*".

'Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa. Jardun-programa' dokumentuak adierazten duenez, "*proiektatutako hiri-garapena gauzatzeko estrategiaren eta sekuentziaren ikuspegitik, hirigunean aurreikusitako bizitegi-garapenei berehala ekin beharko zaie, hori egin daitekeen neurrian behintzat, gai horretan antzemandako eskariari erantzuteko. Garapen horiek, zehazki, '2. Etxesoro' hirigintza-esparruan aurreikusi eta antolatutakoak dira. Aipatutako bizitegi-garapen horiei globalki egin beharko zaie aurre, haiei lotutako arloko beharrezko jardunekin batera, bai bide-sistemaren, bai espazio librean zuzkiduren eta bai zerbitzu-azpiegituren kasuan. Gai horretan, aipatzekoak dira 'AAI.1' jardun integratuko esparruan aurreikusitako jardunak, eta, horien artean, '1.4. Bidegurutzea' azpiesparruan aurreikusi eta antolatutako bide-sistema.*

*Bestalde, Administrazio Publikoak sustatu eta gauzatu beharreko zuzkidura publikoak gauzatzeko aurreikuspenak daude. Horiek gauzatzeko ere hiri-ingurunerako aurreikusitako garapenen multzoan integratzeko eta koordinatzeko jarraibideak bete beharko dira, nahiz eta dagozkien finantzaketa-aurreikuspenen eta -aukeren baldintzapean egongo diren. Gai horretan, aipatzekoak dira '1. Herrigunea' hirigintza-esparruan kokatutako '1.2. Udaletxeatze' hirigintza-azpiesparruan aurreikusitako jardunak."*

### **I.8.- HAUTEMANDAKO INFORMAZIO HUTSUNEAK**

Ez da informazio-hutsunerik hauteman dokumentuan.

Espedientearen hurrenez hurrengo faseetan eta, gero, proiektua jendaurrean jarri den bakoitzean hainbat aukera edo hautabide baloratu ondoren, udalerrri osorako antolamendu-proposamenak bildu eta zehaztu ditu dokumentuak.

### **I.9.- PARTE HARTZE PUBLIKOA**

'Plangintzaren irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak' (Aurrerapena) dokumentua idatzi aurretik 'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentua landu zen (2008ko irailean) eta udalari aurkeztu zitzaion. Aztergai jarri zen, eta iradokizun eta ondorio zehatzagoak eta errealak lortu ziren. Iradokizun eta ondorio horien arabera ñabartu, aldatu edo finkatu ziren dokumentu hau lantzeko irizpideak.

Bestalde, ingurumen-konsulten prozesua zabaldu zen, indarreko legerian ezarritako prozedurari jarraituz (183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena; 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa).

Abaltzisketako Udalak 2008ko ekainaren 6an jakinarazi zion organo eskudunari –kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuari– Hiri Antolamenduko Plan



Orokorra idazteko prozesuari ekiteko asmoa zuela, eta legerian aurreikusten den aurretiazko kontsulta egin zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak 2008ko abuztuaren 29an formulatu zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluaziorako 'erreferentziako dokumentua'. Bertan definitu zuen, hain zuzen, 'Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten' honetan jaso behar den informazioa zenbateraino hedatu eta zehaztu behar den.

Prozesu horren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak hainbat administrazio eta erakunde identifikatu eta kontsultatu zituen. Erreferentziako dokumentua jaulkitzeko epean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzaren erantzunak jaso ziren. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren erantzunak jaso ziren.

Abaltzisketako Udaltzarak, 2009ko ekainaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen izapideak egiteko onartzea eta jendaurrean jartzea Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren Aurrerapena. Horretarako bi hilabeteko erakustaldia ireki zuen, iradokizunak eta aukerak aurkeztu ahal izateko. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 128. alean, 2009ko uztailaren 10ekoan.

Erakustaldi horretan zehar, iradokizun eta aukeren 4 idazki aurkeztu zituzten. Horietariko bi aparkaleku publikoaren proposamenari buruzkoak ziren, beste bat bizitegi-garapen berrirako sarbidearen proposamenari buruzkoa, eta laugarrenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen zuzendari nagusiari igorritakoak, kultura-ondasun jakin batzuk eta interes etnografikoko zenbait elementu udal-mailan edo tokikoan babestea iradokitzen zuen. Iradokizun horiek Plana idatzi zuen taldeak eta Abaltzisketako Udaleko kideek aztertu zituzten, eta, gero, zegokien 'Iradokizun eta aukeren txostena' landu zuten, 2010eko martxoko datarekin, haiei erantzuteko.

Gero, 2010eko maiatzaren 3an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak 'Ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena (IIAT)' jaulki zuen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena eman aurretik, Abaltzisketako Udalak hala eskatu baitzuen 2010eko urtarrilaren 18an.

Udaltzarak, 2010eko uztailaren, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriari zegozkion plangintzaren irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak onartzeko erabakia hartu zuen.

Adostutako irizpide eta helburu horiek osatu zuten, udaltzarak geroztik iradokitako gidalerroekin batera, Plan Orokorraren proposamenak eta dokumentua lantzeko erreferentzia (2010eko uztaila). Fase horri zegokion 'Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenak' kontuan hartu zituen Ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostenaren zehaztapenak eta arestian adierazitako arloko txostenetan emandako informazioa.

Udalak, 2010eko irailaren 9an egindako osoko bilkuran, Plan Orokorrari hasierako onarpena eman zion eta jendaurreko erakustaldia irekitzeko erabakia hartu zuen. Erabaki hori 2010eko irailaren 27ko 185 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2010eko irailaren 24ko prentsan (Diario Vasco egunkarian) eman zen argitara. Jendaurreko erakustaldi horretan 5 alegazio-idazki aurkeztu zituzten guztira.

2011ko martxoan alegazioen txostena aurkeztu zuten; udalak txostena baloratu eta hari buruzko ebazpena eman zuen. Udaltzarak, 2011ko apirilean, aurkeztutako alegazioen gaineko ebazpena eman zuen. Ondoren, 2011ko maiatzean, 'Dokumentu osagarria' landu zen.



Hasieran onartutako dokumentuan eta dokumentu osagarri horretan oinarrituta, udalbatzak Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriari behin-behineko onarpena eman zion 2011ko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez.

2011ko ekaineko udal-hauteskundeen ondoren, udalbatza berriak gogoeta-prozesua egin zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukiei buruz, eta berraztertu egin zituen haren alderdi batzuk; zehazki, aparkaleku publikora zuzendutako '3. Kilimategi' hirigintza-esparruan aurreikusitako antolamendua eta arautzea ezabatzea erabaki zuen. Udalbatzaren 2012ko urtarrilaren 24ko erabakiaren bidez onartu zen aldaketa hori.

Erabaki horretan oinarrituta, '2. dokumentu osagarria' landu zuten 2012ko otsailean. Udalbatzak 2012ko martxoaren 13an egindako bilkuran eman zion hasierako onarpena. Hasierako onarpen horren ondoren, jendaurreko beste erakustaldi bat ireki zen (erabakia 2012ko martxoaren 27ko 60 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara). Erakustaldi horretan ez zuten alegaziorik aurkeztu.

2012ko ekainaren 12an udalak behin-behineko onarpena eman zion 2. dokumentu osagarri horri.

Dokumentu hori Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri zion udalak. Batzordeak aldeko txostena eman zuen, baldintza batzuk jarrita, 2012ko urriaren 11n egindako bilkuran. Era berean, 2012ko azaroaren 26an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako foru-diputatuak zegokion ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena egin zuen. Txostena edukiaren aldekoa zen, baina zenbait baldintzarekin. 2012ko azaroaren 26an, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Azpiegituretako zuzendari nagusiak Plan Orokorraren aldeko aginduzko txostena egin zuen.

Adierazitako dokumentu, izapide, txosten eta erabaki horietan oinarrituta, Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren testu bategina landu da, Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren behin betiko onarpenaren ondorioetarako.



## **II.- PLANAREN ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEN ARTEKO ELKARREKINTZAREN ANALISIA**

Kapitulu honetan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra antolatutako alderdietan edo aztertutako esparruan eragina duten planak eta programak identifikatu nahi dira, uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinaren 2. puntuaren ezartzen den bezalaxe.

Hirigintza-espeditentearen parte den 'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuan udalaz gaindiko irispidea duten lurralde-plangintzako edo arloko plangintzako zehaztapenen deskribapen oparoa egin da (*VII. Udalaz gaindiko irispidea duen plangintza kapitulua*), baita aplikatzekoa den legeriarena ere, ingurumen-legeriarena barne (*VIII.1. Aplikatzekoa den legeria epigrafea*).

Ondoren, dokumentu honetan aintzat hartzen diren planetan ezarritako gidalerro eta irizpide nagusiak laburbiltzen dira, eta aurretik aintzat hartu ez diren beste plan batzuetako zehaztapenekin osatzen dira, edo '*Analisisa eta diagnostikoa*' dokumentuan adierazitakoaren arabera zehaztapen horiek zabaltzen dituzten beste zehaztapen batzuekin.

### **II.1.- LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK**

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. Artezpide horiek dira gainerako dokumentuak dokumentatzeko eta idazteko erreferentzia-esparrua.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 20. kapituluan eremu funtzionalak mugatzen dira. Eremu funtzionalak dira Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunerako jarritako orientabide orokorrak bideratuko dituzten planak garatzeko lurralde-eskala egokiak. Abaltzisketako udalerria Toloserriko eremu funtzionalaren barruan sartzen da.

Zehaztapen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek honako proposamenak adierazten dituzte Abaltzisketako udalerriaren kasu zehatzerako:

- Ingurune fisikoaren antolamendua: Aralarko Parke Naturalari dagokion babes bereziko esparrua mugatzen du.
- Kokalekuen sistema eta lurralde-eredua: bigarren etxebizitzako gune bat garatzeko lurralde gisa eta, Parke Naturalaren ingurunean, 'lurralderako sarreragune' gisa proposatzen du Abaltzisketa.

### **II.2.- TOLOSERRIKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA**

Toloserriko Lurraldearen Zatiko Plana hasierako fasean dago gaur egun. 2005. urtean aurrerapen-dokumentua aurkeztu zen eta gaur arte ez da aurrera egin izapideetan.

Lurraldearen Zatiko Planak 'landa-esparruko gune' gisa zehazten diren udalerrien artean sartzen du Abaltzisketa. Aditzera ematen duenez, mota horretako udalerriek biztanleriaren banaketa orekatuagoa sustatzen duen lurralde-estrategian hartuko dute parte. Izan ere, eremu urbanizatuagoekiko bizitegi-eskaintza ordezkoa egingo da, dentsitate txikiko eta gaur egungo azpiegitura- eta zuzkidura-mailetarako eta biztanleria-tamainarako intentsitate egokiko hazkundera.

Lurralde-planak ekipamendu-eragiketak ('lurralderako sarreraguneetako ekipamendu bereziak') proposatzen ditu Abaltzisketarako –beste landagune batzuetarako bezalaxe–, betiere lurralde-balioekin lotzen diren kultura, ingurumen eta aisialdiko jarduerak gauzatzeko gune diren aldetik.



## II.3.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK

### II.3.1.- EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Lurraldearen Arloko Plan honetan biltzen den araudiak berariazko atzerapena ezartzen du urbanizaziorako eta eraikuntzarako, betiere ingurumenaren eta hirigintzaren arloko osagaien arabera definitutako kategoriak kontuan izanik eta arro isurleak definitzen duen ibai-tartearen kategoria aintzat hartuta.

Abaltzisketako udalerrria zeharkatzen duen Urtsu erreken burutzako eta Ibiur erreko arro isurleetarako definitutako tarteak `0´ kategoriakoak dira, hau da, 1-10 km<sup>2</sup>-ko arro isurleari dagokiona. Horrez gain, duela gutxi betetze-fasea amaitu duen Ibiurko urtegia ere jasotzen du. Lurraldearen Arloko Planak `00´ mailan kokatzen ditu udalerriko sare hidrografikoko gainerako elementuak, hau da, 1 km<sup>2</sup> baino arro isurle txikiagoari dagokion mailan.

Hirigintza-osagaiaren arabera, Lurraldearen Arloko Planak bi erreken eta urtegiaren ertzak sartzten ditu 'landa-esparruko ertzen' kategoriaren barruan.


Ingurumen-osagaiaren arabera, berriz, Lurraldearen Arloko Planak Ibiur erreken hainbat tarte sartzten ditu 'ondo kontserbatutako landaredia duten ertzen' kategorian, eta Urtsu erreken burutzako tarteak oso-osorik sartzten ditu 'lehentasuneko interes naturalistikoa duten zonetako ertzen' barruan.

Hauek dira Lurraldearen Arloko Planean ezartzen diren atzerapenak ertzen hirigintza-osagaiaren arabera:

Landa-esparruko ertzetan, ibilgu publikoaren mugaren lerrotik, gutxieneko atzerapen hauek aplikatuko dira:

- 15 m Ibiur erreken ertzetan eta Urtsu erreken burutzako ertzetan (0 mailako tarteak).
- 50 m Ibiurko urtegian.
- 1 km<sup>2</sup> baino arro isurle txikiagoko isurketetan edo ur-ibilguetan (00 mailako tarteak) Uraren Legean ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

Lurraldearen Arloko Planaren *F.1. Landa-esparruko ertzetarako berariazko araudia* atalean, berriz, ezarritako atzerapenei buruzko zehaztapenak hartzen dira barnean, baita lehentasuneko interes naturalistikoko zonetako ertzei edo ondo kontserbatutako landaredia duten ertzei buruzko zehaztapenak ere.



ERTZEN ZONAKAPENA, INGURUGIRO ALDEAREN ARABERA	ZONIFICACION DE MARGENES EN FUNCION DE LA COMPONENTE MEDIOAMBIENTAL
LEHENTASUNEKO INTERES NATURALISTIKOKO GUNEEN ERTZAK	MARGENES EN ZONAS DE INTERES NATURALISTICO PREFERENTE
PARKE NATURALAK, BIOTOPO BABESTUAK ETA PLAN BEREZIAK	PARQUES NATURALES, BIOTOPOS PROTEGIDOS Y PLANES ESPECIALES
"NATURA 2000" EUROPAKO SARE EKOLOGIKOA	RED ECOLOGICA EUROPEA "NATURA 2000"
INTERES NATURALISTIKOKO GUNEAK	AREAS DE INTERES NATURALISTICO
LANDARETZA EGOERA ONEAN DUTEN ERTZAK	MARGENES CON VEGETACION BIEN CONSERVADA
HIGADURA, LERRADURA EDOTA AKUFEROEN ZAURGARRITASUN ARRISKUA DUTEN EREMUEEN ERTZAK	MARGENES EN ZONAS CON RIESGO DE EROSION, DESLIZAMIENTO Y/O VULNERABILIDAD DE ACUIFEROS
HIGADURA ETA LERRADURA ARRISKUA DUTEN EREMUIAK	ZONAS CON RIESGO DE EROSION Y/O DESLIZAMIENTOS
AKUFEROEN ZAURGARRITASUN MAILA ALTUA EDO OSO ALTUA DUTEN EREMUIAK	ZONAS DE VULNERABILIDAD DE ACUIFEROS MUY ALTA O ALTA
BIRJASO BEHARREKO ERTZAK	MARGENES CON NECESIDAD DE RECUPERACION

1. irudia: Ingurumen osagaiaren araberako ibaien ertzen zonifikazioa  
Iturria: EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra).

### II.3.2.- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Lurraldearen Arloko Plan honek ez du berariazko jardun-proposamen estrategikorik aintzat hartzen Abaltzisketako udalerrian; izatez, udalerrria 'garapen txikiko udalerrien' artean barne hartzen du. Merkataritza-ekipamenduen kokalekuari dagokionez, Lurraldearen Arloko Planak 'C' kategorian sartzen du Abaltzisketa, eta kategoria horietako udalerrietan erabilera horretarako azalera txikiak ezartzeko aukera ematen du. Honako zehaztapenak finkatzen ditu:

- Plataforma berdinduaren gehieneko azalera garbia: 15.000 m<sup>2</sup>
- Sabai eraikiko gehieneko azalera: 5.000 m<sup>2</sup>





### II.3.3.- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren helburu orokorrak hauek dira: *"batetik, Gipuzkoako hiri-hondakinen etorkizuneko kudeaketa lortzeko beharrezko azpiegituren kokalekuaren aurreikuspena jasotzea, betiere arauzko esparruan barne hartzen diren Europako, Estatuako eta Autonomia Erkidegoko prestakuntza-dokumentuetan ezarritako iraunkortasun-irizpideei jarraituz; eta, bestetik, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean eta haren eboluzio-dokumentuan finkatutako helburuei erantzutea"*.

Behin betiko onartutako Lurraldearen Arloko Plan horrek ez du hiri-hondakinen azpiegiturarik proposatzen Abaltzisketako udalerrian.

### II.3.4.- EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Lurraldearen Arloko Plan honen behin-behineko onarpeneko dokumentuak<sup>2</sup> honako antolamendu-kategoria hauek finkatu ditu Abaltzisketako lurzoru urbanizaezinerako:

- **Mendia:** mendia gainkategoriatan barruan, udalerrian 'Basoa' deritzan kategoria baino ez da agertzen. Kategoria horren barruan sartzen dira estalki zuhaitzua mantentzeko joera duten lur-eremuak, bertako basoena zein kanpoko espezieen baso-berritzeena. Udalerriarren iparraldeko erdiaren lurzoruen zati bat sartzen da kategoria horretan, % 30etik gorako malda dutenak, oro har.
- **Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala:** kategoria honetan askotariko ahalmen agrologikoa duten lurzoruak biltzen dira. Udalerriarren erdialdeko muinoan kokatzen diren hainbat enklabe sartzen dira 'Balio estrategiko handia' azpikategorian. Zona horiek nekazaritza-sektorerako ikuspegi estrategikotik hartzen ditu aintzat, eta lehenetsuneko zatia jo da beste erabilera batzuen aurrean horiek mantentzea eta zaintzea.

Bestalde, malda handirik ez duten eta kota garaiagoetan kokatzen diren lur-eremuak 'Trantsizioko landa-paisaia' azpikategorian taldekatu dira gehienbat. Azpikategoria horretan produkzio-ahalmen txikiaren zonak edo larrez eta baso-masa txikiez estalitako landazabaleko eremuak sartzen dira. Zona horietan nekazaritza-azalera erabilgarriari eta lurzoruen ahalmen agrologikoari eutsiko zaio.

Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAParen antolamendu-kategoriak. Abaltzisketako udalerria		
Kategoriak eta azpikategoriak	Azalera (ha)	Abaltzisketako udalerriko azalaren %
Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala - Balio estrategiko handiko lurzoruen azpikategoria	24,99	% 2,2
Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala - Trantsizioko landa-paisaiako lurzoruen azpikategoria	289,99	% 25,62
Basoa	203,83	% 18,01


  

Baldintzatzaile gainjarriak	Azalera (ha)	Abaltzisketako udalerriko azalaren %
Akuiferoen poluzioarekiko eremu urrakorrak	17,55	% 1,55

<sup>2</sup> Agindua, 2010eko azaroaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin-behinean onartzen duena.



Gutxi gorabeherako azalera dira, Lurraldearen Arloko Planak kategorizazioa kartografiatzeko erabili duen eskalaren emaitzak. Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onarpeneko dokumentuak berak adierazten duenez, udal-plangintza egokitzeari dagokionez, *“Udal-plangintzak jasotako lurzoru urbanizaezinaren zoniifikazioak oinarritzat hartuko ditu EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak aurreikusitako terminoetan proposatutako antolamendu-kategoriak, betiere, hala badagokio, mugaketa udal-errealitatera eta -eskalara egokituta”*.



2. irudia: Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak.  
Iturria: EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

### II.3.5.- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onarpeneko dokumentuak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarea (BBOS) sortzea proposatzen du; gaur egun zati batean gauzatuta dago. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarearen helburu nagusia da hiri-izaerako eta hiriarteko eguneroko joan-etorrietan bizikletaren erabilera integratzea eta, horrela, motorrik gabeko mugikortasuna indartzea eta sendotzea. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarea izaera egituratzailea du, lurralde historikoko eskualde eta eremu funtzional guztiak zeharkatzen eta lotzen baititu. Guztira 439 km-ko luzera du eta bederatzi ardatz nagusi ditu.



Lurraldearen Arloko Planak ez du udalerria zeharkatuko duen ibilbiderik aintzat hartu. Hurbilen dagoen ibilbidea Donostia eta Beasain arteko 3. ibilbidea da. Ibilbide hori Oria ibaiaren haranean zehar bideratzen da, eta hurbil dagoen Alegiako udalerria zeharkatzen du.

### II.3.6.- Euskal Kultura Ondarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Aurrerapeneko fasean, eta udalerrri bakoitzerako zehaztapenak definitu gabe, dokumentuaren oinarritzko helburua da kultura-ondareko elementuak identifikatzea edo hautatzea, ondasun horiekin pareka daitezkeen hirigintza-kategoriak definitzea, eta babes-irizpideak definitzea. Era berean, lehentasun-ordena ezartzeko eta babesteko programazioan du eragina.

### II.4.- PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

'*Analisisa eta diagnostikoa*' dokumentuan zehazten dira udalerrian eragina duten eta, horrenbestez, Plan Orokorra lantzean aintzat hartu diren proiektu estrategikoak:

- Tolosaldeko eskualdea urez hornitzeko proiektua. 1. fasea: Ibiurko urtegia. Gauzatua.
- Abaltzisketako saneamenduaren proiektu eguneratua. Gauzatua.
- Larraitz eta Abaltzisketa arteko oinezkoentzako bidearen proiektua. Gauzatua.
- Ibiurko urtegiako ibilbideak egiteko eta paisaia lehengoratzeko proiektua.

### II.5.- GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020)

2002. urtean onartu ziren Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006). Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan 2020ra arte bete beharreko 5 ingurumen-helmuga finkatu ditu Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.
4. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

4. helmuga da hiri-plangintzarekin loturarik handiena duena. Helmuga horren barruan honako helburu hauek planteatu dira:

**1. helburua: lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea.** Helburu hori alderdi hauetan zehazten da, besteak beste: finkatutako hiria berritu eta birgaitu dadin sustatzea; hiri-eremuen bizikaltate eta diseinu erakargarria hobe dadin sustatzea; eta hiri-plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetan eta iraunkortasun-irizpideetan integra dadin sustatzea.

**2. helburua: askotariko erabilera eta jardueretarako (bizitegia, ekonomia-jarduerak eta aisialdia) garapen iraunkorra ahalbidetuko duen irisgarritasuna lortzea.** Mugikortasuneko beharrak murriztu egin dira, eta, horrela, motor bidezko mugikortasun-eskaria gehitzea ekarriko duten hirigintza-jarduerak eta -erabilerak saihestu ahal izango dira.

**3. helburua: garapen ekonomikoa eta motor bidezko garraiobideen gehikuntza orokorra bereiztea.** Ingurumen-inpaktu txikiagoko garraiobideak sustatzea eta motorrik gabeko garraiobideak eta motordunak parekatzea lortu nahi da.

2007. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Bigarren Esparru Programa onartu zen (2007-2010): "Etokizuna diseinatzen". Ingurumeneko Bigarren Esparru Programa horrek bi helburu estrategiko ezarri ditu 4. helmugan:



- 8. helburu estrategikoa: mugikortasuna kudeatzeko eredu berrirantz.
- 9. helburu estrategikoa: lurraldearen erabilera orekatua lortzea.

Beste alderdi batzuen artean, Abaltzisketako Plan Orokorra bat dator helburu estrategiko horietan planteatutako jardun-ildoetako batzuekin. Ildo horretan, Planaren alderdi hauek nabarmen daitezke:

- Lurzoruaren kontsumoa mugatzea, gune finkatua osatzeko jardunen bitartez.
- Lehendik dagoen gunean oinarritutako hiri-garapenaren aldeko hautua egitea, eta, hortaz, lurzoruaren kontsumoa murrizteko beharraren eta udalerrriaren ezaugarrien arabera definizio bolumentrikoaren arteko oreka bilatuko duten eraikigarritasunak ezartzea –ikus- inpaktu adierazgarriak saihestuz–.
- Udalerrian dauden interes naturalistikoko eremuak babestea eta balioz hornitzea.
- Udalerriko zenbait esparrutan eta horien arteko loturan planteatzen diren oinezkoentzako ibilbideak aintzat hartzea.

## **II.6.- INGURUMEN LEGERIA**

Ondoren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berraztertzean kontuan izan den ingurumen-legeria emango da aditzera.

### **II.6.1.- Ura**

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartua (103 zk. BOE), eta maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuak aldatua.
- Uren Legea, 2006ko ekainaren 23koa.

### **II.6.2.- Ingurumen-zarata**

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
- 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, 37/2003 Legea garatzen duena ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez.
- 1567/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, 37/2003 Legea garatzen duena zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez.

### **II.6.3.- Lurzoruaren poluzioa**

- 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzekoa eta kutsatutakoa garbitzekoa.

### **II.6.4.- Biodibertsitatea**

- 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena. Lege horren garapeneko xedapenen artean daude arriskuan dauden espezieak eta espazio natural babestuen sarea integratzen diren elementuak kudeatzeko planen xedapen erregulatuak.
- 1/2010 Legea, martxoaren 11koa, 16/1994 Legea aldatzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzkoa.
- 92/43/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafiora kontserbatzeko buruzkoa.
- Europako Batzordearen Erabakia, 2004ko abenduaren 7koa, eskualde biogeografiko atlantikoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda onartu zuena, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera.



- 168/1994 Dekretua, Aralarko Parke Naturala deklaratzeko duena.
- 169/1994 Dekretua, Aralarko baliabide naturalak antolatzeko plana onartzen duena, eta 146/2004 Dekretua, baliabide naturalak antolatzeko plan hori aldatzen duena.
- 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, desman piriniotarra kudeatzeko plana onartzen duena.

#### **II.6.5.- Mendiak**

- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 7/2006 Foru Araua, Gipuzkoako mendiei buruzkoa.

#### **II.6.6.- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa**

- 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzkoa.
- 6/2010 Legea, martxoaren 24koa, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren Testu Bategina aldatzen duena.

### **II.7.- AZTERTUTAKO ESPARRUAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN BESTE PLAN BATZUK**

Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzean honako plan hauen zehaztapenak ere hartu dira kontuan:

- Arriskuan dauden Flora eta Fauna Espezieen Euskadiko Zerrenda.
- Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoaren proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen prebentziorako plan integrala eta berau berraztertzen duten ondorengo azterlanak.
- Abaltzisketako Agenda 21aren diagnostikoa eta ekintza-plana.



### **III.- PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA**

Hirigintza-espeditente honen parte den '*Analisia eta Diagnostikoa*' dokumentuak Abaltzisketako udalerraren ingurune fisikoaren eta sozialaren eta bertako biztanleen azterketa xehatua jasotzen du.

Kapitulu honetan, beraz, laburbilduta jasoko dira udalerriko ingurune fisikoaren eta sozialaren alderdirik adierazgarrienak, eta irakurleak arlo horretako informazio gehiago nahi badu dokumentu horretara jo beharko du. Edonola ere, komenigarria jo den kasuetan, zabaldu egin da aurretiazko informazioa.

#### **III.1.- JARDUN ESPARRUA**

Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eraginpean dagoen esparrua bat dator udalerriko azalerarekin. Dena den, udalerria hedadura handiagoko eskualde- eta lurralde-ingurune batean integratuta dagoenez eta plangintza orokor berria esparru horretan landu denez gero, adierazitako lurralde-testuinguruan eragina duten lurraldea antolatzeke eta/edo ingurumena babesteko tresnetan ezarritako zehaztapenak ere aintzat hartu dira.

#### **III.2.- KOKALEKUA**

Abaltzisketako udalerria Aralarko mendilerroaren inguruan dago, mendilerroaren iparraldean, Tolosaldeko eskualdearen barruan. Honako udalerrri hauekin egiten du muga: Iparraldean, Orendainekin; Mendebaldean, Gaintza eta Zaldibiarekin; Ekialdean, Amezketaekin; eta Hegoaldean, Enirio-Aralar Mankomunitatearekin.


Abaltzisketa Toloserriko eremu funtzionalaren barruan sartzen da, eta eremu funtzional horretan 28 udalerrri daude. Udalerrriak 11,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du, hau da, eremu funtzionalaren % 3,3 hartzen du. Udalerrriak 27,1 bizt./km<sup>2</sup>-ko batez besteko dentsitatea du.

#### **III.3.- OROGRAFIA ETA MALDAK**

Abaltzisketako udalerria Aralarko mendilerroaren magalean dago, Ibiur eta Amezketa ibaien haranen artean, biak Ori ibaiaren ibai-adarrak. Hirigunea bi haranak bereizten dituen muinoaren gainean dago kokatuta, 370 metroko kotan. Udalerrriaren kotarik baxuena, 161 metro ingurukoa, Ibiur ibaiari dagokio, urtegiaren aldean, udalerrriaren ipar-mendebaldeko muturrean. Larrunarroko (Txindokiko) gailurra da udalerriko punturik garaiena, 1.342 metroko altuerarekin.

Lur-eremu gorabeheratsua da, erliebe nabarmenekoa, batez ere udalerrriaren hegoaldean. Aralarko inguruetatik udalerriko iparraldeko muturreraino hedatzen den –eta udalerria egituratzen duen– muino estua eta bi haranetara hedatzen diren lur-eremu txikiak izan ezik, udalerriko lurraldea % 20 eta % 50 arteko malda duten mazelez osatuta dago; nolana ere, udalerrriaren ipar-ekialdeko muturrean malda handiagoko mazelak ere badaude. Dena den, maldarik handienak, % 50 eta % 100 artekoak –baita % 100etik gorakoak ere– eta kotarik garaienak udalerriko hegoaldeko muturrean daude, Aralarko inguruetan.

Hurrengo irudian identifikatu dira udalerrian dauden maldak, hainbat lerrunetan sailkatuta.



Malda. Lerrunak	
Green	% 0 - % 5
Light Green	% 5 - % 10
Yellow	% 10 - % 20
Orange	% 20 - % 30
Dark Orange	% 30 - % 50
Red	% 50 - % 100
Red	> % 100

3. irudia: Maldak. Iturria: LIDAR hegaldia (GFA). EKOLURek landua.

### III.4.- EZAUGARRI GEOLOGIKOAK

Udallerriaren zatirik handiena, hirigunea eta Larraitz auzoa barne, tuparri gris gainean kokatzen da. Udallerriaren hegoaldean, Aralar mendilerroaren inguruetan, litologia aniztu egiten da, eta batez ere kareharriak, kareharri tupatsuak, tuparriak eta kalkarenitak ageri dira.


Abaltzisketako udalerrian interes geologikoko bi eremu daude: Txindoki mendia eta Ataungo domoa.

- Txindoki mendia Abaltzisketaren hegoaldean dago, Aralarko mendilerroan. Goi-kretazeoko arrezife-kareharriz eratutako gailur bat da, eta, errazago higitzen diren material bigunez inguratuta dagoenez gero, oso bakanduta geratu da haren ingurunean eta oso erliebe bereizgarria sortu du. Eskualde-mailako interesa duen eremua da, balio estratigrafikoa, paleontologikoa eta geomorfologikoa du, eta interes zientifikoa, didaktikoa eta dibulгатiboa du.
- Ataungo domoa aurrekoaren mendebaldean dago, Abaltzisketako udallerriaren zati bat hartzen du, eta Ataungo udalerrirantz hedatzen da. Morfologia malkartsu handia osatzen



duen kareharri urgoniarreko gailurren lerrokadurez osatuta dago. Balio estratigrafiko, tektoniko, geomorfologiko eta hidrogeologikoko eta interes zientifiko, didaktiko eta dibulgatiboko eremua da.

Interes geologikoko bi eremuak erantsitako irudian adierazi dira, eta 'Aralar' espazio natural babestuaeren parte dira.



Formazio litologikoak	
	Kareharriak
	Kareharri tupatsuen eta kareharrien alternantzia
	Tuparriak
	Detritiko alternatzaileak

Interes geologikoko zonak	
	Iragazkortasun handiko zonak
- -	Interes geologikoko eremuak

4. irudia: Formazio litologikoak eta interes geologikoko eremuak.  
Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoa (EEE). EKOLURek landua.

### III.5.- HIDROLOGIA

#### III.5.1.- Lur gaineko urak

Abaltzisketako udalerria Oria ibaiaren arroan dago. Udalerriaren iparraldean dagoen Oria ibaiaren haranera jaisten diren muinoetan kokatzen da, Oria ibaiaren ibaiadar diren Amezketa ibaiaren eta Ibiur erreken artean. Udalerriaren hegoaldeak Urtsu erreka isurtzen ditu urak –Urtsu erreka Oria ibaira urak isurtzen dituen Amundarain ibaiaren ibaiadarra da–.

Udalerria zeharkatzen duten bi ur-ibilgu nagusiak Ibiur erreka eta Urtsu erreken burutza dira. Bi ur-ibilgu horiek 1 eta 10 km<sup>2</sup>-ko arro isurlea dute Abaltzisketan. Ibiur erreka 7,76 km-ko luzerako ibilgua du, eta eraiki berri den urtegi batekin erregulatuta dago. Urtegi horren presa udalerriaren iparraldean dago, Orendain eta Baliarrain udalerrien artean. Urtegia ehunkada metro batzuk sartzen da Abaltzisketako udalerrian. Urtsu ibaiaren ibilguak 8,19 km ditu. Aralarko mendilerroan sortzen da eta Amundarain ibaiarekin egiten du bat Zaldibiako udalerrian.

Edonola ere, udalerria tamaina txikiagoko –1 km<sup>2</sup> baino arro isurle txikiagoko– beste ibai-ibilgu batzuek zeharkatzen dute. Horien artean honakoak nabarmen daitezke: Antzin, Oteiza, Igartza, Eguarre eta Lausoro erreka –guztiak Amezketa ibaiaren ibaiadarrak dira–; Artsueta





eta Erbeta erreken burutzak –Ibiur ibaiaren ibaiadarrak dira–; eta Sarobe eta Labain errekek, Urtsu erreken burutzan.

#### Ur-masak: presioak, inpaktuak eta arriskuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Mugape Hidrografikoen zehaztapenari buruzko azterlanean (Eusko Jaurlaritzak, 2005), ur-masen mugaketako eta tipifikazioko lehen proposamena egin zen, baita horietako bakoitzaren presioen eta inpaktuen analisisia ere. Ibai kategoriako ur-masa naturalak dira. Horien ezaugarri nagusiak honako taulan laburbiltzen dira:

Erreka	Ur-masaren identifikazioa	Mota	Presio-maila orokorra	Inpaktua	UEZren helburuak ez betetzeko arriskua
Ibiur	Oria-C	Ibaia	Handia	Litekeena	Ertaina
Urtsu	Zaldibia-A	Ibaia	Neurrizkoa	Inpakturik gabe	Txikia

Adierazitako zehaztapen hori egiteko egindako aurretiazko lanetan, Abaltzisketako udalerria zeharkatzen duen sare hidrografikoari buruzko txosten zehatzagoak biltzen dira. Gaur egungo egoerarekin alderatu diren informazio horien artean honakoak nabarmen daitezke:


- **Ibiur erreka** 'Euskal-Piriniar' eko-eskualdearen barruan sartzen da. Presio antropikoa oso txikia da, eta Baliarraingo udalerrira mugatzen da, haranean bakartuta dauden baserri batzuk izan ezik. Errekaren ibilguak kalitate ona zuen eta ur-bazterrak kontserbazio-egoera onean zeuden Ibiurko biltegia eraiki aurretik. Gaur egun ezaugarri horiek urtegiaren atzealdearen eta ibaiaren burutzaren artean soilik mantentzen dira.
- **Urtsu ibaiaren** tarte horren ezaugarri nagusien artean honakoak nabarmendu behar dira: malda handia; herrigunerik eza, baserri sakabanatu batzuk soilik; baso-berritzeak; bertako basoen atal txikiak burutzen inguruetan; Aralarko mendilerroaren goi-aldeetako sastrakak eta larreak; eta haranaren behealdeko belardi atlantikoak, ibilgutik hurbil. Tarte hori "Euskal-Piriniar" eko-eskualdean sartzen da.





#### **III.5.2.- Zona babestuak**

Lur gaineko harguneetarako zona babestuen erregistroak giza kontsumorako bost hargune identifikatzen ditu aztergai dugun esparruan (Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen mugapena). Honako hargune hauek dira:

Hargunea	Kokalekua: UTM koordinatuak		Emaria (l/s)
	X	Y	
Aitzola 1	573319	4763528	0,27
Aitzola 2	572773	4763399	0,27
Aitzola Goikoa	573463	4763566	0,27
Lopotegi	572755	4763551	0,27
Altunzaharra	573073	4763546	0,27

Ondoren txertatzen den irudian udalerriko ibai-sarea islatzen da, baita 'Zona babestuen erregistroan' barne hartzen diren lur gaineko harguneen kokapena ere.



	Udalerría
	Ibai-sarea
	Ibiurko urtegia
	Lur gaineko hargune babestuak

5. irudia: Ibai-sarea eta lur gaineko harguneak  
 Iturria: Uraren Euskal Agentzia. EKOLURek landua.

### III.5.3.- Lurpeko urak

Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenak adierazten duenez – Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen mugapena (Eusko Jaurlaritzak, 2004)–, aztergai dugun esparrua lurpeko hiru ur-masaren gainean kokatzen da: udalerríaren zatirik handiena Aramako (ES013S000011) eta Aralarko (ES013S000017) ur-masaren gainean kokatzen da, eta udalerríko mendebaldeko zati txiki bat Beasaingo (ES013S000018) lurpeko ur-masaren gainean.



Aralarko ur-masa udalerraren hegoaldean kokatzen da, izen bereko mendilerroarekin bat eginik. Interes hidrogeologiko handieneko ur-masa da, 1. mailako ur-masa. Mota horietako ur-masetan, iragazkortasun handieneko formazioak nagusi dira.

Bestalde, udalerraren zatirik handiena hartzen duen Aramako lurpeko ur-masa eta Beasaingo ur-masa 2. mailako ur-masak dira, hau da, iragazkortasun txikiko eta interes hidrogeologiko txikiko ur-masak dira, eta horietan akuifero txikiak ager daitezke.



6. irudia: Lurpeko ur-masak  
Iturria: Uraren Euskal Agentzia. EKOLUREk landua.

### III.6.- LURZORUAK ETA KLASE AGROLOGIKOAK


Abaltzisketako udalerraren kasuan, egiaztatu ahal izan da ahalmen agrologiko urriko edo ahalmenik gabeko lurzorua nagusi direla, eta baso-erabilera eta kontserbazio-erabilera murrizten duten aprobetxamendurako murrizketa etengabeak eta zorrotzak nabarmentzen direla. Horixe da udalerriko 678 ha-ren kasua, hots, udalerriko % 60 inguru. Erliebe irregular eta gorabeheratsuko eremuak dira, % 30etik gorako maldak dituztenak. Horrez gain, harria azaleratzen da, eta kasu horietan higadurak oso modu trinkoan jarduten du eta lurzoruen bilakaera eragozten du.

Produkzio-ahalmena galtzeko arrisku larria dutenez gero, 392 ha ezin dira nekazaritzarako erabili (udalerraren % 35 inguru); izatez, malda handikoak (> % 20) eta/edo sakontasun erabilgarri txikikoak dira eta/edo oso harritsuak dira. Belarki-landaredi edo egur-landaredi etengabeari eustera zuzen daitezkeen lurak dira. Lurren % 40 inguru bat datoz % 30etik gorako malda duten eta belardietara zuzendu ohi diren mazedekin. Urrakortasun handikoak dira, bai



posizio topografikoagatik, bai sakontasun, erreserba hidriko eta emankortasun txikikoak izateagatik.

Azkenik, nekazaritza-erabilerarako murrizketa txikiagoak dituzten lurrak identifikatu dira. Malda txikiagoko muinoetan edo mazeletan dauden lurzorua dira –% 20tik beherako maldak–, eta, horrela, belardiak erabil daitezke beste labore batzuekin txandakatuta. Erliebe leunagoko zona horietan, hain zuzen ere, kokatzen dira baserrien gunek txiki barreiatuak, eta, hori dela kausa, egin da gisa horietako lurzoruen aprobetxamendu intentsiboagoa. Abaltzisketan klase horretako 57 ha kalkulatu dira, hau da, udalerraren % 5 inguru da klase horretakoa.



7. irudia: Klase agrologikoak  
Iturria: Klase agrologikoen mapa (GFA).



### III.7.- LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

#### III.7.1.- Gaur egungo landaredia eta lurzorua erabilerak

Udalerriko lurraldearen erabilera nagusia belardien, larreen, fruta-zuhaiztien eta bestelako laborantza-lursailen (baratzen, haztegien) kategoriakoa da. Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera horiek gutxi gorabehera 317 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, udalerraren % 28. Baso-berritzeek ere oso hedadura handia dute, 281 ha inguru hartzen dute, hau da, udalerraren % 25. Azken horien artean koniferoen baso-landaketak dira nagusi, batez ere *Pinus radiata*, espeziearenak; 255 ha-tan hedatzen dira. Harizti-orbanek ere azalera handia hartzen dute udalerrian, guztira 178 ha. Gainerako formazioek azalera txikiagoa hartzen dute. Landaredia aniztu egiten da udalerraren hegoalderantz, Aralarko mendilerroa hurbiltzearekin batera.

Antzeko ezaugarriak dituzten unitateetan bildu dira landaredi-formazioak eta lurzorua erabilerak. 'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuko *II.1. Landaredia eta lurzorua erabilerak* planoan kartografiatu dira unitate horiek.

Hauek dira landaredi-unitateak:

- 01: Harkaiztietako, harri-larreetako eta kareharrizko haitzebakien oineko baso mistoetako landaredia.
- 02: Mendiko larreak.
- 03: Haltzadi kantauriarra.
- 04: Pagadi azidofiloa eta pagadi kaltzikola edo eutrofoa.
- 05: Harizti azidofiloa (*Quercus robur*) eta harizti/baso misto atlantikoa.
- 06: Hostozabalen baso gazteak eta intereseko zuhaixka-formazioak: palaxuak, hurriztiak, elordiak.
- 07: Sastrakadiak: otadiak, iratzediak...
- 08: Albitz-belardiak.
- 09: Hostozabalak landatutako sailak.
- 10: Koniferoak landatutako sailak.
- 11: Belardiak, larreak, fruta-arbolak eta beste laborantza-lursail batzuk (baratzeak, haztegiak).
- 12: Eremu urbanizatueta edo erdi-urbanizatueta landaredi erruderala.

'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuan honako puntu hauek hartzen dira barnean: unitate bakoitzaren deskribapena; orban nagusien kokalekua; okupatutako azalera; eta 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera intereseko habitat gisa edo lehentasuneko habitat gisa jotzen diren - 92/43/EEE Zuzentaria, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzeari buruzkoa-.

#### III.7.2.- Intereseko landaredia

Aurreko atalean aipatutako formazioak eta habitata baloratu ostean, eta Garrantzi Komunitarioko Lekuari atxikitzen zaizkion edo ez kontuan izanik, honakoak dira udalerriko intereseko formazioak eta, horrenbestez, babestea merezi dutenak:

- Harkaiztegiekin eta sakanekin lotutako landaredia.
- Mendiko larreak.
- Haltzadi kantauriarra.
- Pagadiak.
- Hariztiak.
- Intereseko bestelako hostozabalak: elordiak, palaxuak...
- Albitz-belardiak.
- Garrantzi Komunitarioko Lekuaren esparruan dauden sega-belardiak.



'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuko II.2. *Intereseko landaredia* planoan identifikatzen dira aintzat hartutako unitateei dagozkien orbanak.

Mugaketa hori dela-eta, udalerrian dauden interes komunitarioko habitat hauek (Habitaten Zuzentaraua) babesteko proposamena finkatu da (lehenasuna duten habitatak azpimarratu dira):

- 6210: larre lehor erdi-naturalak eta karekizko substratu gaineko sastrakadi faziesak (*Festuco-Brometalia*).
- 6210\*: Larre lehor erdi-naturalak eta sastrakadi faziesak, orkidea garrantzitsuak dituztenak.
- 6230\*: *Nardus* belar-formazioak, mendiko eremuetako substratu silizeoen gainean.
- 6510: Altuera txikiko sega-larre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*).
- 8210: Landaredi kasmofitikoak duten harkaitz kaltzikolako maldak.
- 9120: Pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta, batzuetan, *Taxus* espezieetako oihanpea dutenak (*Quercion robori-petraeae* edo *Ilici-Fagenion*).
- 9180\*: Mazelako basoak, *Tilio-Acerion*.
- 91E0\*: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) espezieetako baso alubialak. Lehenasuna duen habitata da.

Proposatutako mugaketaren inguruan bi ohar egin behar dira:

- Europako Zuzentarauak hariztiak, pagadi basofiloak eta intereseko bestelako hostozabalak (elordiak, hurritzak, palaxuak) interes komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, arras murriztu dira interes txikiagoko beste formazio batzuen alde (baso-berritzeak, larreak, eta abar). Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen 16/1994 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela-eta, erabaki da kontserbatzeko interesa duten formazioen artean sartzeari formazio horiek.
- Segabeldiaren interes komunitarioko habitat gisa hartzen ditu Zuzentarauak. Edonola ere, lurraldearen zati honetan (isurialde kantauriarrean) oso azalera handia dutela eta Garrantzi Komunitarioko Lekuaren esparruan oso zabaldua daudela baloratu da. Horrenbestez, intereseko landaredi gisa Aralarko Garrantzi Komunitarioko Lekuaren esparruan soilik hartzea nahikoa dela iritzi zaio.

### III.7.3.- Arriskuan diren flora-espezieak

Azkenik, Abaltzisketako udalerriri dagokion UTM30T WN76 laukian ageri diren eta desagertzeko arriskuan dauden flora-espezieak aipatu dira 'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuan (III.8.4. kapituluaren). Horien artean nabarmendu dira udalerrian agertzen direla egiaztatu diren flora bereziko espezieak eta/edo desagertzeko arriskuan dauden flora-espezieak, betiere Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak (2003) sustatutako 'Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian desagertzeko arriskuan dagoen floraren kokapen geografikoa. I. fasea. 1/5.000 eskala' proiektuaren barruan sortutako kartografiatik lortutako datuen arabera. Guztien aipamenak bildu dira Aralarko mendilerroaren Gipuzkoako aldean, Garrantzi Komunitarioko Lekuaren esparru babestuan.



Espezia	Arriskuaren kategoria	Habitat mota
<i>Crepis pyrenaica</i>	Bakana	Harkaiztegien oinetako larre eta belardiak, eragin kantauriar zuzenaren mende dauden mendilerro batzuetako laiotzetan.
<i>Carlina acaulis</i> <i>subsp simplex</i>	Bakana	Lainoen eraginpean egon ohi diren kareharrizko gailur-eremuetako larreak eta erlaitzak.
<i>Armeria pubinervis</i>	Interes berezikoa	Kareharrizko mendi garaietako laiotzetako belarrezko erlaitzak.
<i>Carlina acanthifolia</i>	Interes berezikoa	Kareharrizko mendilerroetako gunee garaietako larre-belardiak eta pre-txildardiak.
<i>Cladium mariscus</i>	Arriskurik ez	Iturburu batzuetatik hurbil; lur oso hezeetan edo istilduetan, leku ireki eta eguzkitsuetan.

### III.7.4.- Onura publikoko mendia

Egido onura publikoko mendiak (OPM) 360 ha inguruko azalera du. Abaltzisketako Udalaren jabetzakoa da.

Honakoa da landaredi-unitateen araberrako gutxi gorabeherako banaketa:

Landaredi-unitatea	Azalera (ha)	OPMaren azalera %
Harkaiztegia	0,6	% 0,2
Soilgunea	157,8	% 44,1
Pagadia - hostozabalen baso misto atlantikoa	111,8	% 31,2
Beste hostozabal batzuen basoak	2,2	% 0,6
Haltzadi kantauriarra	1,4	% 0,4
Belardia	34,8	% 9,7
Pinus nigra	46,4	% 13,0
Beste konifero batzuk	2,6	% 0,7
Guztira	358	100,0

### III.8.- FAUNA

Abaltzisketako udalerrian eta ingurunean oso posiblea da 125 ornodun espezie agertzea (erdia inguru hegaztiak). Horietatik 35 bat katalogatuta daude. I. eranskinean desagertzeko arriskuan dauden espezieen euskal zerrendaren arabera katalogatuta dauden espezieen estatusa kontsulta daiteke.

Nabarmendu behar da desagertzeko arriskuan dagoen desman piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*) kudeatzeko planak finkatutako interes bereziko eremuaren barruan dagoela Amundarain edo Zaldibia ibaiaren ibaiadarra den Urtsu erreka aldea.

Ondoren 'Analisisa eta diagnostikoa' dokumentuan egindako eta jasotako analisiaren alderdirik adierazgarrienak emango dira aditzera.

#### III.8.1.- Anfibioak

Gailurretako uhandrea (*Triturus alpestris*) Bakan gisa sailkatzen da. Aralarko mendigunearen osotasuna (Abaltzisketako udalerraren zatia barne) espeziearen lehentasuneko banaketako zonatzat jo du Eusko Jaurlaritzak. Espezia kudeatzeko plana ez dago onartuta.



Abaltzisketa kokatzen den UTM laukian 75 hegazti espezie aipatzen dira. Bertan agertzea posiblea den espezieen artean 26 aipatzen dira desagertzeko arriskuan dauden espezieen euskal zerrendan nolabaiteko arrisku-mailarekin: 13 interes berezikoak dira, 8 bakanak, 4 kalteberak eta 1 desagertzeko arriskuan dago (ugatza, *Gypaetus barbatus*). Horietako bakar batek ere ez du kudeaketa-planik. Espezie hauetako askok habia egiten dute Abaltzisketako udalerrian. Ia espezie horien guztien larreratze-eremuaren barruan dago Abaltzisketako udalerrria, eta bertan erregularitasun handiz agertzen dira. Aralarko zonan metatzen da arriskuan dauden espezie gehien: izatez, Eusko Jaurlaritzak (Biodibertsitate Zuzendaritzak) 10 espezieen (hontz handia, okil txikia, okil beltza, belatz handia, sai arrea, sai zuria, mendi-tuntuna, belatxinga mokohoria, belatxinga mokogorria) lehentasuneko banaketa-zonatzat jotzen du Aralar.

Urtsu errekaen burutza desman piriniotarraren interes bereziko eremutat jotzen du espezie hori kudeatzeko planak. Desagertzeko arriskuan dagoen bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko planak ez du Abaltzisketako ibai-sarea (Ibiur, Urtsu) espezie horren interes bereziko eremuen artean sartzen. Haatik, aski posiblea da espezie horietako aleren bat aldian behin udalerriko ibai-sarean agertzea (gaur egun eta etorkizunera begira Ibiur urtegiaren eragozpena du eta izango du). Aralarrek du katalogatutako beste ugaztun espezieen populazioak agertzeko aukera gehien, arriskuan dauden kiropteroak eta elur-lursagua (*Chionomys nivalis*) barne.

Gipuzkoako beste udalerrri batzuekin alderatuta, Abaltzisketako udalerrria ia osorik da interesekoa faunarentzat. Dena den, Aralarko Garrantzi Komunitarioko Lekua eta Aralarko Parke Naturala da ikuspuntu horretatik garrantzi handiena duen eremua (horien esparruaren barruan sartzen da desman piriniotarra kudeatzeko planaren interes bereziko eremua). Izan ere, arriskuan dauden hegazti eta ugaztun espezie ugariaren ordezkartza aberatsa du.

### III.9.- INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK

#### III.9.1.- Espazio natural babestuak

##### Aralarko Parke Naturala

Aralar 1994ko apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez izendatu zuen Parke Natural Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak. 10.971 ha-ko azalera hartzen du. Azalera horretatik 607 ha gutxi gorabehera (% 5,5) Abaltzisketako udalerriri dagozkio.

##### NATURA 2000 Europako sare ekologikoa

2004ko abenduaren 7an, Europako Batzordeak eskualde biogeografiko atlantikoko Garrantzi Komunitarioko Lekuaren hasierako zerrenda onartu zuen Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera. Zerrenda horren barruan dago Aralar (ES2120011). Aralarko Garrantzi Komunitarioko Lekuaren azalera bat dator Aralarko Parke Naturalaren mugaketarekin. Garrantzi Komunitarioko Lekuak, Aralarko Parke Naturalak bezalaxe, oinarritzko sareko GI-2133 errepidearen (Amezketza-Zaldibia) eta udalerraren hegoaldeko mugaren arteko zatia hartzen du udalerrian. Gaur egunera arte ez da onartu hura kudeatzeko planik.

Informazio xehatuagoa nahi izanez gero, irakurleak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web-orriara jo beharko du:

[http://www.ingurumena.eigv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/enp/es\\_1086/lic\\_aralar\\_c.html](http://www.ingurumena.eigv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/enp/es_1086/lic_aralar_c.html)

##### Urtsu erreka

2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoan desman piriniotarra, *Galemys pyrenaicus* (*E.Geoffroy, 1811*), kudeatzeko plana. Kudeaketa-planak 'interes bereziko eremuak' ezartzen ditu, eta eremu horiek zenbait ibai-tarteren jabari publiko hidraulikoko zonetara eta polizia-zonetara egokitzen dira geografikoki. Ibai-tarte horien





artean dago Amundarain ibaiaren arroa. Urtsu errekarerekin bat egiten duen gunetik gora dauden ur guztiak sartzen dira, eta horien zati batek Abaltzisketako udalerrria zeharkatzen du.


Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, 2004ko maiatzaren 28an argitara emandako 100 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera jo beharko du irakurleak.

**VII.1. Ingurumen-arloan homogeenak diren unitateak planoan** lehentxeago adierazitako esparruak identifikatu dira (Parke Naturala, Garrantzi Komunitarioko Lekua, interes bereziko eremua).

### III.9.2.- Interes naturalistikoko bestelako eremuak

#### Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea

Adierazitako interes naturalistikoko eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen (IKT, 2005) proposamenean islatzen dira, eta horren parte da udalerriko ia azalera osoa. Ondoren gaineratzen den irudian identifikatu dira Abaltzisketako udalerrriaren parte diren korridore ekologikoen sarearen egitura-elementuak.



Korridore ekologikoen sarea	Egitura-elementuak	
	Gune-eremua	
	Lotura-interes berezia duten ibai-tarteak	
	Lotura-korridorea	
	Indargetze-eremua	

8. irudia: Korridore ekologikoen sareko egitura-elementuak.  
 Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuordetza. EKOLURek landua.



### III.10.- PAISAIA

Abaltzisketako udalerria Oria, Amundarain eta Amezketa ibaien artean goratzen da. Landazabaleko paisaia da nagusi, Gipuzkoako Goierriko zona zabaletako ikus-erreferentea den Aralarko mendigune zentralaren kareharrizko mendilerroaren azpian.

Udalerria ia osorik banatzen da hiru ikus-arrotan: Baliarrain, Zaldibia eta Amezketa. Zehazki, udalerraren % 38 inguru Baliarraingo ikus-arroari dagokio (430 ha), % 35 Zaldibiako ikus-arroari (397 ha) eta % 27 (303 ha) Amezketako ikus-arroari. Hegoaldeko muturreko azalera txiki bat (2 ha) Urrustiarrengo ikus-arroari dagokio.



9. irudia: Ikus-arroak. Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Kartografia.  
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuordetza. EKOLURek landua.

Hiru ikus-arro nagusiek antzeko ezaugarriak dituzte tamainari, desnibelari, biztanle kopuru txikiari, hiriguneren bat agertzearen ondoriozko egunerokotasunari, eta landa- eta baso-osagaien azaleraren garrantziari dagokionez. Baliarrainen arroaren kasuan izan ezik –bertan landak eta basoak osatzen duten mosaikoak lurraldearen % 85 baino gehiago hartzen du–, beste bi arroetan eremu naturalak eta antzeko beste eremu batzuk dira nagusi (mendiko larreak, eta abar).

Lau ikus-arroak eta, horrenbestez, udalerraren osoa barne hartu dira paisaia berezien eta bikainen katalogoaren proposamenean. Landazabaleko paisaiak jasotzen duen balorazio handiaz gain, Aralarren biltzen dira paisaia-kalitateko eta ikus-urrakortasuneko baliorik handienak, batez ere Aralarko berezitasun geomorfologikoetan, Txindoki mendian esate baterako –Gipuzkoako Goierri eskualdearen eremu handi baten paisaiaren erreferentea–.



### III.11.- KULTURA ONDAREA

Udalerriko kultura-ondareko zenbait elementu katalogatu da, eta, hortaz, berriazko babesak dute. Plan Orokorren '3. Katalogoa' dokumentuan kontsulta daitezke.

Batetik, 'Abaltzisketako ustezko gune arkeologikoak' daude, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren 1997ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez izendatu zirenak (1998ko urtarrilaren 26ko EHAA, 16 zk.).

Ustezko gune arkeologikoak
San Juan Bataiatzailea eliza
Gazaztegi baserria
Sasiaingarate Goena baserria
Sasiaingarate Barrena baserria
Azaldegi Goena baserria
Azaldegi Azpi baserria
Estanga-Goena baserria
Estanga-Barrena baserria
Iturgoena baserria
Erremedioen Andre Mariaren ermita

Bestalde, 'Aralarko Gune Megalitikoa' dago, kultura-ondasun gisa, monumentu multzo kategoriarekin, izendatu zuena ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuak (2003ko uztailaren 8ko EHAA, 133 zk.). Errege Dekretu horrek finkatzen du monumentu multzo horren babes-erregimena. Udalerriarren zati bat sartzen da gune megalitiko horren parte diren monumentuen babes-eremuan.

Ondare historikoari eta arkitektonikoari dagokionez, honako ondasun higiezin hauek identifikatu dira.

Ondare arkitektonikoko elementuak	
Seroetxea	I. maila
Andresenea etxea	I. maila
Naera Haundi baserria	I. maila
S. Juan Bautista eliza	I. maila
Udaletxea	II. maila
Erretore Etxea	II. maila
Erremedioen Andre Mariaren ermita	II. maila
Txutxurumendiko Santa Kruz ermita	II. maila
Iriondo Berri baserria	II. maila
Txutxurumendiko gurutze-bidea	II. maila
Errota	II. maila
Iriondo Zaharreko borda	II. maila
Lazkano Enea etxea	II. maila

Halaber, udal-mailan babesteko proposatutako interes etnografikoko elementu hauek identifikatu dira.

Interes etnografikoko elementuak	
Izena	Babesa
Olano Martinea baserriko karobia	Udalarena
Olano baserrietako garbitegia	Udalarena
Errebote jokoan sakea egiteko harria	Udalarena
Union Bozue Mayor delakoaren bileretako zelaia	Udalarena



Ondarearen elementu katalogatu horiek espedienteko *V.1. Hirigintza-ondare katalogatua* planoan identifikatu dira.

### **III.12.- INGURUMEN ARRISKU NATURALAK**

#### **III.12.1.- Uholde-arriskua**

Eusko Jaurlaritzari atxikitako Uraren Euskal Agentziak egindako urpean geratzeko arriskuari buruzko mapek ez dute urpean geratzeko arriskuko inolako orbanik identifikatzen Abaltzisketako udalerrian.

'Arriskuaren Mapa Zuzentzailearen' arabera (1996ko otsaila), Abaltzisketako udalerriko prezipitazio-isomaximoak eguneko 250 eta 350 mm artean daude 500 urteko birgertatze-aldirako.

#### **III.12.2.- Arrisku sismikoa**

'Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren' arabera (2006ko iraila), Abaltzisketa VI. intentsitate-zonan kokatuta dago; hori dela-eta, oso zaila da udalerriko eraikinak suntsitzeko behar besteko sismorik gertatzea bertan. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburuordetzak landutako Arriskuei buruzko Txostenak aditzera ematen duenez, eraikuntza berrietan irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako eraikuntza sismoerresistenteen araua (NCSR-02) hartuko da kontuan –zati orokorra eta eraikuntza–.

#### **III.12.3.- Sute-arriskua**

Landaredi-unitate bakoitzari 'Baso-erregaien ereduan' dagokion eredua esleitu zaio. Aztergai dugun esparruko emaitza honakoa da:

- Arrisku txikia: landaredi erruderal nitrofiloa (hiri-kokalekuak) eta belardi eta labore-lur atlantikoak.
- Arrisku ertaina: harizti-zona degradatuak.
- Arrisku handia: harizti-zona finkatuko zonak eta baso-landatzeak.

Azken horiek, baso-suteen arloan arrisku handia duten eremuak, **VII.2. Arrisku naturalak dituzten eremuak** planoan identifikatu dira.

#### **III.12.4.- Mazeletako prozesuak eta lotutako balizko arriskuak**

Eusko Jaurlaritzaren Gesplan aplikazioak eremu zabalak identifikatzen ditu Erbeta eta Egoarre erreken haranetara jaisten diren mazeletan –guztira 200 ha inguruko azalera–. Mazela horietan lur gaineko lerraduren arriskuak ageri dira. Horiez gain, 'askatze orbainak' identifikatu diren barruti txikiak ere hartu ditu barnean. Bestalde, % 50etik gorako maldak dituzten lur-eremu zabalak daude, eta horietan higadura-arriskua nabarmena da, baldin eta ez bazaio egur-landarediari etengabe eusten.

Esparru horiek guztiak **VII.2. Arrisku naturalak dituzten eremuak** planoan identifikatu dira.

#### **III.12.5.- Akuiferoen poluzioarekiko urrakortasuna**

Udalerraren zatirik handiena, Larraitz auzotik iparraldeko muturrera arte, ez du akuiferoen poluzioarekiko urrakortasunik azaltzen, edo oso urrakortasun txikia azaltzen du. Aitzitik, hegoaldeko muturrean, Aralarko mendilerroaren inguruetan urrakortasun ertaineko eta oso



handiko zonak tartekatzen dira. Azken horiek ere identifikatu dira **VII.2. Arrisku naturalak dituzten eremuak** planoan.

### III.13.- INGURUMEN ARRISKU ANTROPIKOAK

#### III.13.1.- Poluituta egon daitezkeen lurzorua

Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoria polui dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuen inbentarioaren inguruan IHOBek emandako informazioaren arabera, inbentario horretako hiru lursail kokatzen dira Abaltzisketako udalerrian.

Lurzoria polui dezaketen jarduerak dituzten kokalekuak					
Kodea	Izena	Kokaleku mota	Azalera (m <sup>2</sup> )	Koordenatuak	
				X	Y
20001-00001	Bernane baserria	Industria	162	573817	4765616
20001-00002	Altunberri baserria	Industria	1.447	571884	4766044
20001-00003	Larraitzeko betelana	Obra-hondakindegia	7.584	573104	4765801



10. irudia: Lurzoria polui dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuak. Iturria: IHOBEn EKOLURek landua.

### III.14.- ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

Ondoren, espediente honetako 'Analisia eta diagnostikoa' dokumentuan, *IV. Informazio sozioekonomikoa* eta *VI. Mugikortasuna eta azpiegiturak* kapituluetan egindako analititik ateratako datu batzuk nabarmenduko ditugu.



### III.14.1.- Biztanleria

Udal-errodaren datuen arabera, Abaltzisketak 2007. urtean 316 biztanle zituen. Udalerriak 24,7 bizt./km<sup>2</sup>-ko batez besteko dentsitatea du. Biztanleriaren egiturari dagokionez, biztanleria gaztearen ehunekoak nabarmentzen dira (20 urtetik beherakoak % 19,1 dira), baita 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak ere (% 20,6).

Biztanleriaren % 28 inguru hirigune nagusian bizi da. Ehuneko hori zazpi puntutan gehitu da azken bost urteetan. Larraitz auzoan biztanleriaren % 15 inguru bizi da, eta gainerako biztanleak gunee txikiagoetan (Pildain, Olano, Ipintza, Sasiain, Azaldegi, Iriondo...) edo baserri barreiatuetan.

2001. urtean, Abaltzisketak hainbat tipologiatako 83 familia zituen, familiako 3,34 pertsonako batez bestekoarekin.

### III.14.2.- Ekonomia

Udalerriko biztanleria aktiboa 127 pertsonak osatzen dute (Eustat, 2001), hau da, guztira % 45,8ko jarduera-tasa. Ia guztiek dute lana (% 97k), batez ere zerbitzu-sektorean (% 37,4) eta industria-sektorean (% 35,8). Eraikuntzaren sektorean diharduen biztanleriaren ehuneko handia nabarmentzen da (% 15,4), baita lehen sektorean diharduen ehuneko handia ere (% 11,4), batik bat lurralde historikoko sektore horietako ehunekoekin alderatuz gero (% 8,2 eta % 1,7 hurrenez hurren).

### III.14.3.- Nekazaritza-sektorea

Gipuzkoako Foru Aldundiak erregistratutako 2008ko ekitaldiari dagozkion datuek adierazten dutenez, Abaltzisketan 76 nekazaritza-ustiategi dago erroldatuta. Horietako 20tan, ustiategiaren titularrak lan-jardun osoa eskaintzen dio ustiapenari, eta gainerakoetan aldi baterako lan-jarduna eskaintzen zaio ustiapenari.

13 ustiategitan soilik gainditzen da 1 NLUko zenbatekoa (Nekazaritza Lanaren Unitatea). 4 ustiategitan gainditzen da 3 NLUko zenbatekoa (Urkola-txiki, Otamendi-barrena, Zubeldi-erdi, Sarobe-berri), eta guztiak bideratuta daude abeltzaintzara. Erregistroak ustiategi bakarra jotzen du "lehentasunekoztat", "Zubeldi-erdi" ustiategia hain zuzen ere.

Bestalde, produkzio ekologikora zuzentzen den ustiategi bat dago, "Nahera" ustiategia. Nagusiki, fruta-zuhaitzen ondoriozko produktuak ekoizten ditu, eta, horrez gain, ostatu-eskaintza ere badu.

Udalerriko ustiategietan erroldatutako azienaren erregistroak 444 behi-buru jaso ditu, 1.224 ardi-buru eta 113 zaldi-buru.

## III.15.- MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Honako taulan islatzen da lanaren ondoriozko nahitaezko mugikortasuna:

Lanaren eta ikasketen ondoriozko Abaltzisketako biztanleria landunaren mugikortasuna. 2001. urtea			
Landunak			
Guztira	Etxean bertan	Bizi den udalerrian	Beste udalerrri batean
123	28	12	83

Iturria: EUSTAT.



Agenda 21aren esparruan landutako diagnostikoak adierazten duenez, pertsona landunen mugikortasunaren kopuruek argi eta garbi islatzen dute biztanle askok beren nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategian bertan lan egiten dutela eta udalerrian ez dagoela industriarik –hori dela-eta biztanleria landunaren % 67k beste udalerrri batzuetara joan behar du lan egitera–. Udalerriko biztanleen artean ibilgailu motordun pribatuen erabilera oso handia da, baita udalerrri barruan ibilbide laburrak egiteko ere. Udalerrri txikia denez gero, ez dago ekipamenduen edo zerbitzuen eskaintza handirik (osasun-etxea, banku-bulegoak, izapide askotarako bulegoak...). Hori dela-eta, areagotu egiten da munta handiagoko beste udalerrri batzuetarako (Alegia, Tolosa, eta abar) joan-etorrien kopurua, eta joan-etorri horietako gehienak ibilgailu motordun pribatuan egiten dira.

Errepide-sareak guztira 7 km-ko luzera du udalerrian, eta 0,027 km/km<sup>2</sup>-ko dentsitatea. Tolosako udalerrriaren dentsitatea 0,8 km/km<sup>2</sup>-koa dela kontuan hartuta, Abaltzisketako udalerriko errepide-sarea urria da, tamaina handiagoko beste udalerrri batzuekin alderatuz gero.

Ibilgailuak/familia ratioa 1,48koa zen 2004. urtean, eta 1.000 biztanleko 433 ibilgailuko ratioa jaso da –Gipuzkoan ratioa 1.000 biztanleko 411 ibilgailukoa da–. Garraio publikoari dagokionez, Udalaren eta Tolosaldea-Bus konpainiaren arteko hitzarmena dago. Gaur egun sei zerbitzu egiten ditu egunean Abaltzisketa eta Tolosa artean. Tolosan garraio publikoaren eskaintza handiagoa da (autobusa eta tren).

### III.16.- BALIABIDE HIDRAULIKOAK ETA URAREN ZIKLOA

#### III.16.1.- Hornidura-sarea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak (Gipuzkoako Urak, SA) kudeatzen du udalerriko hornidura-sarearen osotasuna, goi-presioko hornidurakoa zein udal-banaketakoa.

Ur-hornidura honela egiten da gaur egun:

- Arriarango urtegitik abiatzen den Abaltzisketako goi-presioko ur-hornidurako sarea Gaintzako biltegitik bideratzen da burdinurtuzko eta polietilenoazko 150 mm-ko diametroko hodi baten bitartez.
- Pildain biltegitik ('Deposito Berria') jotzen du –150 m<sup>3</sup>-ko edukiera du gutxi gorabehera–, eta bertatik bideratzen da goi-presioko sarea Orendainerantz, baita Abaltzisketako udalerriko behe-presioko banaketa-sarea ere.
- Biltegi horretatik, beraz, garatzen da udalerriko behe-presioko ur-horniduraren banaketa. Banaketa hori enbor-sare batetik (ø100FC) abiatuko da, eta horren bidez antolatuko dira udalerrriaren osotasuneko helmuga-puntu guztietarako deribazioak. Bizkarrean beste biltegi bat du, Otamendikoa ('Deposito Zaharra'), 43 m<sup>3</sup>-ko edukierakoa, eta hortik banatzen da Larraitz auzorako ur-hornidura. 2009. urtean berriro da biltegiaren eta Larraitz auzoaren arteko sare hori (150 m hodi, 2"-koa).
- Gaur egungo banaketako hiri-sarea, bestalde, adierazitako bigarren mailako sareen enbor-saretik banatzen diren hainbat sekzio eta materialetako antzinako adarrez osatuta dago (ø75PVC, ø63PE - ø50PE).

Arriarango edateko uren araztegia bere baitan hartzen duen 'Goierrri sistemako' uraren kalitatea 'egokitzen' jo da.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra beharrezkotzat jotzen du ura banatzeko sarearen erregulazio-ahalmena handitzea, eraikuntza berrien hornidura eta dagokien suteen kontrako babeserako behar den hornidura bermatzeko. Horretarako, 300-400 m<sup>3</sup>-ko edukierako biltegi berri bat eraikitzea proposatu du, plangintza orokorraren mailan egindako zenbatespenen



arabera, eta sareko presioak orekatuko dituen kokalekuan. Hori dela-eta, egokitzen jotzen da Pildainen dagoen biltegiaren beste muturrean kokatzea, Larraitz auzora doan errepedearen ondoan.

Abaltzisketako urteko batez besteko ur-kontsumoa, 'Gipuzkoako Ur Kontsorzioak' emandako datuen arabera, 21.500 m<sup>3</sup> ingurukoa da.

Ur-hornidura kudeatzeaz arduratzen den Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren iritziz, Plan Orokorrean aurreikusitako biztanleriaren hazkundeak 6.323 m<sup>3</sup> inguru handituko luke edateko uraren kontsumoa. Arriarango urtegiko sistema arduratuko litzateke hori hornitzeaz.

### III.16.2.- Saneamendu-sarea

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak (Gipuzkoako Urak, SA) saneamendu-sistema ere kudeatzen du. Berriki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak sustatutako saneamendu-obrak egin dira, 'Abaltzisketako eta Gaintzako saneamenduaren proiektu eguneratua' biltzen direnak hain zuzen ere. Abaltzisketaren kasuan, hirigunearen saneamendua bildu eta Amezketara bideratuko duen lurpeko sarea gauzatu da. Lurpeko sare hori udalerriko hirigunearen ekipamendu-zuzkiduren azpitik bideratu da.

Jardun horrekin saneamendu-sareak bat egingo du 2011. urtean irekitzea aurreikusten den Adunako Hondakin Uren Araztegiaren saneamendu-sistemarekin.

Hiriguneko saneamendu-sare orokorra sistema bateratu baten bidez garatzen da ia oso-osorik, sare bereizlearen tarte jakin batzuk izan ezik. Udalerriko hiri-garapen berrienen testuinguruan gauzatu ziren tarte horiek. Era berean, eraikin batzuek haien hobi septikoak dituzte, eta bertan arazten dituzte urak, aipatutako ibarreko ibilgura isuri aurretik.

Bestalde, udalerriko landa-izaerako kokalekuen saneamendua, batzuetan, urak ibilgura isuri aurretik araztuko dituzten hobi septikoen bitartez ebazten da, eta, beste batzuetan, ibilgu horietara zuzenean isurtzen dira urak. Nolanahi ere, landa-izaera duen Larraitz gunean banakako hobi septikoak daude, eta udalerraren ekialderantz, Amezketa alderantz, gunek bakar batera isurtzen dira urak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak egindako 'Gipuzkoako lurralde historikoko saneamenduaren egungo egoerari buruzko analisisia' izeneko azterketan emandako datuak, Abaltzisketari eta 2001. urteari buruzkoak, erantsitako taulan ikus daitezke:

Abaltzisketa. 2001. urtea (m <sup>3</sup> /urte)						
Gunea	Biztanleria	Isurketa (m <sup>3</sup> /urte)	Industriako isurketak (m <sup>3</sup> /urte)	Abeltzaintzako isurketak (m <sup>3</sup> /urte)	Isurketa guztira (m <sup>3</sup> /urte)	Biztanle baliokideak
Abaltzisketa	216	9.461	0	5.861	15.322	323
Barreiatuak	42	1.656	0	1.458	3.113	66
<b>Guztira</b>	<b>258</b>		<b>0</b>			<b>389</b>

*Iturria: Gipuzkoako uraren erabilera iraunkorrari buruzko gidalerroak lantzeko oinarriak. Ikaur. 2006.*

### III.17.- HONDAKINAK

Tolosaldeko Mankomunitatearen datuen arabera, eskualde osoan batez beste eguneko 1,19 kg/bizt. sortzen dira, eta 2000. eta 2005. urteen artean % 7ko gehikuntza izan da.





Abaltzisketan biltzen diren hondakin birziklaezinak Sasietako zabortegira isurtzen dira. Tolosaldeko Mankomunitateak kudeatzen ditu hondakin birziklagarriak (obretako hondakinak, plastikoa, kartoia, altzariak, txatarra...), eta Anoetako garbigunera edo Legazpiko ontziak sailkatzeko instalaziora garraiatzen ditu.



#### **IV.-AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko prozesuan etengabe aztertu, kontrastatu eta baloratu dira hainbat antolamendu-aukera, zegozkien esparru edo gaitan.

Hirigintza-espeditatearen hasierako faseetan, balizko bizitegi-garapenak eta aparkaleku publikoen zuzkidura kokatzeko eta antolatzeko hainbat aukera aurkeztu ziren. Aukera horiek bai udal-administrazioak eta bai jendaurreko erakustaldiko faseetan parte hartu zuten pertsonak baloratu zituzten.

Ondoren, aintzat hartutako aukerak aztertuko ditugu. Analisi hori bi jardun-arloren inguruan egin da:

- Bizitegi-garapena.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna.

Dokumentuak planteatzen dituen bi aukerak bat datoz Hiri Antolamenduko Plan Orokorren irizpide eta helburu orokorren errespetuan. Irizpide eta helburu horien artean honakoak nabarmen daitezke: trinkotasuna; hiri-bilbearen integrazioa; hiri-continuumak; kudeaketaren bideragarritasuna eta aukera; indarrean dauden plangintzako zehaztapenak lurzoru finkatuan sendotzea; eta gauzatu gabeko lursail antolatuen zehaztapenak baliozkotzea.



11. irudia. 1. aukera



12. irudia. 2. aukera



13. irudia. 3. aukera



#### **IV.1.- AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN LABURPENA**

Aztertu ziren aukeretako bakoitzak bizitegi-garapeneko proposamen bat eta aparkaleku publikoko aukera bat aztertzen dute, baita beste mota bateko jardun komunak ere (espazio libreen sistema orokorreko esparru berria, ekipamenduen zuzkidura handitzea, eta abar).

Espazio libreen sistema orokorrera zuzenduko den zona berria komuna edo antzekoa izango litzateke hiru aukeretan, azkenean bizitegi-erabilerara zuzenduko den azaleraren tamainaren arabera. 1. aukera baino islatu ez bada ere, beste bi aukerek ere antzeko ezaugarriak eta kokalekua dituen eremua hartzen zuten aintzat, erantsitako irudietan definitu eta islatu ez diren arren.

Dena den, gogoeta eta iradokizunak egiteko dokumentu irekia planteatzen zenez, hasiera batean planteatutako aukeren konbinazioa izan da hautatutako proposamena.

Sor daitezkeen eraginak aztertzeke eta kalkulatzeko erabiltzen diren azalera orientagarriak dira, hasiera batean planteatutako aukeren definizio-maila kontuan izanik.

##### **IV.1.1.- 1. aukera**

Aukerak gaur egungo hirigunearen inguruaren okupazio nagusiki lineala hartzen zuen aintzat. 38 etxebizitza gauzatzea proposatzen zuen, eta horietako 24 babes publikokoak izango lirateke, sestra gaineko 4.200 m<sup>2</sup>(s)-ko eraikigarritasunarekin. Hirigintza-esparru berriak, bestalde, eraginpeko lurzorua kudeatzeko gutxienezko arintasun-bermeak eskaintzen zituen.

Proposamen honek 40 plazako aparkaleku publikoko zuzkidura hartzen zuen aintzat, plazaren ondoan kokatzen diren zuzkidura-lursailen inguruan. Aparkalekua zuzenean lotuko litzakete Amezketatik hirigunera iristeko GI-2133 errepidearekin, eta, horrela, hirigunean zeharreko ibilgailuen trafikoaren eragina saihestuko litzakete.

##### **IV.1.2.- 2. aukera**

Proposamen horrek hirigunearen inguruaren mendebaldeko mazelaren zati bat okupatzen zuen, baldintza orografiko egokienak dituen mazelaren zati bat hain zuzen ere. Zati batean bat dator 1. aukerak proposatutako esparruarekin. Aukera honek 30 etxebizitza gauzatzea aurreikusten zuen, eta horietako 16 babes publikokoak izango ziren. Sestra gaineko eraikigarritasuna 3.300 m<sup>2</sup>(s)-koa izango zen.

Kasu horretan, proposatzen den aparkaleku publikoko zuzkidura txikiagoa zen, zortzi plaza berri inguru aintzat hartzen baitzituen, hirigunearen erdian kokatuak, gaur egun daudenei jarraipena emanez.

##### **IV.1.3.- 3. aukera**

Hirugarren aukerak bizitegi-eskaintza handiagoa egiten zuen eta azalera handiagoa okupatzen zuen, hau ere hirigunearen inguruaren mendebaldeko mazelan. 50 etxebizitza gauzatzea aurreikusten zuen, eta horietako 16 babes publikoko erregimenekoak izango lirateke. Sestra gaineko eraikigarritasuna 5.800 m<sup>2</sup>(s)-koa izango zen.

Aparkaleku publikoko zuzkidura aurreko proposamenekoa baino zertxobait handiagoa zen. Hirigunearen esparru zentral batean 18 aparkaleku inguru sortzea planteatzen zuen, gaur egun dauden aparkalekuei jarraipena ematen.



#### IV.1.4.- `0` aukera edo ez esku hartzekoa

Kasu honetan `0` aukera edo ez esku hartzekoa ez da aintzat hartu, Abaltzisketako udalerrian etxebizitza-beharren arloan hautemandako premiak asetzea eragotziko bailuke, baita Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren indarraldian hiri-kalitatea hobetzea ere.

Aurreko aukeretako bakar bat ere gauzatzen ez bada, bizitegi-erabilerarako eta aparkaleku publikorako proposatutako esparruak gaur egungo landa-erabilerekin mantenduko lirateke.

Plan Orokorrak lurzoru urbanizaezineko zonifikazioa ezartzen du, baita balio naturalistikoko elementuak edo zenbait arrisku naturalekiko urrakorrak diren elementuak dituzten eremuetarako berariazko erregulazioa ere. Indarrean dagoen plangintzan ez zen horrelakorik eta, hortaz, ez esku hartzea erabakitzen bada, ez da gauzatuko.

#### IV.2.- AUKEREN INPAKTURIK ADIERAZGARRIENEN DESKRIKAPEN ETA BALORAZIO GLOBALA

Ondoren, aukeretako bakoitzean aurreikusten diren jardunen ondoriozko ingurumen-baldintzatzailek eta inpakturik adierazgarrienak, positiboak zein negatiboak, adierazten dira.

IV.2.1.- Landa-lurzoruaren okupazioa	
1. aukera	<ul style="list-style-type: none"><li>Proposamena gauzatzeak landa-lurzoruko 2,2 ha okupatzea ekarriko du; horietatik 0,2 ha espazio libreen sistema orokorrera zuzenduko da.</li><li>Bizitegi-erabilerarako aurreikusten den esparruak 1,6 ha inguruko azalera okupatzen du.</li><li>Aparkalekuak (40 plaza) 0,5 ha inguruko esparrua okupatuko luke.</li><li>Bizitegi-erabilerako zona berrian (15.674 m<sup>2</sup>) etxebizitza berriak okupatuko duen lurzoruaren ratioa 412 m<sup>2</sup>/etx. izango da gutxi gorabehera.</li></ul>
2. aukera	<ul style="list-style-type: none"><li>Proposamena gauzatzeak landa-lurzoruko 1,2 ha okupatzea ekarriko du. Ia osorik zuzenduko litzateke bizitegi-erabilerara. Espazio libreen sistema orokorrera zuzendutako 0,2 ha inguruko eremua gaineratu beharko litzaioke aurrekoari.</li><li>Aparkalekuak (8 plaza) 200 m<sup>2</sup> inguruko esparrua okupatuko luke.</li><li>Bizitegi-erabilerako zona berrian (12.490 m<sup>2</sup> inguru) etxebizitza berriak okupatuko duen lurzoruaren ratioa 416 m<sup>2</sup>/etx. izango da gutxi gorabehera.</li></ul>
3. aukera	<ul style="list-style-type: none"><li>Proposamena gauzatzeak landa-lurzoruko 2,4 ha okupatzea ekarriko du; horietatik 0,2 ha espazio libreen sistema orokorrera zuzenduko da.</li><li>Bizitegi-erabilerarako aurreikusitako esparruak 2,2 ha-ko azalera okupatzen du.</li><li>Bizitegi-erabilerako zona berrian (22.345 m<sup>2</sup> inguru) etxebizitza berriak okupatuko duen lurzoruaren ratioa 447 m<sup>2</sup>/etx. izango da gutxi gorabehera.</li><li>Aparkalekuak (18 plaza) 300 m<sup>2</sup> inguruko esparrua okupatuko luke.</li></ul>



<b>IV.2.2.- Paisaia-inpaktua</b>	
1. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proposatutako esparruaren hegoaldeko muturrean maldak esparruaren gainerakoan baino handiagoak dira. Horrek, lur-higidura, ezponda eta abar gehiago egitea eskatuko du, eta horrek nolabaiteko paisaia-inpaktua sortuko du, aldi baterakoa edo iraunkorra, urbanizatzeko jardun-proiektuan aintzat hartzen diren soluzioen arabera.</li> <li>- Bizitegi-garapenak, oro har, ez du paisaia-inpaktu handirik eragingo, zabaldurak hiri-bilbean eta hirigune finkatuaren tipologia bereizgarrian duen integrazioa kontuan izanik.</li> <li>- Amezketako ikus-arroan dagoen malda handiko mazelan aurreikusten den aparkaleku-proposamenak arroko leku askotatik –Amezketatik bideratzen den errepidearen zenbait tartetatik barne– ikusiko den ezponda/harri-lubeta gauzatzea eskatuko du, eta horrek nolabaiteko eragina izan dezake hirigunearen inguruko paisaia-balio handian.</li> </ul>
2. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera horren bizitegi-garapeneko proposamena malda leunagoak dituen esparru batean gauzatuko da, eta horrek murriztu egingo du esku-hartzeak izan dezakeen ikus-inpaktua.</li> <li>- Aparkalekua hirigunean txertatuko denez gero, ez du ikus-inpaktu adierazgarririk izango. Kasu honetan, nagusi den hiri-ehunak ikus-eragina xurgatzeko ahalmen handia izango du.</li> </ul>
3. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera honek aintzat hartzen du asmo handieneko bizitegi-proposamena, eta ikus-inpaktua lehen aukeran aurreikusitakoaren antzekoa izango da, malda handiak dituen hego-mendebaldeko goi-aldearen okupazioa kontuan izanik.</li> <li>- Kasu honetan ere hiri-bilbe finkatuan kokatuko da aparkalekua. Hortaz, ikus-inpaktua oso txikia izango da.</li> </ul>

<b>IV.2.3.- Mugikortasuna eta irisgarritasuna</b>	
1. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aparkalekua hirigunearen inguruan gauzatzeak aukera emango du hirigunearen eremu zentraletako barne-trafikoa murrizteko eta bertan motorrik gabeko joan-etorrien segurtasuna hobetzeko eta ziurtatzeko.</li> </ul>
2. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aparkaleku publikoaren eskaintza berria askoz ere txikiagoa izango da. Hirigunearen bihotzean bertan kokatzeak gehitu egingo du motordunen trafikoa eremu zentraletan, eta, hala, segurtasuna murriztu egingo da motorrik gabeko joan-etorrietan (oinezkoena, txirrindulariena...). Gainera, beste ingurumen-elementu batzuen gaineko eraginak sortuko dira (ingurumen-zarata, airearen kalitatea).</li> <li>- Proposamen horrekin aurreikus daitekeenez, hirigunearen eremu zentraletako aparkalekuen ondorioz, mantendu edo gehitu egingo da ibilgailuen okupazioa oinezkoen eremuetan, gaur egun gertatzen den moduan.</li> </ul>
3. aukera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera horren proposamenak 2. aukeraren antzeko ondorioak izango lituzke, proposatutako aparkalekuaren dimentsio handiagoaren ondorioz areagotuak.</li> </ul>



### **IV.3.- HAUTATUTAKO SOLUZIOAREN JUSTIFIKAZIOA**

Arestian adierazi den moduan, deskribatutako aukeretako batzuetan planteatutako soluzioak konbinatzen dituen soluzio bat hautatu du Plan Orokorrak, '4. aukera' izendatuko duguna. Dena den, bereziki, bizitegi-garapeneko proposamenari dagokionez, '1. aukera' gisa adierazitako proposamenaren alde egiten du, aurrerapen-fasean aurkeztu zen dokumentuan hasiera batean hautatu zenaren alde, hain zuzen.



14. irudia. Hautatutako aukera.

Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren indarraldiko denbora-horizontean gehieneko bizitegi-dimentsionamendua kuantifikatzeko egindako zenbatespenaren ondorioz, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan bildutako irizpideekin bat etorritik, gehieneko bizitegi-dimentsionamendua 74 etxebizitza berrikoa da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "1.1. Hirigintza-antolamendua eta hura gauzatzea justifikatzeko memoria" dokumentuko XII.





*Etxebizitzaren arloko irizpideak, helburuak eta proposamenak* kapituluan jasotako taulan ikus daitekeen moduan. Irakurleak bertan kontsulta dezake.

Azken bost urteetan eraiki diren edo eraikitzen ari diren etxebizitzaren urteko datuek adierazten dutenez, urtean 6,4 etxebizitza eraiki dira batez beste. Dena den, zenbateko hori ez da adierazgarria, eta ezin da zuzenean aplikatu Abaltzisketako udalerrian, eraikuntzaren alorreko sustapen eta garapen sasoi berezi bati erantzuten baitio. Izan ere, aurreko aldietan oso ekimen urri jarri zen abian etxebizitzaren arloan.

Aztertutako testuinguruan, eta udalbatzarekin batera egindako datozen urteetarako etxebizitza-  
eskariaren kalkuluak kontuan hartuta, 34 etxebizitzako proposamena mantendu da, hots, urtean 3,4 etxebizitza berri.

Bizitegi-eskaintza aztertu eta zenbatetsita, egiazta daiteke udalerrian etxebizitza hutsen indizea adierazgarri samarra dela. Etxebizitza huts horiek batez ere landa-ingurunean kokatzen dira, gaur egun dauden etxebizitzaren % 67 hartzen duen esparruan. Plan Orokorra onartzen du egungo gizarte-errealitateak eta udal-kompetentziatik ia bideraezina dela etxebizitza horien okupazioa aktibatzea.

Hautatutako proposamenak bitarteko dimentsioko bizitegi-garapena aintzat hartzen du '2. Etxesoro' sektorean (aurrerapen-fasean 'Herriko Zabalgunea' zeritzon), '1. aukeran' planteatutakoa baino txikixeagoa, eta hirigune finkatuarekiko jarraipen argian. Gaur egungo hirigunearen perimetroaren okupazio nagusiki lineala hautatu da. 28 etxebizitza gauzatzea proposatu da, jatorrizko aukeran baino 10 gutxiago, sustapen librekoak guztiak. Sestra gaineko eraikigarritasuna 3.230 m<sup>2</sup>(s) izango da bizitegi-lursailen kasuan eta 280 m<sup>2</sup>(s) ekipamendu publikoko lursailetan. Okupatutako azalera 17.513 m<sup>2</sup>-tik 12.750 m<sup>2</sup>-ra murriztu da. Horietatik 2.249 m<sup>2</sup> espazio libreen tokiko sistemara zuzendu dira.

Bizitegi-garapeneko jardunaren ondorio diren inpaktuak hurrengo kapituluan aztertuko ditugu.

Bestalde, hasierako lehen onarpeneko dokumentuak hirigunearen perimetroan mantentzen zuen aparkaleku publikoen zuzkiduraren kokalekua, zehazki '3. Kilimategi' hirigintza-esparruan, 5.264 m<sup>2</sup>-ko lursailen, 32 plazako gutxi gorabeherako dimentsionamenduetarekin.

Behin betiko dokumentuak baztertu egin du azkenean proposamen hori, aurrerapen-fasean parte hartzeko prozesuan hainbat iradokizunen xede izan zena. Udalbatza berriak komenigarri iritzi dio jardun hori ezabatzeari.

Aldaketa hori egiteko arrazoibideak hauek izan dira:

- Deskribatutakoa bezalako hirigintza-jardun batek udal-aurrekontuan izango lukeen oihartzun ekonomiko handia, eta plana garatuko bide den aldi bideraezintasun ekonomiko jakin eta nabarmenaren aurreikuspena.
- Justifikazio horrekin batera, halaber, hiri-ingurunearen multzoan aurreikusitako aparkaleku-zuzkidura nahikoa izan daitekeela pentsatu da.
- Horrez gain, hirigintzaren ikuspuntutik egin daitekeen neurrian, Kilimategiri dagokion lurzoruari sor lekiokoen paisaia- eta ingurumen-inpaktua saihestu nahi da hasierako planean eta behin-behinean onartutakoan aurreikusitako terminoetan.

Horrenbestez, behin betiko soluzioak ezabatu egin du hirigintza-esparru hori eta berriz integratu du udalerriko lurzoru urbanizaezinean, zehazkiago, esparrua inguratzen duen landa-lurraldearen multzoan.



## V.- INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Kapitulu honetan identifikatzen eta baloratzen dira Abaltzisketako Plan Orokorreko proiektuaren ondoriozko ingurumen-inpakturik adierazgarrienak.

### V.1.- PLANAREN HELBURUEK INGURUMENAREN GAINEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA

Plan Orokorren helburu nagusiak dokumentu honen *1.2. Planaren helburu estrategikoak* atalean adierazi dira. Dokumentuak ezarritako irizpide orokorraren arabera, uztartu egin nahi dira bizitegi-garapenen, espazio libreen eta ekipamenduen beharrak eta garapen iraunkorreko proposamenak. Dokumentuak baliabideen erabilera arrazionalizatzearen alde egiten du, baita narriatutako elementuak erregularizatzearen eta ingurumen- eta paisaia-balioak errespetatzearen eta sustatzearen alde ere.

Irizpide orokor horri jarraituz, ingurumenean eragin positiboa izan dezakeen esparru orokorra ezarriko da. Edonola ere, horien ondoriozko proposamenen analisisan sakondu beharko da. Hurrengo ataletan egingo dugu hori.

### V.2.- PLANAREN JARDUNEK INGURUMENEAN IZAN DITZAKETEN ERAGINAK IDENTIFIKATZEA ETA BALORATZEA

#### V.2.1.- Plana baino goragoko maila hierarkikoetan Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren mende dauden jardunak eta eraginak identifikatzea

Toloserriko Lurraldearen Zatiko Planaren espedienteak –Aurrerapen-fasean dago– ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana du.

Dagokion atalean aditzera eman zen moduan, Lurraldearen Zatiko Planak honako esku-hartze nagusi hauek proposatzen ditu Abaltzisketako udalerrirako:

- Balio naturalistiko handieneko eremuak babestea (Aralar, bertako landarediko basoak...).
- Gaur egun dauden zuzkiduren eta azpiegituren mailara eta biztanle kopurura egokitzen diren dentsitate eta intentsitate txikiko hazkundeak sustatzea.
- 'Lurralderako sarreraguneetako ekipamendu bereziak' deritzan ekipamendu-eragiketak gauzatzea, lurraldearen balioekin lotzen diren kulturaren, ingurumenaren eta aisialdiaren arloko jardueren euskarri gisa.

Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioko dokumentuak honako ondorioak atera ditu egindako analisisan aurreikusten diren inpaktuei dagokienez:

- Planteatutako irizpideen, helburuen eta estrategien ondorioz, Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen dituen jardunen ondoriozko inpaktuetako askok eragin positiboa dute ingurune naturalean edo hiri-ingurunean. Zirkunstantzia hori bereziki agerikoa da lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan eta gaur egun dauden ehunak eraldatzea eta birsortzea helburu duten ekintzetan –ehunak hobetzea eta balioz hornitzea ekarriko dute ekintza horiek–.
- Inpaktu negatiboak bat datoz, oro har, bizitegi, zuzkidura edo ekonomia-jardueren garapenerako edo azpiegiturarako lurzoru berriak kalifikatzea helburu duten ekintzekin.



- Lurraldearen Zatiko Planak planteatzen dituen ekintzetako bakar batek ere ez du eraginik sortzen eremu babestuetan eta/edo ingurumen arloan sentikorak diretan (eremu funtzionaleko espazio natural babestuetan, Natura 2000 sarekoetan, interes naturalistikoko eremuetan eta beste enklabe interesgarri batzuetan), betiere eremu horiek aisialdirako eremu gisa erabiltzeko aukeraz harantzago (antolamendu-planek arautzen dute alderdi hori).
- Eremu funtzionalean kokatzen diren ekosistema bereziak, bestalde, babestu, hobetu eta/edo lehengoratu beharreko eremuen barruan sartzen dira, eta aurreko kasuan bezalaxe ez daude Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen dituen jardunen eraginpean. Aurrerapenaren ezagutza-mailan, gauza bera esan daiteke habitat faunistikoen alorrean eta interes zientifiko handieneko flora biltzen duten komunitate botanikoen alorrean zein kultura-ondarearen alorrean.
- Era berean, jakinarazi behar da Lurraldearen Zatiko Planak planteatzen dituen garapen berriko ekintzetako batzuek eragina dutela balio agrologiko handiko nekazaritza-lurzoruen gainean (Adunako ibarrean jarduera ekonomikoetarako beste lurzoru batzuek, Villabona-Anoeta ardatzeko garapen mistoek eta Ibarako bizitegi-garapenek); alabaina, lurzoru horien okupazioa estrategikoa da gizarte eta ekonomia arloko beste helburu batzuk lortzeko eta jada azaldutako beharrezko hiri-egituraketarako. Kasu honetan, Lurraldearen Zatiko Planak okupazio horren eraginak arintzen lagunduko duten neurri konpentsatzaileak hartzea proposatzen du.
- Azkenik, Lurraldearen Zatiko Planean aurreikusten den jardunetako bakar batek ere ez du, hasiera batean, eragin kritikorik izango.

### **V.2.2.- Planaren jardunetarako inaktuak identifikatzea eta iragartzea**

Honakoak dira izan dezaketen ingurumen-inaktuaren arabera aztertutako jardunak:

- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua (zonifikazioa, baldintzatzaile gainjarriak, araudia).
- '2. Etxesoro' hirigintza-esparruko bizitegi- eta zuzkidura-garapena.
- Paisaia-ibilbide bereziak.

#### V.2.2.1.- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua

Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazio-proposamena kontuan izanik, eta bertan baldintzatzaile gainjarri batzuk barne hartzearen ondorioz –espedientearen II.1.2. Zonifikazio globala eta III.1. Baldintzatzaile gainjarriak planoetan islatzen direnak eta '1.1. Hirigintza-antolamendua eta hura gauzatzea justifikatzeko memoria' dokumentuaren 'XVIII. Ingurune naturaleko irizpideak, helburuak eta proposamenak' eta 'XX. Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak' ataletan deskribatzen direnak–, honako ingurumen-eragin positibo hauek ondorioztatzen dira:

- Udalerrian kokatzen diren espazio natural babestuak eta interes naturalistikoko beste eremu batzuk benetan babesten direla ziurtatzen da (Aralarko Parke Naturala eta Garrantzi Komunitarioko Lekua).
- Udalerriaren gainerakoan hedatzen den interes bereziko landaredia, espazio babestuen sarean sartu ez dena, mantentzea eta/edo hobetzea ziurtatzen da. Zehazki, harizti/baso misto atlantikoko 21 orban (126 ha), hostozabal gazteen basoen eta palaxuen 21 orban (11,6 ha) eta haltzadien 4 orban (15,3 ha) mugatu dira.



- Ibai-sarearen kontserbazioa eta hobekuntza sustatzen da, kategoria espezifikotzat hartzen baita (26,3 ha) eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenekin bat etorritz arautzen baita.
- Udalerriri dagokion korridore ekologikoen sarearen proposamenaren mugaketak, irizpideak eta helburuak jasotzen ditu.
- Interes handieneko habitat faunistikoak babesten dira, bereiziki desagertzeko arriskuan dauden espezieentzat interes berezia dutenak (desman piriniotarraren interes bereziko eremua).
- Ondare kulturala, arkitektonikoa, arkeologikoa eta etnografikoa babesten da (monumentuak, ustezko gune arkeologikoak, gune megalitikoak, intereseko elementu etnografikoak). Elementu horiek guztiak Hirigintza Ondarearen Katalogoan jasotzen dira.
- Balio agrologiko handieneko lurzoruetarako babesak ezartzen da: zona berriak mugatzen dira baldintzatzaile horren pean (zazpi zona, 19,2 ha guztira, 'C.2.1. Balio estrategiko handiko lurzuak' baldintzatzaile gainjarriaren pean), Etxesoren proposatutako hiri-garapenak (0,3 ha) eraginpean hartutako azalera txikiak handitu eta konpentsatzen dituztenak. Zona horiek ezartzeko EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onarpen-dokumentuan definitutako balio estrategiko handiko eremuak hartu dira oinarri, errealitate fisikora egokitu dira (fotointerpretazioa eta landa-egiaztapena) eta zehaztasun kartografiko handiagoa eman zaie (eskala handiagoa). EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean 'balio estrategiko handiko eremu' gisa definitutakoetatik kanpo utzi dira 'D.1.3. Babes bereziko landa-zona - Larraitzen babesak' zonakoak direnak, haien zonifikazio xehatua berariazko Plan Berezi batera igortzen baita. Aralarko Parke Naturalaren esparruan identifikatutako balio agrologiko handiko zonak ez dira grafiatu, espazio naturaleko Baliabide Naturalak Antolatzeke Planaren mende baitago hiri-plangintza.
- Udalerrira egituratzen duen muinoaren leku garaietan kokatutako urrakortasun handiko esparruen paisaia-babesa aintzat hartzen da (lau esparru, 26,7 ha guztira). Horretarako, ikus-kalitatean eragina izan dezaketen erabilerak eta jarduerak mugatuko dira esparru horietan.
- Arrisku naturaleko urrakorrak diren eremuak babesten dira (akuiferoen poluzioa).

Plan Orokorrak, bestalde, hirigintza-arau orokorren bidez arautzen du lurzoru urbanizaezinean hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamenduak ezartzeko aukera, baina ez da inolako jardunik zehaztera iristen. Arautzea generikoa denez, nekez ebalua eta identifika daitezke ingurunearen gainean izan litezkeen eraginak.

Nolanahi ere, Plan Orokorrak lehentasuna ematen dio erabilera horiek lehendik dauden eraikuntzetan eta baldintza jakin batzuetan ezartzeari (hirigintza-arau orokorren 67. artikulua), horrela Abaltzisketako landa-eremuak kontrolik gabe eta neurritz kanpo okupatzea saihestu ahal izango baita. Plan Orokorrak, gainera, nahitaezkoztat jotzen du alde aurretik Plan Berezi bat lantzea, ekipamenduek eta hirugarren sektoreko erabilerak (baita komunikazio-azpiegitura eta hiri-zerbitzuen azpiegitura berrietan ere) eraikuntza eta instalazio berriak eraiki beharra ekartzen dutenean.

Azken kasu horretan, plan berezi horiek ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren mende daudenez gero, proposamen espezifikoez izan litzaketen inpaktuak identifikatu ahal izateko esparrua izango dira.



V.2.2.1. TAULA.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZEAREN ONDORIOZKO INGURUMEN INPAKTUAK EZAUGARRITZEKO ETA BALORATZEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIA														OBRETAN		USTIAPENEAN					
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENEKOA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	BEHIN BETIKOA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAKORRA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	LEHENGORAGARRIA	LEHENGORAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILEAK	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA	
Ingurumen-arloan sentikorrek diren zonak	Ingurumenaren arloan sentikorrek diren zonen gaineko eragina	+			+		+			+		+										+	
Baliabide naturalistikoak	Intereseko habitaten gaineko eragina	+			+		+			+	+											+	
	Intereseko faunaren gaineko eragina	+			+		+			+	+											+	
Paisaia-baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	+			+		+			+		+										+	
Hondakinak eta poluzioaren gehikuntza	Poluzio atmosferikoa	+			+		+			+		+										+	
	Uren poluzioa	+			+		+			+		+										+	
Ingurune sozioekonomikoa	Aisialdiko aukeren gehikuntza	+			+		+			+	+											+	
	Nekazaritza-ustiategien gaineko eragina	+			+		+			+	+											+	
Produktibitate ekologikoa eta nekazaritzaren arlokoa	Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera	+			+		+			+	+											+	
Ondoriozko arriskuak	Poluituta egon daitezkeen lurzoruen gaineko eragina	+			+		+			+	+											+	
	Akuiferoen poluzioa	+			+		+			+		+										+	
	Higaduraren gehikuntza	+			+		+			+		+										+	



### V.2.2.2.- '2. Etxesoro' hirigintza-esparruko bizitegi- eta zuzkidura-garapena

#### **Baliabide naturalistikoen galera**

Proposamenak landa-lurzoruko 1,05 ha inguru okupatzea eta artifizializatzea ekarriko du (jardun-esparru osoak 12.750 m<sup>2</sup> ditu, eta horietatik 2.249 m<sup>2</sup> espazio libreen tokiko sistemara zuzentzen dira). Gaur egun gehienbat abeltzaintzarako erabiltzen da (larreak), eta 500 m<sup>2</sup> inguruko eremu txiki bat baratze gisa. Esparruaren gainerakoa eremu urbanizatuei dagokie (tokiko bideak).

Esku hartzeko eremuaren osotasunetik 0,22 ha (2.249 m<sup>2</sup>) espazio libreen tokiko sistemara zuzenduko da, eta horren behin betiko artifizializazio-maila espazioaren behin betiko diseinuaren arabera izango da.

Esparruan zehar '6510. Altuera txikiko sega-larre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)' interes komunitarioko habitata hedatzen da. Habitat horrek 310,6 ha-ko azalera du udalerrian. Hortaz, jardunak udalerrian dagoen 6510 habitataren azalaren % 0,37 inguru hartuko luke eraginpean.

Esparruan ez da intereseko zuhaitz-landaredirik identifikatu, eta jardunak ez du intereseko habitatak zatikatzea eragingo.

#### **Ingurumenaren arloan sentikorrek diren zonen gaineko eragina**

Esparruan ez da ingurumenaren arloan sentikorra den zonarik identifikatu.

#### **Baliabide estetikoaren eta kulturalen gaineko eragina**

Jarduna paisaia-balio handiko esparru batean egingo litzateke, ikus eta paisajistikoki nabarmena den kokaleku batean.



Bizitegi-garapenerako aurreikusten den eremua gaur egungo hirigunearen inguruan kokatuko da, dimentsio txikiko hiri-eremu batean integratzea kontuan hartuko duen esparru baten barruan, betiere baserri sakabanatuen inguruan garatzen diren nekazaritza-osagaiak nagusi diren zona zabal batean. Eremu gizatiartua da, ikus-urrakortasun handikoa (ikus-arro handikoa eta muinoan eta mazelan kokatzen dena) eta neurrizko xurgatze-ahalmena duena, aurretik dauden hiri-osagai jarraipena ematen dien aldetik.

Aurretik dauden etxebizitzaren antzeko ezaugarriak izango dituen etxebizitza-tipologiako eta hedadura murrizteko bizitegi-garapenerako proposamena izanik, ez du paisaia-inpaktu



adierazgarrikerik eragingo. Magnitude handieneko inpaktuak obra-fasean gertatuko dira, makineria astunarekin lan egitearen eta egin beharreko lur-higiduren ondorioz.

### **Hondakinen sorrera eta poluzioaren gehikuntza**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aurreikusten dituen eraikuntzako eta urbanizazioko obrek baliabideen (energiaren eta materialen) kontsumoa gehitzea eragingo dute. Era berean, etxebizitza berrien eraikuntzak udalerriko biztanleria gehitzea ekarriko duenez gero, baliabideen kontsumo orokorrek gora egingo duela aurreikus daiteke. Gehikuntza hori jasagarria izango da, proposatzen den hazkundera mugatua eta munta txikikoa izango baita.

Biztanleen kopurua gehitzeak, bestalde, udalerrian hondakin gehiago sortzea eragingo du (batez ere hiri-hondakin solidoak eta hondakin-urak). Edonola ere, dagozkien zerbitzu mankomunatuak hartuko dituzte beren gain hondakin horiek. Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura honetan alderdi hori nahitaezkoa dela gogorarazi behar da.

Obra-fasean urbanizazioko eta eraikuntzako jardunen ondoriozko hondakinak ere sortuko dira, baita obrako makineriaren funtzionamenduaren ondoriozkoak ere (olioak, mundrunak...), eta hondakin horiek ere behar bezala tratatu beharko dira.

### **Giza osasunaren eta hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina**

Obra-fasean gisa horretako jardunen ohiko inpaktuak sortuko dira (zaratak, bibrazioak, hautsa, hondakinak...); alabaina, aldi baterakoak baino ez dira izango.

### **Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera eta nekazaritza-ustategien gaineko eragin-maila**

Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (behin-behineko onarpeneko dokumentua) jardun honetarako aurreikusitako azaleraren % 30 jotzen du 'balio estrategiko handikotzat', hau da, 0,38 ha. Adierazitako Lurraldearen Arloko Planak kategoria horren barruan Abaltzisketako udalerrian ezaugarritutako zonen % 1,6 besterik ez da esparru hori (24 ha); hortaz, eragin onargarritzat jo da.

Nolanahi ere, zehaztasun bat egin beharra dago. Lurraldearen Arloko Planak hala ezaugarritutako lurzoru horietako batzuek (0,10 ha gutxi gorabehera) % 25 inguruko maldak dituzte, eta hori ez dator bat mota horretako lurzoruetatik espero diren ezaugarriekin. Ziur aski, adierazitako kartografia eskala txikiagoan landu izanaren ondorio da, aurreko atalean adierazi den moduan.

Eraginpean dauden bost lursail partikularrak (mugatutako esparruaren % 86) gaur egun belardi gisa erabiltzen dira, baratze gisa erabiltzen den 500 m<sup>2</sup>-ko eremu txiki bat izan ezik.

Lursaila	Katastro-erreferentzia	Azalera (m <sup>2</sup> <sub>(1)</sub> )	%
7	03039a	1.322	10,37
8	03042a	1.717	13,46
10	03059a	673	5,28
11	03060a	7.804	61,21
12	03254a	732	1,13
'2. Etxesoro' hirigintza-esparrua guztira		12.750	100,00



### **Kultura-ondarearen galera**

Ez da kultura-ondarearen gaineko inolako eraginik identifikatu.

### **Mugaz gaindiko balizko eraginak**

Aztertutako jardunek ez dute eraginik sortuko mugaz gaindi.

### **Eragindako arriskuen analisisia**

Eusko Jaurlaritzaren GESPLAN aplikazioak 'onargarrizat' jo ditu aztertutako esparruen baldintza geoteknikoak. Edonola ere, eta jardunaren mende dauden lursailen maldak kontuan izanik -% 20 ingurukoak, eta gunek jakin batzuetan % 25etik gorakoak-, urbanizazio-proiektuak arlo horretako azterlan xehatuagoa gaineratu beharko du.

Ez da jatorri naturaleko edo antropikoko beste mota bateko arriskurik identifikatu.





V.2.2.2. TAULA.- '2. ETXESORO' HIRIGINTZA ESPARRUKO BIZITEGI ETA ZUZKIDURA GARAPENAREN INGURUMEN INPAKTUAK EZAUGARRITZEKO ETA BALORATZEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIA														OBRETAN		USTIAPENEAN					
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENEKOA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	BEHIN BETIKOA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAKORRA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	LEHENGORAGARRIA	LEHENGORAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILEAK	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA	
Ingurumen-arloan sentikorrek diren zonak	Ingurumenaren arloan sentikorrek diren zonen gaineko eragina																						
Baliabide naturalistikoak	Intereseko habitaten gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X			Bat.		Bat.		
	Lurzoruaren artifizializazioa		X	X			X	X			X			X		X			Neu.		Neu.		
Paisaia-baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X	X		Neu.	Bat.			
Hondakinak eta poluzioaren gehikuntza	Hondakinen sorrera		X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.	Bat.		
	Poluzio atmosferikoa		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.	Bat.	
	Uren poluzioa		X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.	Bat.		
Hiri-ingurumena	Jasandako poluzio akustikoa		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.		
	Bibrazioen sorrera		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.		
	Usainaren eta hautsaren sorrera		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.		
	Trafiko motordunaren gehikuntza		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.		
Ingurune sozioekonomikoa	Aisialdiko aukeren gehikuntza	+			+		+			+	+											+	
	Nekazaritza-ustategien gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X			Neu.				
Produktibitate ekologikoa eta nekazaritzaren arlokoa	Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera		X	X			X	X			X			X		X			Neu.		Neu.		
Ondoriozko arriskuak	Arrisku geoteknikoak		X	X		X		X			X			X		X		X		Neu.	Bat.		




**V.2.2.3.- Paisaia-ibilbide bereziak**

Plan Orokorrek paisaia-ibilbide berezien sare bat gehitzen dio komunikazio-azpiegituren eskemari. Espedientearen IV.1. planoan kontsulta daiteke sare hori.

Sarean era askotako elementuak sartzen dira: egun dauden bideak eta bidezidorrak, bat edo beste sortu berria (Larraitz-Abaltzisketa); oinezkoen ibilbide gisa edo ibilgailuekin batera erabili diren bidezidor edo pisten tarteak; eta, haran-hondoaren (Ibiurko urtegia) eta Abaltzisketa eta Larraitz guneen arteko loturak osatzen dituzten ibilbideen proposamen berriak.

Ibiurko urtegiaren eraikuntzak aldatu egin ditu bidezidorrak eta Abaltzisketa eta Ibiur haraneko beste udalerrri batzuen (Baliarrain, Gaintza, Orendain) arteko loturak. 2007. urtean, Lur Paisajistak SL enpresak, 'Tolosaldea Garatzen' garapen-agentziaren mandatuz, Ibiurko urtegiako ibilbideak egiteko eta paisaia lehengoratzeko proiektua landu zuen. Ibilbide horietako batzuk Abaltzisketako udalerrian zehar igarotzen dira eta horien trazadura Plan Orokorrean jaso da.

Zehazki, Planari gehitu zaion jardun-proposamena Ibiurko presaren inguruan ibilbide bat sortzean eta bide zirkular hori Larraitz gunearekin konektatzean datza. Oinezkoen komunikazioko azpiegituren sarean jasotako gainerako bideak, bidezidorrak eta pistak gaur egun daudenak dira.



	Egun dauden bideak		Ibiur-Larraitz bidezidorra		Ibiur inguruko bidea
	Udalerrriaren muga		Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria		

15. irudia. Paisaia-ibilbide bereziak  
 Iturria: Abaltzisketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. EKOLURek landua.



Proiektua bi gauzatze-unitatetan zatitzen da: bata presaren inguruko bideari dagokio, eta, bestea, Larraitzerako bideari.

1. Mantentze-ibilbide bat sortuko da itsas mailaren gaineko +175,00 kotan, 7 km-ko luzerakoa. Luzera horretatik 430 m Abaltzisketako udalerrian daude. Presaren gehieneko ur-maila baino 5 m goragoko kotan dago bidea. Aurreikusitako jardunak hauek dira:
  - a. Uraren gehieneko mailaren eta bide periferikoaren artean dagoen zuhaitzia mantentzea.
  - b. Zuhaitz autoktonoak eta hosto zabalekoak landatzea bidearen bi ertzetan.
  - c. Lur-erazketen eta lubeten ezpondak hidroereitea.
  - d. Bide bazterrean aldi baterako putzuak sortzea. Horietariko bi udalerrian kokatzen dira.
  - e. Basoko hegaztien habitatak indartzeko jardunak: habiak trinkoki kokatzea, eta urteko hainbat sasoitan fruituak emango dituzten zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea.
  - f. Sei putzu iragazgaitz sortzea, bakar bat ere ez Abaltzisketan, itsas mailaren gaineko +169,00 kotan eta ibarbideen sarrera guztietan, zingirako landaredia lehengoratzeko.
  - g. Bide-zorua hobetzea, sumilarekin trinkotutako kareharrizko enkatxoaren bidez.
  - h. Egonlekua Larraitzeko bidezidorrarekiko lotunean, Abaltzisketako udalerrian.
2. Ibiurko urtegiaren atzealdetik abiatuta, eta egun dauden mendiko pisten trazadurari zati batean jarraituz, urtegia Larraitz gunearekin lotzen duen bide berri bat sortzen da. Bideak 4 km ditu gutxi gorabehera; 3,1 km udalerrian zehar igarotzen dira. Malda leuneko bidea da, eta Ibiur erreka-erakiko paralelo egiten du ibilbidearen zatirik handiena. Bideak hainbat aldiz zeharkatzen du erreka. Proposatutako jardun nagusiak hauek dira:
  - a. Ibilbide osoak jarraitutasuna izan dezan, pista-tarte berriak ireki behar dira lehendik daudenak lotzeko. Aurreproiektuak 1.000 m-ko luzera zenbatu du gutxi gorabehera. Bidean dagoen sastraka kendu beharko da, eta bidearen oinarria hondeatu, 30 cm-ko lodierako zabor-legarrezko azpoinarria sortzeko.
  - b. Zurezko hiru zubi sortzea (8 m-ko luzerako bi eta 10 m-ko luzerako beste bat).
  - c. Bide-zorua eta drainatzea hobetzea, bide-zorua trinkotutako kareharrizko enkatxo-geruzarekin homogeneizatuz eta drainatze-hodiz hornitutako pasagune lurperatuak ezarriz.
  - d. Babeslekuz hornitutako pasabideak sortzea finken artean igarotzeko, abereak igarotzea eragozten duten itxiturak ireki behar izan gabe.
  - e. Zurezko seinaleak kokatzea ibilbidearen berri emateko (18 unitate).

### **Baliabide naturalistikoaren galera**

Ibiurko urtegiaren inguruko bidezidorrak/bideak ez dakar eraginik lehendik dagoen landarediaren gainean. Aitzitik, proiektuan proposatutako neurriak hartzeak urtegiaren eraikuntzak eraginpean hartutako habitatak lehengoratzeko ekarriko du (baso mistoa, zingirako landaredia, eta abar).

Ibiur-Larraitz bidezidorraren kasuan, tarte jakin batzuk irekitzeak eragin puntualak izan ditzake nagusiki Ibiur erreka-erakaren hondoan kokatutako harizti/baso mistoen gainean edo formazio horren ale bereizgarrien gainean. Gogoan izan behar da erreka-erakaren tarte hori intereseko eremuen artean dagoela korridore ekologikoen sarearen proposamenean.



### **Ingurumenaren arloan sentikorrek diren zonen gaineko eragina**

Bi bidezidorrak, trazaduren zati batean, jabari publiko hidraulikotik edo haren babes-zortasuneko zonatik igarotzen dira. Ibiur-Larraitz bidezidorrak, bestalde, zurezko hiru zubi egitea eskatzen du. Zubi horien zapatak, hormigoiz eraikiak, aipatutako jabari publiko hidraulikoan kokatuko dira.

### **Baliabide estetikoaren eta kulturalen gaineko eragina**

Ibiurko urtegiaren inguruko bidea ibilbideen proiektuaren arabera "*paisaia-balio ikaragarria*" duen inguru batean garatuko da. "*Ibilbidetik sortuko diren ikuspegiak ur-azal horizontala izango dute lehen planoan, eta atzealdean, askotariko baso-masak han-hemenka, eta atzerago gailurrak (...)*". Proiektuan aurreikusitako jardunek paisaia-balio hori kontuan hartzen dute eta ezaugarri horiek kontserbatzera eta hobetzera bideratzen dira.

Ibiur-Larraitz bidezidorra haranaren hondotik igarotzen da zatirik handienez, ikuspen urriko zona batean zehar. Inguru hori estaltzen duen landaredi hostotsuak ezkutatuta garatuko da bidea. Ikuspena handitu egiten da mazela erdian, zuhaitz-landaredirik ez duten belardi eta larreetan zehar igarotzean. Nolanahi ere, eragina txikia izango da, proiektuaren magnitudea eta ezaugarriak kontuan hartuta.

### **Hondakinen sorrera eta poluzioaren gehikuntza**

Proiektuak aurreikusten duenez, hondeaketan sortzen diren lurrak tokian bertan pilatu eta hedatuko dira. Beraz, ez da jardunaz kanpoko soberakinik sortuko.

Obra-fasean hondakinak sortuko dira, jatorria proiektuan aurreikusitako jardun batzuetan (sastraka kentzearen hondarrak) eta obrako makineriaren funtzionamenduan (olioak, mundrunak...) izango dutenak, eta tratamendu egokia eman beharko zaie.

### **Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera eta nekazaritza-ustategien gaineko eragin-maila**

Ibiur-Larraitz bidezidorraren tarte sortu berriek eraginpean hartutako esparruaren egungo erabilera, ibilbidearen zati batean (1.700 m gutxi gorabehera), baso-erabilerako lursailen eta sega-belardien artean banatzen da. Proiektuak, lehen hurbilketa batean, SIGPAC sisteman datu hauekin identifikatutako lursailak hartuko lituzke eraginpean: 1. poligonoa (67, 68 eta 69 lursailak), 3. poligonoa (108, 109, 113, 116, 118, 120, 123, 134, 135, 151, 259, 260 eta 261 lursailak). Udalerriatik igarotzen den trazaduraren gainerakoa (1.400 m) gaur egun dauden pistetatik igarotzen da eta ez da inolako eraginik aurreikusten.

### **Kultura-ondarearen galera**

Ez da kultura-ondarearen gaineko inolako eraginik identifikatu.

### **Giza osasunaren eta hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina**

Obra-fasean gisa horretako jardunen ohiko inpaktuak sortuko dira (zaratak, bibrazioak, hautsa, hondakinak...); alabaina, aldi baterakoak baino ez dira izango.

Proiektuak aurreikusten du Ibiur inguruan erraz ibiltzeko moduko paisaia-ibilbide bat sortzea, ia laua, balio handiko paisaia izan dezakeena. Izan ere, oso erakargarria izan daiteke aisialdirako eta atsedenaldirako (mendi-ibiliak). Bestalde, urtegia Larraitz gunearekin lotzen duen bidezidorrak areagotu egiten du aisialdi-eskaintza udalerrian, bi puntuon artean ibilbide eroso eta itzaltsua sortuz.

Bi kasuetan, eskualde-esparrura eta inguruetara hedatzen dira naturaren eta paisaiaren ikuspuntutik gutzitza pribilegiatua den ingurune batez gozatzeko aukerak.



### **Eragindako arriskuen analisisia**

Tarte batzuetan malda handien gainean jardungo denez gero, behin betiko proiektuak lurraren ezaugarri geoteknikoei buruzko azterketa zehatzagoa jaso beharko du, sastraka kentzeko eta hondeatzeko lanak hasi aurretik.

Esparru horretan ez da jatorri naturaleko edo antropikoko beste mota bateko arriskurik identifikatu.



V.2.2.3. TAULA.- PAISAIA IBILBIDE BEREZIEN INGURUMEN INPAKTUAK EZAUGARRITZEKO ETA BALORATZEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIA														OBRETAN		USTIAPENEAN				
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENEKOA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	BEHIN BETIKOA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAKORRA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	LEHENGORAGARRIA	LEHENGORAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILEAK	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILERIK GABEA	NEURRI BABESLEAK ETA ZUZENTZAILEAK DITUENA
Ingurumen-arloan sentikorrek diren zonak	Ingurumenaren arloan sentikorrek diren zonen gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X		X	Neu.	Bat.		
Baliabide naturalistikoak	Intereseko habitaten gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X		X	Neu.	Bat.	Bat.	
	Lurzoruaren artifizializazioa		X	X			X	X			X			X		X		X	Bat.		Bat.	
Paisaia-baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X		X	Neu.	Bat.	Bat.	
Hondakinak eta poluzioaren gehikuntza	Hondakinen sorrera		X	X		X		X			X			X		X		X	Neu.	Bat.		
	Poluzio atmosferikoa		X	X		X		X			X			X		X		X	Bat.			
	Uren poluzioa		X	X		X		X			X			X		X		X	Neu.	Bat.		
Hiri-ingurumena	Jasandako poluzio akustikoa		X	X		X		X			X			X		X		X	Bat.			
	Bibrazioen sorrera		X	X		X		X			X			X		X		X	Bat.			
	Usainaren eta hautsaren sorrera		X	X		X		X			X			X		X		X	Bat.			
	Trafiko motordunaren gehikuntza																				+	
Ingurune sozioekonomikoa	Nekazaritza-ustiategien gaineko eragina		X	X			X	X			X			X		X		X	Bat.			
Produktibitate ekologikoa eta nekazaritzaren arlokoa	Produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera		X	X			X	X			X			X		X		X	Bat.		Bat.	
Ondoriozko arriskuak	Arrisku geoteknikoak		X	X		X		X			X			X		X		X	Neu.	Bat.		



### **V.3.- INGURUMEN INPAKTUA ZEHAZTEKO ZAILTASUNEN ETA ZIURGABETASUNEN DESKRIBAPENA**

Analisia egiteko beharrezko informazio osoa oraindik eskura ez dagoenez gero, behar bezala ebaluatu ezin izan diren alderdiak daude.

Garapen-plangintzaren ondorengo izapideetan egin beharreko azterketa sakonagoaren zain geratuko dira guztiak, ingurumen-ebaluazioko prozeduretako edozein (baterako ebaluazioa, bana-banakoa edo sinplifikatua) nahitaez bete behar duten kasuetan, lurzoru urbanizaezineko ekipamenduen edo hirugarren sektoreko erabileren kokalekuak identifikatuko dituzten plan bereziak identifikatzen direnean.

### **V.4.- SORTUKO ZUTEN INPAKTU LARRIAGATIK ALDATU EDO EZABATU DIREN PLANAREN JARDUNAK**

Aurreko kapituluetan aipatu den moduan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzeko hasierako faseetan kontuan izan diren aukeretatik abiatuta sortu dira Plan Orokorraren proposamenak. Ildo horretan, dokumentua lantzeko prozesuan zehar proposamenak aldatu egin dira, garapen-esparruen harrera-ahalmenera ahalik eta gehien egokitzeotan, bizitegi-garapen nagusiaren kasuan egin den bezala ('2. Etxesoro' hirigintza-esparrua). Edonola ere, ez da inolako jardunik ezabatu inpaktu larria sortzeagatik.

### **V.5.- ESPARRUAREN HARRERA AHALMENA**

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen 15. artikulua eta lurzoriari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean, premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua adierazten dutenez, prozesuan zehar honako txostenak egin behar dira:

- Administrazio hidrologiko eskudunaren txostena, planaren esparruko hornidura-eskari berriak asetzeko beharrezkoak diren baliabide hidrikoei buruzkoa. Jabari publiko hidraulikoaren babesari buruzko txostena.
- Hornidura-sistemari dagokionez, Abaltzisketako Udalak eskatu dio Gipuzkoako Ur Kontsoltzioari (Gipuzkoako Urak), sistema kudeatzen duen enpresari, Plan Orokorrean programatutako jardunak gauzatu ondoren aurreikus daitekeen kontsumo-gehikuntzari erantzuteko baliabide hidrikorik baden ebaluatzeko. Erakundeak 2012ko urriaren 10ean egindako txostenak adierazten duenez, aurreikuspenen arabera biztanleriaren gehikuntza 93 biztanlekoa (34 etxebizitza) izango dela eta egungo kontsumoa urteko 21.486 m<sup>3</sup>-koa dela kontuan izanik, kontsumo-gehikuntza 6.323 m<sup>3</sup> ingurukoa izango dela ebaluatu da. Abaltzisketa urtean 3.500.000 m<sup>3</sup> banatzen dituen 'Arriaran' sistematik hornitzen denez, Kontsoltzioaren iritziz eskariaren gehikuntzari aurre egiteko behar adina berme dago.
- Bestalde, Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena eman du (2012-10-03). Bertan adierazten duenez, "*jabari publiko hidraulikoa edo haren zortasun- edo polizia-zonak eraginpean hartzen dituzten jardun guztiek eta sor litezkeen ibilguetarako isurketek administrazio hidraulikoaren alde aurreko baimena lortu behar dute, Uraren Euskal Agentzia honen Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan izapidetu behar dene*".



- Errepideen arloan eta aurretik dauden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioen txostena, planaren aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa. Txosten horrek hirigintza-jardunak azpiegitura horien zerbitzu-ahalmenaren gainean izango duen eragina aztertzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturretako zuzendari nagusiak eman du txosten hori, eta aldekoa izan da (2012-11-26).

Halaber, 105/2008 Dekretuak eta Estatuko lurzoruari buruzko Legeak ezartzen dutenez, txosten horiek erabakigarriak izango dira ingurumen-memoriarako (ingurumen-organoak idatzi behar duen ingurumen-inpaktuari buruzko txostena). Espresuki arrazoituta soilik ez da bat etorriko txosten horiekin.

### V.5.1.- Saneamendu-sarea

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak (Gipuzkoako Urak, SA) saneamendu-sistema ere kudeatzen du. Duela gutxi arte udalerrriak ez zuen hondakin-urak arazteko sistemarik, ez bizitegi-jatorrikoak arazteko, ez nekazaritzan sortutakoak arazteko. Zehazki, hiri-izaerako ia hondakin-ur guztiak Ibiur errekaen ibarbiderantz isurtzen ziren.

2009ko maiatzean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak Abaltzisketako eta Gaintzako saneamendu-proiektuaren obrak kontratatzea onartu zuen. Obrak gauzatu daude jada, eta bat egin dute Adunako Hondakin Uren Araztegiaren saneamendu-sistemarekin.

Araztegiak 19 udalerriko 57.214 biztanleri emango die zerbitzu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak egindako 'Gipuzkoako lurralde historikoko saneamenduaren egungo egoerari buruzko analisisia' izeneko azterketan emandako datuak, Abaltzisketari eta 2001. urteari buruzkoak, erantsitako taulan ikus daitezke:

Abaltzisketa. 2001. urtea (m <sup>3</sup> /urte)						
Gunea	Biztanleria	Isurketa (m <sup>3</sup> /urte)	Industriako isurketak (m <sup>3</sup> /urte)	Abeltzaintzako isurketak (m <sup>3</sup> /urte)	Isurketa guztira (m <sup>3</sup> /urte)	Biztanle baliokideak
Abaltzisketa	216	9.461	0	5.861	15.322	323
Barreiatuak	42	1.656	0	1.458	3.113	66
<b>Guztira</b>	<b>258</b>		<b>0</b>			<b>389</b>

*Iturria: Gipuzkoako uraren erabilera iraunkorrari buruzko gidalerroak lantzeko oinarriak. Ikaur. 2006.*

Txosten horrek berak, bestalde, biztanle baliokideen zenbatespena biltzen du, Adunako Hondakin Uren Araztegiaren isurtzen duen saneamendu-sarea osatuko duten udalerriei dagokiena. Kasu honetan, 2001ean ezarritako ratioa kontuan izanik, Abaltzisketako Plan Orokorren berrazterketan 2020. urterako kuantifikatutako 93 biztanleko gehikuntzak 140 biztanle baliokide inguruko gehikuntza ekarriko du 2001eko datuen aldean, hots, Adunako Hondakin Uren Araztegiarako zenbatetsitako ahalmenaren % 0,2 baino gutxiago.





## **VI.-NEURRI BABESLEEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA**

### **VI.1.- IDENTIFIKATUTAKO INPAKTUEN ERAGINAK ARINTZEKO PROPOSATUTAKO NEURRI PREBENTIBOAK ETA ZUZENTZAILEAK**

Hurrengo epigrafeetan proposatuko dira aurreko kapituluan identifikatutako ingurumen-inpaktu negatibo nagusiak arintzeko neurri prebentiboak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak. Aurreko kapituluan identifikatutako inpaktuen eraginpean dauden elementuetako edo alderdietako bakoitzerako neurriak ezarri dira. Proposatutako neurri horiek obra-faseari ez ezik, ustiapen-faseari ere badagozkie.

#### **VI.1.1.- Lurzoruaren artifizializazioaren eraginak arintzeko neurriak**

- Ahal den heinean, azalera iragazgaitza ahalik eta txikiena izan dadin bilatuko da. Ildo horretan, eremu zolatu iragazgaitzak mugatzen saiatuko da, eta, hala, ahal den heinean, luraren iragazte naturaleko ahalmenari eutsiko zaio. 'Etxesoro' esparruaren barneko ibilgailuentzako sarbideetan eta oinezkoentzako espazioetan euriarekiko material iragazkorrak erabiltzea planteatuko da.
- Obrei ekin aurretik, eraginpean dauden lursailen mugak zuinkatuko dira, behar-beharrezkoa den lurzoria besterik ez aldatzeko.
- Obretarako sarbideak aurretik dauden bideetatik egingo dira, ahal den heinean, eta beste sarbide batzuk eraikitzea saihestuko da. Obrei hasiera eman aurretik zehaztu beharko dira sarbide horiek.
- Eraginpean dauden lurzoruetako balio handieneko horizonte edafikoak –galtzea saihestezina denean– behar bezala metatuko dira, eta obrak berak lehengoratzeko eta lorategiak osatzeko lanetan erabiliko dira. Mota horietako lurzoruen soberakinak badaude, helburu eraginkorra bilatuko zaie hurbil, hala nola hurbileko obretako lehengoratzeko-lanetan, nekazaritza-finka mugakideen hobekuntzan, eta abar. Nolanahi ere, beste mota bateko material batzuekin batera betelan-eremu batera eramatea saihestuko da.

#### **VI.1.2.- Landarediaren gaineko eraginak arintzeko neurriak**

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatzeko tresnek (urbanizatzeko jardun-programak, urbanizazio-proiektuak, plan bereziek, eta abar) dagokien planoan 'intereseko landaredia' baldintzatzaile gainjarri gisa identifikatutako landaredi zuhaitzunen orbanak mantentzearen alde egingo dute. Ahalik eta doitasunik handienarekin mugatuko dituzte, baldintzatzaile horrek ezarritakoaren arabera.
- Urbanizatzeko esku-hartzeetan, berriz, mugatu eta markatu egingo dira zein azaleratan kendu behar den sasitza eta markatu egingo dira moztu beharreko zuhaitzak. Hala ere, zalantza izanez gero, edozein oin babesteko irizpidea hartuko da. Lur-higiduren eraginpean dagoen eta emaitzazko antolamenduarekin bateraezina den landaredia soilik ezabatuko da. Obrei ekin aurretik, zaindu nahi diren intereseko landarediko azalera guztiak zuinkatuko dira, eta behar-beharrezkoa den azalera baino azalera handiagoa eraginpean egotea saihestuko da. Zehazki, alderdi horri jarraipen berezia egingo zaio lbiur-Larraitz bidezidorraren trazadura definitzean eta obrak gauzatzean.



- Landaredia ereite bidez, ereite hidrauliko bidez eta/edo landaketen bidez berriro ezarri ahal izateko baldintza egokietan proiektatuko dira emaitzazko hondeatzeak eta ezpondak.
- Lur-higiduretan landaredi-espezie exotiko inbaditzaileak hedatzea saihestuko da. Horretarako, jardunbide egokien berriazko kodea erabiliko da.
- Urbanizazio-proiektuek zehatz-mehatz definituko dituzte formazio erdi-naturaletara zuzenduko diren berdeguneak eta parkera zuzenduko diren azalerak, eta horietan apaindura-izaera handiagoa izango duten espezieak ezarri ahal izango dira. Berdeguneetarako landatze-proiektuetan ez dira landare-espezie exotiko inbaditzaileak barne hartuko, ez belarkaren kasuan, ez zuhaixken kasuan, ezta zuhaitzen kasuan ere.
- Hiri-espazio libreak diseinatzean, zonaren baldintza bioklimatikoetara egokitzen diren eta gutxieneko mantentze-lanak eskatuko dituzten landare-espezieak erabiliko dira. Zehazki, ura ahalik eta gehien murrizteko sistemak antolatuko dira, eta ura berrerabiltzeko aukera emango duten sistemak sustatuko dira.

#### **VI.1.3.- Paisaiaren gaineko eraginak arintzeko neurriak**

- 'Etxesoro' esparrua urbanizatzeko proiektuak 'Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Programa' izango du, honako alderdi hauek beteko dituena:
  - Obrak eta jardun osagarriak egitearen eraginpean dauden eremuak bilduko ditu, hala nola instalazio osagarriak, zabortegei edo hondakindegiei berriak, obretan erabili beharreko materialak erauzteko zonak, lur gaineko isurketa-urak drainatzeko sarea, eta obra egiteko zabalduko sarbideak eta bideak.
  - Ezpondetan eta harri-lubetan landaredia berriro ezartzeko lehengoratzeko neurriak hartuko ditu. Ezpondak lehengoratzeko eta eraberritzeko lanak lehenbailehen egingo dira, landaredirik gabeko ezpondak agertzea eta ezponda horiek higatzea saihesteko.
  - Berdeguneetan eta hiri-lorategietan landaredia ezartzeko erabiliko diren landare-espezieak hartuko ditu barnean programak. Ildo horretan, landaredia babesteko neurriak buruzko atalean finkatu diren landaredia babesteko neurriak beteko dira.
  - Programak obraren arrasto guztiak ezabatzeko amaierako garbiketa-lanak egin behar direla hartuko du barnean.

#### **VI.1.4.- Lur-balantzeen eraginak arintzeko neurriak**

- Urbanizazio-proiektuetan esku-hartzeetako lur-balantzea neutroa izan dadin ahaleginduko da, esparruaz kanpo metatu behar diren soberakin nabarmenik gabe eta mailegu-behar nabarmenik gabe.
- Sor daitezkeen lur-soberakinak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, bereziki kontuan hartuta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Proiektu-fasean balizko lur-soberakin horren bolumena eta xedea definituko da: lege baimendutako egituretan (betelanetan edo lur-berdintzeetan) metatzearen bidez kudeatu beharko da, 49/2009 Dekretuan aditzera ematen denaren arabera.
- Mailegu-materialek, bestalde, azterlan zehatzek aditzera ematen dituzten zehaztapen geoteknikoak beteko dituzte, eta lurzorua poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. Eranskinaren VIE-A balioak beteko dituzte.



### **VI.1.5.- Poluzioaren eta baliabideen eskariaren gehikuntzaren eraginak arintzeko neurriak**

- Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira obrak egiten diren bitartean sortutako hondakinak.
- Erabilitako hondakinak zein mundrunak hondakin toxikoetarako eta arriskutsuetarako honako xedapenetan ezarritakoaren arabera tratatuko dira: hondakinei buruzko 10/1998 Legean; Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan; eta horiekin bat datorren gainerako araudian.
- Behar bezala etiketatutako ontzien bitartez jasoko dira hondakinak obretan. Ontzi horiek erabilera horretarako aurretik izendatutako guneetara eramango dira, horien gaikako bilketa bermatzeko moduan. Gune horiek behar bezala iragazgaiztuko dira hormigoizko ohearen gainean, eta estalita egingo dira. Era berean, obrako material solidoak metatzeko berariazko zonak esleituko dira. Hondakinak metatzeko guneek su-itzalgailluak edukiko dituzte, eta su hartzeko edo beroa sortzeko iturriak saihestuko dira, besteak beste. Horrela suteak piztea eragotzi nahi da.
- Erregaiak, olioak eta beste osagai toxiko batzuk ezustean isurtzea saihesteko beharrezko neurriak hartuko dira.
- Urbanizazio-proiektuek, bestalde, solidoak ibai-sarera ahalik eta gutxien arrastatzeko neurriak ezartzea aurreikusiko dute, hala nola dekantadoreak, sedimentazio-oztopoak, edo iragazkiak.
- Ustiapen-faseari begira, 'Etxesoro' hirigintza-esparrua urbanizatzeko proiektuak hiriko hondakin-urak eta euri-urak bereizteko sareak barne hartuko ditu. Saneamendu-sarea kolektore orokorre lotuko zaie, hiriko hondakin-urak eskualdeko Hondakin Uren Araztegian tratatzeko.
- Eguzki-energia sortzeko sistemak instalatuko dira (eguzki-hargailuak eta/edo plaka fotovoltaikoak) bizitegiarako eta zuzkiduretarako eraikin berrietan, betiere Eraikintzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera (314/2006 Errege Dekretua) eta energia aurrezteko DB HE dokumentuaren arabera –zehazki 4. atalaren arabera (ur bero sanitarioko gutxieneko eguzki-ekarpena) eta 5. atalaren arabera (energia elektrikoko gutxieneko ekarpen fotovoltaikoa)–.
- Eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagiria lortu beharko da, eraikuntza berriko eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretuan adierazten denaren arabera.

### **VI.1.6.- Ingurumen-zarataren eraginak arintzeko neurriak, lasaitasuna**

-2. Etxesoro' hirigintza-esparruaren hirigintza-garapenak ahalegin guztiak egingo ditu eremu akustikoetako kalitate akustikoko helburuak betetzeko. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta haren garapen-araudian, batez ere urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, finkatzen dira kalitate-eremu horiek. Aurreikusten diren jardunetan planteatzen diren erabileren arabera, kasu honetan aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak gaur egun dauden bizitegi-erabilerako eremu berriei dagozkienak izango dira:



Kalitate akustikoko helburuak			
Eremu akustikoa	Ld, dB(A)	Le, dB(A)	Ln, dB(A)
Hiri-garapen berrietako bizitegi-erabilerako lurraldearen sektoreak	60	60	50

*Iturria: Zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren II. eranskina.*

- Edonola ere, eraikuntza berriek nahitaez bete beharko dituzte B taulan ezartzen diren barne-kalitate akustikoko helburuak, 1367/2007 Errege Dekretuak ezartzen duen bezalaxe –"B taula: etxebizitzara, bizitegira, ospitaletara, hezkuntzara edo kultura-erabileretara zuzenduko diren eraikuntzen barne-espazio bizigarriari aplikatu dakioken zaratarako kalitate akustikoko helburua"-. Era berean, Eraikingintzaren Kode Teknikoaren zarataz babesteari buruzko DB-HR dokumentua onartzen duen 1371/2007 Errege Dekretuaren eskakizunak ere hartu beharko dira kontuan. Honako taulan laburbiltzen dira kalitate-helburuak:

Kalitate akustikoko helburuak				
Eraikinaren erabilera	Barruti mota	Ld, dB(A)	Le, dB(A)	Ln, dB(A)
Etxebizitza edo bizitegia	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30

*Iturria: Zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren II. eranskina.*

- Obrak egitean trafikoa kontrolatuko da, trafikoa gehitzearen ondoriozko eragozpen eta arrisku gehigarriak saihestearren. Obren garaian jardun-zonatik zirkulatzen duten ibilgailuen abiadura-mugak eta ibilgailuen bolumena kontrolatuko da, batez ere egun lehorretan eta haize handiko egunetan. Kontrol hori hurbileko esparruan zeharreko ibilgailu horien trafikora zabalduko da.
- Obretan erabiltzen den makineriak zarata murrizteko beharrezko gailuak edukiko ditu, eta zehatz-mehatz beteko ditu obrako makineriaren soinu-emisioen mugei buruzko 86/662/EEE eta 95/27/EE zuzentarauak. Makineria behar bezala mantenduko da eta beharrezkotzat jotzen diren azterketak egingo dira.

#### **VI.1.7.- Arrisku geoteknikoak arintzeko neurriak**

- Garapen-plangintza lantzean, azterlan geoteknikoak eskatuko dira. Azterlan horiek eremuen eraikuntza-baldintzak identifikatuko dituzte, eta eraikinak eta azpiegiturak eraikitzeko gomendioak egingo dituzte. Urbanizazio-jardunek zorroztasunez beteko dituzte idatzitako txosten geoteknikoen gomendioak.

#### **VI.1.8.- Akuiferoen urrakortasunaren gaineko eraginak arintzeko neurriak**

- Lurpeko urak polui ditzaketen obra-zona guztiak iragazgaitzuko dira, eta lixibiatuak iragaztea saihesteko hartu beharreko arreta-neurriak areagotuko dira.

#### **VI.1.9.- Kultura-ondare katalogatuaren gaineko eraginak arintzeko neurriak**

- Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea eta beste xedapen batzuk betetzearen kalterik gabe, lanak garatzean arrasto arkeologikoa izan daitekeen aurkikuntzaren bat gertatuz gero, behin-behinean etengo dira zona horretan lanak eta berehala emango zaio



aurkikuntzaren berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari. Aldundiak finkatuko ditu hartu beharreko neurriak.

## **VI.2.- PROPOSATUTAKO NEURRIEN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA**

9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, hainbat planek eta programek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoak, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenen gutxieneko edukia ezartzen du I. eranskinean. Azkeneko puntuan, legeak ezartzen du ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenak bere baitan hartu beharko duela 'planaren edo programaren eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo arintzera zuzendutako neurrien eta aukeren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena'.

### **VI.2.1.- Plan Orokorren proposamenen bideragarritasun ekonomikoa**

Plan Orokorren eta haren proposamenen bideragarritasun ekonomikoa espedientearen '4. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa. Jardun Programa' dokumentuan aztertu da, VII. atalean hain zuzen ere. Dokumentuan proposamenen iraunkortasuna aztertu da, Plan Orokorra hautatutako lurralde- eta hirigintza-ereduaren esparruan.

Planak hartutako neurriek hezurramitzen duten udalerraren hirigintza-ereduak, hiri-garapenei dagokienez, egungo hiri-ingurunea hartzen du erreferentzia gisa, hura birgaitzea eta optimizatzea proposatzen du eta garapen berriak hautemandako eskariei erantzuteko beharrezkoak diren mugatzen ditu, aldameneko espazioetan kokatuta. Emaizako hiri-ingurunearen jarraitutasun horrek esku hartzeko eredu egokia osatzen du, besteak beste honako emaitza hauek lortzea ahalbidetzen duena:

- Egungo bide-azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak (ura, saneamendua, elektrizitatea...) erabiltzearen eraginkortasuna sustatzea.
- Alor horretako premia berriak murriztea edo, gutxienez, ahal den neurrian minimizatzea, planteatutako garapen berriekin lotutako beharrei erantzunez. Horretarako, lehentasuna emango zaio lehendik daudenak birmoldatzeari eta/edo handitzeari, horrek murriztu egiten baititu inbertsio-kostuak eta mantentze-gastuak.

Oro har, Plan Orokorra garatzeko behar diren inbertsio ekonomikoen egokitasuna eta beharra proposamen horien beharra justifikatzearekin berarekin zuzenean lotuta dagoela ulertu behar da. Helburua behar bezala justifikatuta planteatutako eskariei erantzutea den neurrian, ondorioztatu behar da, oro har, Plan Orokorra eta haren proposamenak ekonomikoki iraunkorrek direla, beharrezkoak diren heinean.

Aurreikusitako jardunen balorazio ekonomikoa zuzenean hartzen du eraginpean udal-lurraldearen orografia korapilatsuak (hiri-ingurunea barne), horrek inplikazio ekonomiko garrantzitsuak sortzen baititu planteatutako proposamenak garatzeko eta gauzatzeko kostuetan. 'Etxesoro' esparruko hiri-garapenak (bizitegira zuzendua) aurre egin behar die orografia egokitzeko kostuei eta ezarpenarekin lotutako eskakizunei (ondoriozko lur-higidurak, eta abar). Kostu saihetsezinak dira, hautemandako eskariei erantzuteko ezinbestekoa baita proposamenak gauzatzea eta mamitzea.

Nolanahi ere, proposamenak gauzatzeak ez dakar garapenak banantzearekin, azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak gairantsionatzearekin edo antzeko beste alderdi batzuekin lotutako ohiz kanpoko kosturik. Testuinguru horretan, proposamenak gauzatzeko edo gerora mantentzeko, eraginpeko administrazioek ez dute inbertsio edo gastu berezirik egin behar, ez behintzat beren eskumenak eta eginbideak betetzearekin loturik egin ohi dituztenak baino handiagoak.



### VI.2.2.- Neurri babesleen eta zuzentzaileen zenbatespen ekonomikoa

Neurri babesleen eta zuzentzaileen kostu ekonomikoaren zenbatespena sartu da, haien xehetasun-mailak eta definizioak horretarako aukera ematen duen kasuetan. Gogoan izan behar da zenbatespen hori prozesu jarraitu baten esparruan kontuan hartu behar dela, Plan Orokorra garatzeko sustatu beharreko hurrenez hurrengo hirigintza-proiektuen bitartez (urbanizatzeko jardun-programa, urbanizatzeko eta berdinbanatzeko proiektuak, eta abar) gero eta zehaztasun handiagoa eman behar zaiola.

- AAI.1 jardun integratuko esparruaren Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Programa ..... 900 €.
- Ibiur-Larraitz paisaia-ibilbide bereziaren proiektuaren Ingurumena eta Paisaia Lehengoratzeko Programa, eta proiektua gauzatzearen ingurumen-zaintza.... 1.900 €.

AAI.1 jardun integratuko esparruan aurreikusitako jardunaren kasuan, bai kostu horiek eta bai kapitulu honen epigrafeetan sartutako beste zenbait neurriren ondorio direnak jardun horien balorazio ekonomiko orokorrean sartutzat jo daitezke. Zehazki, jardun horien gastu orokorren balorazioak hirigintza gauzatzeko dokumentuak, proiektu teknikoak, azterketa osagarriak eta abar lantzeak sortutako gastuak hartzen ditu barnean. Gastu horiek urbanizazioa gauzatzeko kostuen % 10 direla zenbatetsi da gutxi gorabehera.



## **VII.- PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMA**

### **VII.1.- KONTROL ETA JARRAIPEN HELBURUAK**

Ingurumena Ikuskatze Programaren helburua da Abaltzisketako Plan Orokorra berraztertze proiektuaren ondorio diren jardunen eraginpean egon daitekeen ingurumen-kalitatearen zaintza bermatzea.

Ikuskatze Programaren asmoa da proposatutako neurri babesleak eta zuzentzaileak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, eta, azterketa honetan aurreikusi ez diren inpaktu berriak sortzen badira, horiek gutxitzeko neurri berriak proposatzea. Programak, bestalde, udalerriko ingurunearen ingurumen-kalitatearen jarraipena egiten du, Plan Orokorraren zehaztapenekin erlazionatutako adierazle espezifikoak hautatuta.

### **VII.2.- IKUSKATZEKO PROGRAMAREN FASEAK**

Ingurumen-kontrola hiru fasetan bereizten da:

- Plangintza Ikuskatze Programa (Plan Orokorra eta garapen-plangintza), espedienteak izapidetzen diren bitartean.
- Ingurumen Zaintzako Programa, Planaren ondoriozko obrak egiten diren bitartean.
- Udalerriko ingurumen-kalitateko alderdirik adierazgarrienen epe luzerako ingurumen-jarraipeneko programa.

#### **VII.2.1.-Plan Orokorra eta horren garapen-plangintza lantzean aplikatu beharreko ikuskatze programa**

Plan Orokorra izapidetu den bitartean, Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten honetan proposatutako neurri prebentiboak eta zuzentzaileak edo ingurumen-organo eskudunak zehaztu dituenak Planean sartu diren kontrolatu dute talde idazleak eta Udaleko Hirigintza Batzordeak.

Behin betiko onartzen denetik aurrera, zaila da epe luzerako aurreikuspen bat egitea eta Planaren garapenaren ondorio izan daitezkeen jardun eta jarduera guztiak aurreikustea. Hori dela-eta, gomendatzen da garapen-plangintzari dagozkion dokumentuek, ingurumen-ebaluazio bana-banakoaren edo sinplifikatuaren mende ez badaude, honako alderdi hauek bilduko dituzten ingurumen-txostenak jasotzea:

- Ingurumen-inpaktuen definizioan ziurgabetasunak edo informazio-gabeziak hauteman badira, ingurumen-inpaktu horiek zehaztasun handiagorekin baloratzea.
- Azterlan honen ondoriozko neurri prebentiboak eta zuzentzaileak garatzea, azterlan xehatuago baten ondoriozko neurriekin batera. Proiektuaren eskalara arte zabaldu beharko da horien garapena, aurrekontu orokorrari txertatu beharko zaizkion kontu-sailak barne.
- Obrak egitean eta ondorengo jarraipenean, zaintza-planaren irispidea xehetasun handiagorekin definitzea.

Udalak kontrolatu eta baloratuko ditu ingurumen-txosten horiek.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren (bana-banako edo sinplifikatua) edo Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozeduraren mende dauden beste plan batzuei dagokienez (plan bereziak edo lurzoru urbanizaezinean eragina duten beste plan batzuk), plan



horien izapideetan ezarriko dira xehetasun handiagoarekin Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten honetan zirriborratzen diren zehaztapenak.

### **VII.2.2.-Obretako Ingurumen Zaintzako Programa**

Plan Orokorra onartu denean eta garapen-plangintza lantzen den heinean, behar-beharrezkotzat joko da neurri prebentiboak eta zuzentzaileak betetzea bermatuko duen obren ingurumen-kontrola egitea.

Obretako ingurumen-zaintza eta ingurumen-kontrola Abaltzisketako Udaleko edo entitate mankomunatuetoako pertsonal teknikoak edo, hala badagokio, arlo horretan espezializatutako enpresa batek edo ingurumen-teknikari batek egitea proposatzen da.

Ikuskatzeko Programaren izaera eta erdietsi nahi dituen helburuak kontuan harturik, zainduko diren alderdiak edo aldagaiak dokumentu honen aurreko kapituluari ezarritako neurri prebentibo edo babesleekin erlazionatuta daude.

Txosten honek Ingurumen Zaintzako Programa bakar bat proposatzen du, azterketa-esparruetako bakoitzeko urbanizazio-obra kontrolatzeko programak garatzeko erreferentzia-dokumentua izango dena.

Hauetako dira kontrolatu behar diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak:

1. Interes bereziko landaredia babestea.
2. Lur gaineko urak babestea.
3. Paisaia babestea eta lehengoratzea.
4. Balio estrategiko handiko lurzoruak babestea.
5. Kultura-ondarea babestea.
6. Soinu-kalitatea kontrolatzea.
7. Energia-aurrezpena kontrolatzea.
8. Hondakinak, betelanak eta lur-egokitzeak kontrolatzea.

### **VII.2.3.-Ingurumen Jarraipeneko Programa**

Plan Orokorraren ondoriozko zuzeneko jardunez gain, Abaltzisketako udalerriko ingurumen-kalitatean Plan Orokorraren indarraldian eragina izango duten arloko edo lurraldeko beste plan batzuen edo plan estrategikoen ondoriozko beste jardun batzuk ere badaude.

Hori dela-eta, Abaltzisketako udalerriko ingurumen-kalitate globalaren ingurumen-jarraipeneko programa proposatu da. Programa horrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zuzeneko proposamenak gaituko ditu, eta udalerraren Agenda 21aren prozesuaren esparruan txertatu ahal izango da.

Ildo horretan, jarraipenaren xede diren aldagaien eta 'Udalmap' lurraldeko informazio-sisteman sartutako iraunkortasun-adierazleen arteko koordinazioa gehitzen du jarraipen-proposamenak. Adierazle horiek abantaila bat dute: informazio ofiziala da, erraz eskura daitezke, sistematizatuta daude eta etengabe eguneratzen dira. Horrela, errazagoa da jarraipena Agenda 21aren esparruan egitea. Horiez gain, hainbat adierazle espezifiko gehitu dira, 'Udalmap' lurraldeko informazio-sisteman sartuta ez daudenak, Plan Orokorrak proposatutako antolamenduetarekin eta zonifikazioarekin erlazionatuak.

Hautatutako adierazle bakoitzerako datu hauek sartzen dira: definizio laburra, 'Udalmap' aplikazioak emandako balioaren daturik berriena, baldin badago, Plan Orokorraren egungo balorazioa, eta, ahal bada, Plan Orokorraren horizonteko balioaren zenbatespena, bertan ezarritako aurreikuspenen arabera.





1- Hiri-lurzoruaren azalera: udalerriaren guztizko azaleraren gaineko hiri-lurzoruaren ehunekoa.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2009	0,26*
Plan Orokorra	2012	0,30
Plan Orokorra	2020	0,41

\* Udalmap adierazleak bizitegi hiri-lurzoru eta jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru besterik ez du sartzen hiri-lurzoru gisa. Plan Orokorri dagokion kalkuluan hiri-lurzoru gisa sailkatutako azalera guztia sartu da.

2- Bizitegi-azalera urbanizagarria: udalerriaren bizitegi-azaleraren gaineko bizitegi-lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2009	0,00
Plan Orokorra	2012	35,00

3- Garraio-sistemara zuzendutako azalera: udalerriaren guztizko azaleraren gaineko garraio-eta komunikazio-azpiegituretara zuzendutako udalerriaren azaleraren ehunekoa.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2008	0,78
Plan Orokorra	2012	0,50
Plan Orokorra	2020	0,50

4- Biztanle-dentsitatea: udalerrian bizi den biztanle kopurua, udalerriaren azalera km<sup>2</sup>-ko.

Iturria	Urtea	Balioa (bizt./km <sup>2</sup> )
Udalmap	2009	28,21
Plan Orokorra	2012	27,76
Plan Orokorra	2020	35,93

5- Poluituta egon daitekeen lurzorua: poluituta egon daitekeen udal-lurzoruaren guztizko azaleraren ehunekoa.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2008	0,08

6- Hondakin arriskutsuen kudeaketa biztanleko: udalerrian kudeatutako hondakin arriskutsuen urteko bolumena, biztanleko.

Iturria	Urtea	Balioa (kg/bizt./urte)
Udalmap	2004	6,46

7- Sortutako hiri-hondakinak biztanleko: udalerrian sortutako etxeko hondakin guztizko bolumena, biztanleko eta urteko.

Iturria	Urtea	Balioa (kg/bizt./urte)
Udalmap	2008	422,71



8- Guztizko ur-eskaria: behe-presioan eskatutako guztizko ur-bolumena, biztanleko eta eguneko.

Iturria	Urtea	Balioa (l/bizt./egun)
Udalmap	2001	244,71

9- Ur-hornidurako sistemaren errendimendu-indizea: kontrolatu gabeko ur-bolumena, udalerrian zerbitzatutako guztizko ur-bolumenaren gainean.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2005	52,75

10- Airearen kalitate oneko edo onargarriko egunak: udalerriko aireak kalitate ona edo onargarria duen urteko egunen ehunekoa, EAEn hedatutako aire atmosferikoa kontrolatzeko eta zaintzeko sarearen arabera.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2008	95,63

11- Udalerriko urteko kontsumo elektrikoa: enpresa hornitzaileak udalerrian fakturatutako urteko elektrizitatea, biztanleko.

Iturria	Urtea	Balioa (kWh/biztanle)
Udalmap	2008	2.301,17

12- Potentzia fotovoltaikoa: udalerrian instalatutako potentzia fotovoltaikoa (kilowatt pikoetan, kWp), 10.000 biztanleko.

Iturria	Urtea	Balioa (kWp 10.000 biztanleko)
Udalmap	2008	296,53

13- Eguzki-azalera termikoa: udalerrian instalatutako eguzki-azalera termikoa (m<sup>2</sup>), 10.000 biztanleko.

Iturria	Urtea	Balioa (kWp 10.000 biztanleko)
Udalmap	2008	236,59

14- Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria duten etxebizitzak (CADEM): energia-eraginkortasunaren ziurtagiria duten etxebizitzaren ehunekoa, udalerriko guztizko eraikinen gainean.

Iturria	Urtea	Balioa (‰)
Udalmap	2008	0,00

15- Udalerraren konektibitatea garraio publikoaren bidez (hiriarteko autobusa): udalerrira EAeko zenbat udalerrirekin konektatzen den hiriarteko autobus-zerbitzuaren lineen bitartez.

Iturria	Urtea	Balioa (kop.)
Udalmap	2007	4



16- Babes bereziko udal-azalera: babes berezikotzat kalifikatutako udalerraren azaleraren ehunekoa, udalerraren guztizko azaleraren gainean.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Udalmap	2009	6,96
Plan Orokorra	2012	54,42

17- Parkeek, lorategiek eta hiri-berdeguneek okupatutako azalera: parkeek, lorategien eta berdegune publikoek okupatutako azaleraren ehunekoa, hiri-lurzoruaren azaleraren gainean.

Iturria	Urtea	Balioa (% / hiri-lurzorua)
Plan Orokorra	2012	7,20

18- Parkeek, lorategiek eta hiri-berdeguneek okupatutako azalera: parkeek, lorategien eta berdegune publikoek okupatutako azalera (m<sup>2</sup>), biztanleko.

Iturria	Urtea	Balioa (m <sup>2</sup> /biztanle)
Plan Orokorra	2012	7,01

19- 'Interes bereziko landaredia' baldintzazailearen pean antolatutako azalera: azaleraren ehunekoa lurzoru urbanizaezinaren guztizko azaleraren aldean.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Plan Orokorra	2012	13,5

20- 'Balio estrategiko handiko lurzorua' baldintzazailearen pean antolatutako azalera: azaleraren ehunekoa lurzoru urbanizaezinaren guztizko azaleraren aldean.

Iturria	Urtea	Balioa (%)
Plan Orokorra	2012	1,69



## VIII.- LABURPEN DOKUMENTUA

Dokumentu hau 'Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren' testu bategina da, eta Plan Orokorraren parte da.

### VIII.1.- PLAN OROKORRAREN HELBURUEN ETA AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA

Plan Orokorraren jardun-esparrua Abaltzisketako udalerria da. Esparruak 11,4 km<sup>2</sup> inguruko azalera hartzen du. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 8-10 urteko horizonterako landu da.

Tolosaldea bezalako eskualde industrial baten barruan, udalerria bere ingurunean integratzearen aldeko hauta egin du planak. Horretarako, eskualde-mailan sortzen diren aukeretan hartuko du parte, baina landa-garapeneraren ikuspegitik. Nolanahi ere, guztia biltzen duen lurraldearen eta paisaiaren olgeta eta atsedenekoa izaera sustatzearekin lotzen diren jarduerak ere nabarmenduko dira.

Plan Orokorrak lurzoru urbanizaezina antolatzeke proposamena egiten du, eta elementu naturalistiko baliotsuak balioz hornitzea eta babesa behar duten elementuak babestea du helburu.

Era berean, bertako biztanleriari eusteko eta, hala badagokio, eskualdeko biztanleria erakartzeko aukera emango duen bizitegi-eskaintza egokia garatzea proposatzen da. Baldintza orografikoak direla kausa, Abaltzisketak hiri-garapenerako oso lurzoru gutxi du erabilgarri. Testuinguru horretan, aurretik dagoen hiri-kokalekuari jarraipena emango dion hiri-garapenerako eredua proposatzen da. Oraindik garatu ez diren bizitegi-kokalekuak berriro definituko dira, eta udalerrian bizitegi-kokalekuaren alorrean gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren beharrei erantzungo dien beste bizitegi-esparru bat proposatuko da.

Plan Orokorraren dokumentuak bizitegi-garapenerako proposamen bat hautatu du, izapidetu den bitartean planteatutako aukerak eta udalbatzak, beste administrazio publiko batzuek eta herritarrek parte hartzeko prozesuan esku hartu duten pertsonak helarazitako gogoetak eta iradokizunak aztertu ondoren. 4. kapituluan jaso dira kontuan hartutako aukerak eta azkenean hautatu dena.

### VIII.2.- PLAN OROKORRAREN ETA BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEN ARTEKO INTEGRAZIOA

Hirigintza-espeditentearen parte den 'Analisia eta diagnostikoa' dokumentuan udalaz gaindiko irispidea duten lurralde-plangintzako edo arloko plangintzako zehaztapenen deskribapen zehatza egin da (*VII. Udalaz gaindiko irispidea duen plangintza kapitulua*), baita Abaltzisketako Plan Orokorrean eragina duen eta aplikatzekoa den legeriarena ere (*VIII.1. Aplikatzekoa den legeria epigrafea*).

Dokumentu honen 2. kapituluan Abaltzisketako udalerrian eragina duten plan horien zehaztapen nagusiak eman dira aditzera. Horien artean honako hauek dute eraginik handiena udalerrian:

- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak
- Toloserriko Lurraldearen Zatikoa (Aurrerapen fasean)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana



- EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (behin-behineko onarpeneko dokumentua)
- Saneamenduko eta hornidurako proiektu estrategikoak (Gipuzkoako Urak, SA)
- Ibiur-Larraitz ibilbidearen eta Ibiurko urtegiaren inguruko ibilbidearen proiektuak
- Aralarko Parke Naturala
- Aralarko Garrantzi Komunitarioko Lekua
- Desman piriniotarra kudeatzeko plana
- Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen aurreproiektua
- Agenda 21aren ekintza-plana

### **VIII.3.- PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA**

Hirigintza-espeditentearen parte den 'Analisia eta diagnostikoa' dokumentuak Abaltzisketako udalerrriaren ingurune fisiko eta sozialaren eta bertako biztanleen azterketa xehatua jasotzen du. Dokumentu honen 3. kapituluaren laburbilduta ematen dira aditzera udalerriko ingurune fisikoaren eta sozialaren alderdirik adierazgarrienak.

Aztertutako ingurumen- eta gizarte-alderdien artean honakoak nabarmentzen dira:

- Orografia eta maldak
- Interes geologikoko eremuak: Txindoki mendia eta Ataungo domoa
- Ibai-sarea: lur gainekoa eta lurpekoa; lur gaineko harguneak
- Lurzoruak eta klase agrologikoak
- Landaredia eta lurzoruaren erabilerak: intereseko landaredia, mehatxupeko flora, onura publikoko mendia
- Fauna eta interes faunistikoko eremuak
- Interes naturalistikoko eremuak: espazio natural babestuenak (Parke Naturala, GKL), korridore ekologikoen sarea
- Paisaia
- Kultura-ondarea
- Ingurumen-arrisku naturalak: sute-arriskua; mazedetako prozesuak eta ondoriozko arriskuak; akuiferoen poluzioarekiko urrakortasuna
- Ingurumen-arrisku antropikoak: poluituta egon daitezkeen lurzorua
- Datu sozioekonomikoak: biztanleria, etxebizitza, ekonomia (nekazaritza-sektorea)
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna
- Baliabide hidrikoak eta uraren zikloa
- Hondakinak

*VII.1. Ingurumen-unitate homogeenak* planoak udalerriko eremuen harrera-ahalmena jasotzen du, ikuspuntu ekologikotik balio handiena duten ingurumen-elementuak kontuan hartuta.

*VII.2. Arrisku naturalak dituzten eremuak* planoak, bestalde, arrisku natural nagusiek eraginpean hartzen dituzten eremuak jasotzen ditu.

Ingurumen-elementu nagusien analisia eta balorazioa oso baliagarria izan da lurzoru urbanizaezineko antolamendu-proposamena egiteko. Espeditentearen "5. Planoak" dokumentuan dagozkion planoetan kontsulta daiteke.



#### **VIII.4.- AINTZAT HARTUTAKO AUKEREN INGURUMEN ANALISIA**

Dokumentu honen 4. kapituluaren deskribatzen dira Plan Orokorrean aintzat hartutako bizitegi-garapenerako eta aparkaleku-zuzkidurako aukera nagusiak. Hiru aukeratan biltzen dira, eta iraunkortasunaren ikuspuntutik aztertzen da horietako bakoitza.

Dokumentuak, azkenean, aukeretako bat hautatu du, '4. aukera' izendatuko duguna, deskribatutako aukeretako batzuetan planteatutako soluzioak konbinatzen dituena. Dena den, bereziki, '1. aukera' gisa adierazitako proposamenaren alde egiten du, aurrerapen-fasean aurkeztu zen dokumentuan hasiera batean hautatu zenaren alde, hain zuzen.

Hautatutako aukerak murriztu egiten du hasieran aintzat hartutako bizitegi-garapeneraren dimentsioa, eta baztertu egiten du 'Kilimategi' esparruan aparkaleku publikoak sortzea.

#### **VIII.5.- INGURUMEN INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA**

Dokumentu honen 5. kapituluaren inpakturik adierazgarrienak ekar ditzaketean Plan Orokorrean sartutako proposamenek aurreikusitako inpaktuen analisi zehatza eta balorazioa egin da.

Proposamen eta/edo jardun hauek analizatu dira:

- Lurzoru urbanizaezinen antolamendua (zonifikazioa, baldintzatzaile gainjarriak, araudia).
- '2. Etxesoro' hirigintza-esparruko bizitegi- eta zuzkidura-garapena.
- Paisaia-ibilbide bereziak (Ibiurko ingurunea, Ibiur-Larraitz).

Dokumentuak Gipuzkoako Ur Kontsultazioak emandako aldeko irizpena jasotzen du, bai eskariak izan dezakeen gehikuntzari aurre egiteko behar adinako ur-hornidura izateari dagokionez, eta bai saneamendu-sareak sare orokorrera konektatzeari dagokionez.

Ez da inolako aukerarik ezabatu inpaktu larria sortzeagatik.

#### **VIII.6.- NEURRI PREBENTIBOEN, ZUZENTZAILEEN ETA KONPENSATZAILEEN PROPOSAMENA**

6. kapituluaren Plan Orokorrearen jardunen ondorioz ingurumenaren gainean sor daitezkeen eragin negatiboak arintzeko hainbat neurri prebentibo eta zuzentzaile ezartzen da, bai obra fasean, bai obrak amaitu ostean.

Mota horietako neurriak honako alderdi hauen gainean ezarri dira nagusiki:

- Landaredia
- Paisaia
- Lurzoruaren artifizializazioa
- Lurren balantzea
- Baliabide materialak eta energetikoak
- Poluzio atmosferikoa
- Soinu-kalitatea
- Akuiferoen babesak
- Kultura-ondarearen babesak

Neurri babesleen eta zuzentzaileen ondorio diren kostuak jardunen balorazio ekonomiko orokorraren barruan sartutak jo dira, gastu orokorraren balorazioaren barruan hain zuzen ere.



Horien artean daude hirigintza gauzatzeko dokumentuak, proiektu teknikoak, azterketa osagarriak eta abar lantzeak sortutako gastuak. Gastu horiek jardunetako bakoitzaren urbanizazioa gauzatzeko kostuen % 10 direla zenbatetsi da gutxi gorabehera.

#### **VIII.7.- PLANAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO ETA KONTROLATZEKO PROGRAMA**

Azkenik, ingurumen-kalitatearen babesa bermatzea helburu duen ikuskatzeko eta kontrolatzeko programa baten diseinua gaineratu da, hura Abaltzisketako Plan Orokorraren proiektuaren eraginpean egon daiteke-eta.

Programa horrek hainbat jardun-fase ditu: aldez aurreko fasea edo Plan Orokorraren dokumentua bera eta garapen-plangintzaren dokumentuak kontrolatzekoa; Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako jardunen ondorio diren obren Ingurumen Zaintzako Plana; eta udalerrian ingurumen-kalitatearen jarraipena egiteko plana.

Ikuskatzeko Planak hogeitabi ingurumen-adierazle biltzen ditu. Aurreikuspenen arabera, udalak berak egingo du adierazle horien jarraipena Agenda 21aren prozesuaren esparruan.

Abaltzisketa, 2013ko urtarrila

Sin.: Tomás Aranburu Calafel  
Ekolur. Ingurumen Aholkularitza

Sin.: Pilar Amenabar Zabala  
Arkitektoa



I. eranskina. Arriskuan dagoen fauna katalogatua. 10X10 30T WN76 laukia				
Izen zientifikoa	Gaztelaniazko izena	Euskarazko izena	Estatua	Oharra
Triturus alpestris	Tritón alpino	Uhandre alpetarra	Bakana	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Gyps fulvus	Buitre leonado	Sai arrea	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Circus cyaneus	Aguilucho pálido	Mirotz zuria	Interes bereziko	Agertzeko probabilitate handia
Accipiter nisus	Gavilán	Gabiraia	Interes bereziko	Agertzeko probabilitate handia
Caprimulgus europaeus	Chotacabras gris	Zata grisa	Interes bereziko	Agertzeko probabilitate handia
Alcedo atthis	Martín pescador	Martin arrantzalea	Interes bereziko	Hurbil ageri da (Amezketan ibaian)
Jynx torquilla	Torcecuellos	Lepitzulia	Interes bereziko	Oso hurbil ageri da
Dendrocopos minor	Pico menor	Okil txikia	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Cinclus cinclus	Mirlo acuático	Ur-zozoa	Interes bereziko	Hurbil ageri da (Amezketan ibaian)
Prunella collaris	Acentor alpino	Mendi-tuntuna	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Monticola saxatilis	Roquero rojo	Harkaitz-zozo gorria	Interes bereziko	Agertzeko probabilitate handia
Pyrrhocorax graculus	Chova piquigualda	Belatxina mokohoria	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Pyrrhocorax pyrrhocorax	Chova piquirroja	Belatxina mokogorria	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Corvus corax	Cuervo	Erroia	Interes bereziko	Agertzeko probabilitate handia
Gypaetus barbatus	Quebrantahuesos	Ugatza	Desagertzeko arriskuan	Aralar: interes bereziko eremua
Pernis apivorus	Abejero europeo	Zapelaitz liztorjalea	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Circaetus gallicus	Culebrera europea	Arrano sugejalea	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Accipiter gentilis	Azor	Aztorea	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Hieraetus pennatus	Aguililla calzada	Arrano txikia	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Falco subbuteo	Alcotán	Zuhaitz belatza	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Falco peregrinus	Halcón común	Belatz handia	Bakana	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Bubo bubo	Búho real	Hontza handia	Bakana	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Dryocopus martius	Pito negro	Okil beltza	Bakana	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Milvus milvus	Milano real	Miru gorria	Kaltebera	Ager daiteke
Neophron percnopterus	Alimoche común	Sai zuria	Kaltebera	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Aquila chrysaetos	Aguila real	Arrano beltza	Kaltebera	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Phoenicurus phoenicurus	Colirrojo real	Buztangorri argia	Kaltebera	Agertzeko probabilitate handia
Mustela putorius	Turón común	Ipurtatsa	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Felis silvestris	Gato montés	Basakatu	Interes bereziko	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Mustela lutreola	Visón europeo	Bisoi europarra	Desagertzeko arriskuan	Ez da baztertzeko ibiurren agertzea
Galemys pyrenaicus	Desmán del Pirineo	Desman piriniotarra	Desagertzeko arriskuan	Urtsu erreka: interes bereziko eremua
Chionomys nivalis	Ratilla nival	Elur-lursagua	Bakana	Aralar: interes bereziko eremua
Martes martes	Marta	Lepahoria	Bakana	Agertzeko probabilitate handia
Myotis nattereri	Murciélago ratonero de Natterer	Natterer saguzarra	Bakana	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Myotis myotis	Murciélago ratonero grande	Arratoi belarri-handia	Kaltebera	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona
Plecotus austriacus	Murciélago orejudo meridional	Hego-belarrihandia	Kaltebera	Aralar: lehentasuneko banaketa-zona